




Uztapide gogoan

Manuel Lasarte





Manuel Lasarte

Leitzan jaio zan 1927-an, eta gaur Orion bizi da. Euskal Erriak eman duan bertsolaririk aundienetakoa. Alako doaiak ditu, izan ere, beraren bertsogintzak: izkuntz jator-garbia, arrazoi mamitsuak, neurri justua, puntu aberatsak, abots gozoa, umore fiña... Bertsozale jendearen gogoa betetzeko eta atsegintzeko bear diran guziak, alegia.

Baiña, kantuz ez-ezik, aparteko gaitasuna erakusten ari zaigu idazten ere. Orren lekuko dira, ain zuzen, *El Diario Vasco* egunkarian idazten dituan lanak eta *Auspoa* bilduman plazaratutako liburuak, orain artekoak sei eta onako au zazpigarrena.

34739
GAS-129/10

Manuel Lasarte

Uztapide gogoan

Auspoa Liburutegia

261



AUSPOA



• SENDOA

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo auzoa

Tels. 943 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax 943 49 35 48

www.sendoa.com

editorial@sendoa.com

20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)

Manuel Lasarte

Uztapide gogoan

Auspoa Liburutegia

(1999)

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-89080-81-X

Depósito Legal: NA.: 1.106-1999

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, S.A., Estella (Navarra)

Hitzaurrea

NIK ere gogoan dut Uztapide. Onenak emanak zituen aurrez aurre lehen aldiz ikusi nuenerako. Oiartzungo bere etxean bisitatu genuen urte hartako bertsolari gaztetxoen txapelketan parte hartutako neska-mutiko mukizuok. Ez zigun bertsoarik bota, hitzik esan ere apenas. Baina gizon haren begirada betiko gorderik geratu zitzaidan beginian.

Hilabete gutxiren buruan Egileorri Elosun egin zioten omenaldian, bina ale bota genizkion Sarasuak eta biok. Ez ginen beragana joan eta ezer esaten ausartu, baina beste bertsolari batzuen bitartez jakin genuen gure saioska gustatu omen zitzaiola. "Etorkizuna seguru dagoela esan dik Uztapidek!" kontatu zigun haren ondoan egon zen batek. Ez zigun poz makala eman!

Uztapideren aditzera betidanik izan nuen, eta aldioro harritzen ninduen gainontzeko bertsolariek Manuelez zuten miresmen eta begiruneak. Bertsolariz ta gizonaz. Txikia nintzeneko bertso giroko jendeak, orduan gehien bat baserri mundukoa zen bertsozaleen multzoak, oso maitea zuen Uztapide. Izan ere, etorri ederra, ahots indartsua eta oholtza gaina betetzeko gaitasunaz aparte, beste zenbait bertsolari ikasi baino hurbilagokotzat jotzen zuten orduko bertsozaleek, eta gizakiak nekez maitatu ohi du hurbileko sentitzen ez duenik.

“Gure garaian ezagutu den
bertsolaririk osona”.

Horixe idatzi zuen Xalbadorrek Uztapidez.
Amurizak, aldiz, honako hau bota zuen Endoiarra-
ren hiletetan:

“Euskal Herria zurekin eta
zu gabe ez da berdina,
agur, laguna, agur, gizona,
agur, maisurik haundina!

Nik gutixko ezagutu nuen besterik esateko. Ez da erraza, bestalde, hain gutxi ezagututa hainbeste estimatzea. Manuel Lasarte gehixeago ezagutzeko suertea izan dut. Oso gutxitan gozatu izan dut ohol-tza gainean berarekin egin izan nituen saio bakan haietan adina. Nik ezagutu dudan bertsolaririk egokiena da Manuel. Belarri-gozagarri ederragorik! Behin baino gehiagotan joan izan naiz Leitzako Franki baserrira ere, Lasarteren emaitza ahalik eta gehien ulertu eta barneratu nahirik.

Uztapide gogoan izeneko liburu honek hainbat urtez bidelagun izan ziren bi maisu haundiak uztartu ditu. Badira pasarte politak, pasadizo barregarriak, ateraldi graziosoak, bertso ederrak... Baina hori baino askoz gehiago da eskuartean duzun liburua. Dagoeneko galdu den bizitzeko molde baten testigantza da, bertsolariak antolatzaileek agindu baino lau ordu lehenago agertzen zirenekoa. Gainera, freskura harrigarritz, aparteko naturaltasunez kontatua. Nik gozatu dudanaren laurdena gozaten baduzu, nekez geratuko zara behin bakarrik irakurrita.

Xabier Euzkitze

Oarra

MANUEL Lasartek orain bi urte ekin zion Manuel Olaizola Uztapide zanaren oroipenak idazteari, leen beste lagun miña batenak bezela: *Lazkao-Txiki gogoan, Auspoa* 221, 1994.

Liburu onen atalak *El Diario Vasco* egunkarian argitaratu dira aurrena: 1997-V-11-n, leenengoa; eta 1999-IV-9-an, azkena. Artikulu oien bilduma da, beraz, gaur irakurleari eskeintzen dioguna.

Baiña luma dantzatzen asi aurretik pentsatutako pausoak ziran oiek danak: leendabiziko agerpena egunkarian egingo zala, alegia; eta bigarrena, liburuan.

Oartxo bat bearrezkoa zan, gure ustez, irakurlea Lasarte bertsolariaren idazlan berri au zer dan obeto jabetu dedin.



Manuel Lasarte mendian

Jaiotetxea eta Endoia

IÑOIZ aztu ta baztarrean utziko ez dedan lagun maitagarri baten ixtoriala edo kondaira pixka bat berritu nai nuke, asi ta bukatu bitartean bizirik irauteko almenik ematen baldin badit gure jabe degun Jaungoiko Jaunak.

Nor ote da, ba, Lasarteren lagun aipagarri ori? Manuel Olaizola *Uztapide* bertsolari sonatu uraxe, ez geiago ta ez gutxiago. Endoiako Uztapide izeneko baserrian jaio ta azitako semea, zorionez.

Baiña, bertsozale guztiak ezagutuko ez dutenez, adieraziko diotet nontsu dagoen Endoia. Itziar pasa, goiko gaiñetik beera Lastur alderako bidea artu ta berealaxe, baserri bat dago kamioaren ertzean, ezkerretara; eta antxe, etxearen ondoan ikusten dan letrero batek markatzen du Endoia.

Bidegurutze artatik ez da urruti Uztapide baserria, edo etzan urruti, obeki esateko. Aspaldi samar ezkutatu baizan leengo etxe zaarra. Salgai zegoenez, erosi zuenak bota dena ta aldemenean ormigoizko berri bat egin. Ara nola aldatzen diran gauzak eskutik eskura batzuetan.

Guk, Manuel Olaizola bertsolari zanak eta biok, Endoian prankotan kantatu genduen, eta Manuelen arreba bizitzen zan garai artan bere familiarekin baserrian, jaiotetxean alegia.

Senarra Txarrantxola baserrikoa zuen, auzotarra. Gizon patxadazkoa bezin jatorra, neretzat beintzat.

Ostatua ere edukitzen zutelakoan nago, inguruko jendearen serbitzurako.

Uztapide baserria ona zala sarritan entzuna naiz batean eta bestean. Terreno-sail aundiak omen zituen. Erosoak gaiñera. Erosotasuna ixtimagarria iduritzen zait. Ori ez da nun-nai izaten.

Endoia oso baillara polita da nere begientzat, bertan bizi diranak agian ez dute ala usteko baiña. Nik udara pozik pasako nuke an, al banu. Ezin dedalako ez naiz joango, ta kito.

Negurako paraje otza izan liteke. Gu Ziolar baserrian lanean jardun giñan egun batzuetan, eta eguraldi txarrak egokitu zitzaizkigun. Etzan giro. Aizea indartsu ibilia zan, bekain-bizarrak kentzeko moduan esate baterako; ta euri-zaparrada zorrotzak zital amorratuak. Itxas aldeko erauntsi gogorrek aurrez aurre arrapatuko dute Endoia baillararen zati bat, seguru asko.

Mendi ta baso ederrak izango ziran inguru aietan leen, pagadiz, gaztaindiz, aritzez, alkaziz, zumarrez eta abar beterik zeuden garaian. Ni lenengo Lasturrera ta Endoiara, bi oietara kantu-lanera joaten asi nintzanean, ikusi nituen zugaitz bikaiñak.

Ardiz, beorrez, larra-beiez eta abere-mota oiekin ere osatu samarrak egongo ziran ango baso-zokoak, adibidez.

Uztapide bertsolariak bazekien gauzak garbi ta dotore kontatzen. Kurpil berezia ematen zion pasadizo bakoitzari, ain izlari egokia izanik; eta entzuten zegoen jendea ao zabalik jarri arazten zuen sarritan, bera batere nekatu gabe.

Eiztari purrukatua zala badakit, ez neronek ikusita, baiña bai berak esanda. Oillagorretan gozaten omen zan geienbat.

Zakur on samarrak ere edukiko zituela dudarik ez dago. Derrigor bear baidira langintza ortarako.

Eskopetarekin bakarrik joanda, oillagorrak arrapatzen oso zaila da, eta eziñezkoa zenbait zingira-zulotan beintzat.

Zakur sena onekoak, berriz, berealaxe antzematen dio nontsu dagoen, eta billatu ere bai, ta *tak!* bat-batean gelditu berari begira, eiztariari abixoa emateko.

Ortaz konturatzean, eiztaria zai jartzen da; eta, oillagorra egan asi orduko, tiroz ilko du, beti ez bada ere geientsuenetan beintzat.

Lurrera erori dala ikusten duenean, zakurraren poza ez det uste txantxetakoa izaten danik. Korrika joan, artu oillagorra ortzetan eta laixter entregatuko dio bere nagusiari eskuetara.

Izugarri gauza politak egin oi ditu berezkotasun osoz jantzia dan zakurrak eizean, oillagorretan bezela, eper-kontuan, erbitan, basaurdetan eta nik al dakit zenbat klasetan, ziur esateko.

Uztapide bertsolariaren griña berezietako bat orixe zan, berari entzuten genionez, libre ta iñorako konpromiso edo loturarik etzeukanetan batez ere.

Bertsolaritza leenengo eginkizuna, dudarik gabe noski. Baiña, ortik aparte, eiza ta lagunarteko gozamenak zituen gogozkoenak, noranai joanik ere.

Jokabide batzuk

UZTAPIDE etzan disputazalea. Etzitzaion gogorke-
ririk gustatzen, norbaitek artara beartzen ez
bazuen beintzat. Baiña, derrigortu ezkerro, bazekien
arrazoi bakoitzari zegokion erantzun zuzena azkar
asko ematen. Buruz ongi jantzitako gizona ikusi
nuen nik Manuel Olaizola bertsolari ospetsu ura.

Ta bai osasunez ere, denbora berean. Sekulan
iñungo miñik sentitzen zuenik ez nion entzun, ain-
beste urte erriz erri alkarrekin pasata.

Janariz eta edariz ongi aseta, gauean edo goi-
zaldean oera joan da ume batek bezela lo egin oi
zuen, oean auspez etzanda, mugitu gabe. Ura zan
gizonaren sanidadea! Eta, goizean esnatu ta jeikitze-
an, aurpegia garbitu leenengo, gero arropak jantzi ta
bapo edozertarako. Ala jarritakoan, onela galdetuko
zidan:

- Lorik batere egin al dek, Lasarte?
- Ez askorik.

- Ni ederki ase nauk, ba, gaurko. Au dek gorpu-
tzaldia daukadana, kafe beroa patar pixka batekin
artzeko! Goazen! Barua autsi bear diagu leenbaile-
en, etxe aldera abiatu aurretik.

Alaxe, eztarria busti, barrua berotu eta trenera,
edo bestela autobusera. Jokabide orixe erabiltzen
genduen leengo bertsolariak. Egun baterako joan
arren, gaua kanpoan pasa bearra nai ta naiezkoa
zitzaigun, urruti samarreko errietan genbiltzanetan
batez ere.

Urte aietan ez baizegoen auto-aukerarik eta ibilirako gaur bezelako erreztasunik. Tasisak baziran, baiña galesti samarrak guretzat. Bertsoetan irabazitako txanpon aleak gutxiegi genituen tasisean paseatzeko.

Dirua arrika tiratzen asi ezkerok, ez dago zer egiñik. Guk ori bagenekigun. Ongi kontu egiñez ibilita ere, ez gendukan aberasteko arrixkurik bertsoen bidez, eta zintzotasuna beti gogoan. Juxtu antzean bizi danak izaten ditu gastuaren kezka eta bildurra, biak batera, familiko gurasoa baldin bada beintzat.

Soltero edo bakarti egongo balitz ez ote luke obeko bertsolari batek? Nik ala pentsatzen det, askatasunaren alde naizelako seguru asko, ta iñori supritu arazitzea gauza txarra dalako ere bai noski.

Etxe-zuloan ume bat edo birekin gizona noiz iritxiko zai, ordu txikiak entzunez, goizaldean dagoen amak ez du beti lo lasai egingo. Milla pentsamentu erabiliko ditu buruan bueltaka bere kasa, istripuren bat bidean gertatu ote zaion gizonari edo nolabaiteko lagunak bildu ta aiek nastu araziko zutela agian eta abar. Alperrikako buruausteak denak.

Guk sarritan erretira txarrak, gauezko bertso-saioak jartzen zizkigunetan egin izan genituen. Zer ordutan kantari asi jakiten genduen, baiña noiz ixildu ez. Besteren menpean dagoenak ez dauka bere esku lanaren neurria.

Orixe du bertsolaritzak akatsik aundienetako bat. Leen, gure garaian, ala zuen. Gaur ez dakit nola dabilzan. Baiña, beti gustora ibiltzen zailla danez, naigabezko une batzuk ere pasa bearrak daude, eguneroko ogia irabaztekotan.

Zuzentasuna gauza ederra da benetan. Uztapide bertsolari zanak bazuen ori. Erlojuari errespeto aundia zionez, itz emandako tokian agindutako ordu

berean an agertuko zan ura, ezeren okerrik gertatu ezean beintzat.

Gu biok erriz erri bertsotan asko ibili giñanez, nik ezagutu nituen bere jokabideak eta nortasuna nolatsukoak ziran; eta neretzat gizon osatua eta atsegin purrukatua billatzen nuela nun-nai aitortuko det, batere kezkarik gabe gaiñera, sentitzen dedan bezelaxe, bakoitzak bere iritzia ematea libre baldin badu.

Zenbaitek izugarrizko eginkizunak izaten ditu norabaitera joan aurretik, etxe aldean alegia. Eta gero zer gertatzen zaio? Bear dan ordurako iñora ezin iritxi, ta beste batzuk aren zai antxe ongi amorrizita.

Uztapide etzan klase ortako gizona. Arek iñor etzuen minberatu araziko, berandu joan zalako beintzat, aitzaki ori besterik ez bazan. Goizean goiz etxetik irten, edozein erritara zijoalarik ere, ta garaiz irixtea gustatzen zitzaion. Gosari on samar bat egin leenengo, ta lanerako moduan prestaturik jarri, ordua zetorrenerako.

Erri bakoitzean bagenituen ostalari ezagunak, eta aietara jotzen genduen jeneralean. Beraiek asko ixtimatzen ziguten noizean beingo bixita, eta guk ere gogoan artzen genioten zeukaten borondate on ura. Nola ez? Aspaldiko esaera zaarrak dionez, batek amar balio omen lezake, eta amarrek bat ere ez kaso batzuetan. Dana dala, segi dezaiogun aurrerako bideari.

Iraupen izugarria

UZTAPIDEK bere gazte denborako urteak oso gustora pasa omen zituen, askatasun ederrean eta kezka gutxirekin. Ara or bi gauza inportanteak, gizonak bizitzarako bearrezko dituenak, baiña bana-ka batzuek bakarrik suertez izaten dituztenak, nere ustez.

Egun batez onela entzun nion Uztapide zanari bere bertsoetako baten azken puntuan:

Dirua urri erabili det,
baiña bai bizi kontentu.

Beraz, garbiro esaten digute itz oiek zer dan aberastasunik aundiena, konturatzen bagera: konformatzen jakitea norberak daukanarekin. Osasun ona ta zer jana dituen gizonak ez du diru askoren bearrik, umoretsu eta kontentu bizi al izateko, berez zintzo samarra baldin bada beintzat.

Eta Manuel Olaizolak etzuen alperrikako gasturik. Ori badakit ziur. Lagunartean atzera begira etzan egongo. Ordainduko zituen bere parteak, txanda zetorkionean. Baiña, ortaz kanpora, dirua gordezten eta maitatzen ikasi zuela gaztetan dudarik ez nuke jarriko.

Ta aren antza bagenduen guk ere, egia aitortzekotan. Parra-parra botatzen asi ezkerero bertsoan irabazitako txanpon aleak, laixter aldegin oi dute, txoriak egan bezela, ta kito.

Nik jakingo nuke pozik zenbat bider Lastur, Arrua, Itziar, Zestoa, Deba eta oietan nolako lagun-taldeak zai egon ziran Uztapide noiz ikusiko. Afari bat egin alkarrekin leenengo, ta gero aren bertso batzuk entzuteko pozez.

Parrandero aundi samarra zala gaztetan berak aitortzen zuen. Endoian bizitu zaneko kontuak idazten ari naiz. Edozein erritara kantu-lanera joan da gauerako etxeraterik etzegoenez, urrengo goizera bitartekoa bertan pasa bear derrigorrez, eta zurruta gaiñezka. Bertsoak konta ezin ala. Lagunarteko giro atsegiña ere bai. Baiña denbora alperrik galdu, antxe berriketan ari zirala.

Ori orrela izanik, Uztapideren jokabidea auxe omen zan, berak esaten zekienez. Etxera joan orduko, oera sartu eta naiko lo egin arte jeiki ez.

Erremediorik onena atsedentzeko, premiz zegoen gorpuz nekatuarentzat. Sarritan norberak ez du uste izaten, baiña neurritz kanpoko parrandak errez erasaten dio pertsonari, jan garratxa edo apetitu urri antzekoa baldin badu beintzat.

Asko jaten duenak, edaria ere geiago bearko du noski. Babarrunak egosterakoan, lapiko aundiak txikiak baiño ura ugariago eskatzen dakien bezelaxe, emen denok ez gera almen berdiñekoak ezertan ere.

Iñoiz ikusi ditugu gizon sapats kozkor antzekoak jatun galantak eta beti pixu jakiñari eusten diotenak. Baita gutxi janda geiegi gizentzen diranak ere.

Parranda-kontuan gauza berbera gertatzen da, esate baterako. Batzuk errez aspertzen dirala, ta erori gaiñera. Baiña ez, ordea, den-denak. Badaude gaur ere, leen ez-ezik, egun bat baiño zortzi naiago dituztenak ortarako.

Manuel Olaizola Uztapide bertsolariak iraupen izugarria zuen parrandarako. Gau osoa lorik batere egin gabe pasa arren, ari etzion biaramonean iñork

antzik emango bezperan zer gertatu zitzaion.
Berezko doai sano bat billatzen nion nik gizon ari,
oso gutxik izaten duten bezelakoa. Ori seguru samar
dakit, neronek ezagutu nuelako.

Endoiatik Oiartzuna

ENDOIAKO Uztapide baserrira anaietan zaarrena ezkondua zegoen, eta artean gurasoak biziko ziran, aita-amak alegia, baiña ordurako aitona ta amona egiñak beraien billobentzat. Beraz famili aundia osatuko zuten, zar eta gazteak denak batera biltzean. Manuelek berak ere bertsoan lanik etzuenen, etxekeeri laguntzen omen zioten, pozik gaiñera.

Mantenua ordaindu bearrik ez baizuen izango, dotore antzean bizitu zala urte batzuetan entzun genion bein da bitan baiño geiagotan. Baiña, alaxe zebilela, bururatu omen zitzaion:

– Etxean leen giñan senide ta gurasoekin ongi konpondu nauk; koiñatarekin ere bai; ta nai dedan guztian batera edo bestera ibiltzeko askatasun osoa zeukat oraintxe ere. Baiña emen gure illobak azitzen ari dituk, legezkoa dan bezela; ta, aueri tokia utzi bearra dagoenez, obeko diat berandutu baiño leentxeago nere martxa bat artu, iñor endredatu gabe bizi nadin, al badet beintzat.

Ez da pentsamentu txarra.

Uztapide bertsolariaren ixtori geiago ere badira gazte denborakoak, baiña geroxeago esango ditut aietako batzuk, gogoratzen zaizkidanak.

Orain leenengo, jaiotetxea eta Endoia baillara utzi ta norako bidea artu zuen? Ezjakiñean norbait balego, auxe adierazi nai nioke. Oiartzungo Ergoien baillara politean baserri txiki bat erosi omen zuten,

eta an oilloen granja jarri bi anairen artean, nik ulertu nuenez.

Manuel Olaizola bertsolariak asko maite zuela beste anaia, Nazario, bistan dago. Ori orrela izan ez balitz, etzuen berekin eraman naiko ere. Baiña ain zan umilla ta ixilla Nazario Olaizola zana, itz bat beste baiña altuagorik entzuten etzitzaion gizona, ta langille purrukatua gainera.

Garai artan oilloak irabazi ona ematen zuelakotan bizi ziran batzuk adibidez, baiña oker zeuden. Itxuraz probatu ta gero jakiten dira gauzak, eta ganga izugarrizkorik egin gabe geldituak bai omen ziran noski. Neri Uztapidek esan zidan:

- Pentsua merkeagotzen ez bada, alperrik jardutea dek lanean. Ortik etzeukagu ogia jaterik. Oilloak bere burua ezin dik mantendu, ta guri zer utziko ziguk? Nekea eta gastua besterik ezer gutxi.

Ura laixter konturatu zan galera nundik nora zetorren, deskuidatu ezkeru.

Uztapide bertsolaria Endoiatik Oiartzungo Ergoien izeneko baillara artara bizimoduz aldatu ta andik urtebete ingurura gutxi gorabeera asi omen zan gero bere andretzat artu zuen neskak Kontxitarekin tratatzen formal eta serio.

Nik soldadutzako kargua bete ta etxeratu ondoren, Zarautzen ganaduen perratokia jarri nuen, eta noiznai alkarrekin bertso-saioak izaten genituen. Baiña Uztapidek etzidan esaten andregairik bazuen konturik, eta ezkontzeko asmorik zeukanik ere ez. Ixilik zebillen kukua, dotore samar.

Alako batean, ordea, Donostin bertsolarien jaialdia antolatu zuten, an dijoakigu gure lagun Uztapide bertso-tara andregai ta guzti. Egun artan erakutsi zigun bere Kontxita. Onela zion:

- Auxe dek, ba, nere andre laixter egingo dana, damutzen ez bazaio beintzat.

Arrazoi freskoa eta ateraldi egokia denbora berean. Orrelakoak pentsatzen artista bete-betekoa zan ura.

Alaxe, asko luzatu gabe ezkondu ziran.

Bagenbiltzan erriz erri bertsotan beti bezela, ta ezagun batek galdetzen dio Uztapideri:

– Aizu, Manuel: gauza bat jakin nai nuke pozik, zuri esateko inportik ez badizu alegia. Etzaitut konpromisoan jarri nai.

– Zer da, ba, jakingo zendukeen ori? Agertu zaidazu mesedez leenbaileen.

– Zuk zergatik artu dezu ain andre gaztea?

– Etxean biok zaarrak ez izatearren; eta beste gauza bat ere badago gure tartean, zuk gutxiena usteko dezuna agian. Ni il ondoren beste norbaitekin ezkondu nai badu berriro bere gain dauka erabakia-
ren eskubidea oso-osorik, artean sasoi ona edukiko baidu seguru asko, osasunak laguntzen badio beintzat; eta nik, alde askotara begiraturik, artu nuen nere andre Kontxita.

Auxe izan zan jakin-miña zeukan gizonari Uztapidek emandako erantzuna umore ederrean eta dotore. Inguruan zegoen jendea parrez gozatu arazi zuan bapo, ta denok kontentu.

Zein urtetan ezkondu ziran ez naiz gogoratzen Uztapide ta Kontxita, baiña zertsu garaitan bai gutxi gora-beera: maiatzean, edo lora-illean nai badezu, irakurle.

Bai al dakizu zergatik? San Isidro z Madriden ospatzen diran peri-egunak pasatzera autobusetan emengo baserritarrekin batera joan ziran Uztapide ta Kontxita *viaje de novios* esaten zaion ori egitera.

Basarri ere antxe zan. Onek nekazarien kargua edo gidaritzaren eginkizunak izan zezakeen agian, nik ez dakidan arren.

Dana dala, emen erri denetan jai egiten zuten baserritarrak San Isidro egunez, beraien patroia zalako. Arreta aundia eta benetako maitasunezko errespetoa zizkioten nekazaritzatik bizi ziranak Aita San Isidrori.

Urte bakoitzean bi egun artzen zituzten jai baserritarrak garai artan, eta geroago ere bai: maiatzaren 15-ean leenengo. Geientsuenetan astez egokitzen da San Isidro, eta ospatu ere bai erri guztietan, emen Gipuzkoan batez ere. Baiña bigarrenago jaialdi nagusia probintziala izan oi zan, urteero erri desberdiñetan antolatzen zutena, eta erri bakoitzean kooperatibetan aginpidean edo juntako zeudenak bakarrik joaten zirala badakigu billera sonatu artara.

Alde askotako jende berezia ikusten genduen; eta, leentxeago aipatzen dedan urte artan Idiazabalaren egokitzen zanez, neri bertsoarako deitu zidaten aurrez, ea libre arkitzen nintzan. Baietz erantzun nioten, eta eguerdian jarri zuten plazako bertso-saioa, ta Uztapide ta Basarri Madritik baserritarrekin batera nola zetozen, aiek izango nituela bertsolari lagunak. Baiña, bada ez bazan ere, garaiz antzean agertzeko mesedez, alkarrekin amaiketako goxo bat egingo genduela ta.

Ori entzunik eta igandea izanik, ez neukan iñungo arazorik, eta pozik joan nintzan Idiazabalko nere lagunetara. An sabelari berogarri ona eman da bapo kanturako.

Besteak ere laixter iritxi zitzaizkigun zuzen, esanda bezela noski; ta, pixka bat goseturik zeudenez, leenengo amaiketako ona egin bear izan zuten, eta gero ekin genion kantu-lanari gai librean, baiña egunari zegokion sustrairik galdu gabe.

Altabozak bagenituen eta, jendetza aundia bildu zan arren, denak ongi entzuten zutela zirudien. Txalo-zaparrada galantak baziran beintzat une bazuetan Idiazabalko plazan.

Ni garai artako sasoiaren inbidiz bizi naiz, sekulan geiago nereganatuko ez dedala jakiñik. Ara zer etorkizun ikusten degun zaartzarora iritxita gaudenok: tristura nagusi ta penak gogoan. Bi gauza pobre batera, amar xentimoren balorerik ez daukatena, nere ustez beintzat. Leen onaren bidez ez giñan asetzen, eta orain berriz txarrarekin konformatu bear derrigorrez. Baiña Idiazabalen pasatako egun zoragarri ura sekulan etzait aaztu, eta orrek zerbait esan nai duelakoan nago.

Mendaro eta Astigarribia

BESTE pasadizo zaar bat idatzi nai nuke, bururatu zaidan kasoan. Ez da oraingoxea au bera ere. Nik emeretzi edo ogeiren bat urte neuzkan garai-ko gertaera.

Or badago Debatik Mendaro bitarteko sakontxoan Astigarribi izeneko baillara txiki bat, trenbidez eskubi aldetik Mendarora goazela. Bertako pestak zirala uste det, ta Uztapide zana ta Txapel zana biak ziran bertsotan.

Nik banekian aurrez jaialdiaren berri. Uztapidek deitu baizidan, Astigarribin kantatzeko laguna nai zuela esanez. Baiña ez nengoen libre egun artan, eta ezezkoa eman nion, pena nuela gaiñera.

Beraz, gero Txapel zanari deituko zion, eta arekin moldatu. Nola ez? Txapelek artean ongi kantatzen baizuen, nere gustorako beintzat, gure aurreko bertsolaritzari zegokion gisara, bizi-bizi.

Uztapidek, berriz, molde guztietan zeukan arte berezi bat, neurtzen oso zailla dana, bakoitzari berea aitortu bear badiogu, ta kito. Ortxe bukatzen da, esplikazio luzerik gabe.

Aiek Astigarribin ziran egun berean, Basarri ta Lasarte Mendaron giñan, bertsotan baita ere. Beraz, alkarren urrean, auzotik auzora bezelatsu, esate baterako.

Goizean leenengo tren artu ta joanak, lasai ta patxadaz gosaldtu bertan; eta, lagunartean kontu

zaarrak berrituz ederki geundela, iritxi zitzaigun kantari plazan asteko ordua. Jaialdia osatzeko txistulari, dantzari ta orrelakoak aukeran jarriak zeuzkatenez, jendearen gustoko pesta-giroan ibili giñalakoan, pozik gelditu nintzan ni neroni, eta beste askok ere modu berean itzegiten zuten.

Gero baxoerditan txurrutean ostatuetan pixka bat gozatu ondoren, bazkari ederra eman ziguten; eta, bertsoa bertsoaren truke, ez genduen umore faltarik sentitzen, alamoduzko garaia izanik. Ez entzulerik aspertu arazi ere berealakoan. Ura zan bazkalondo zoragarria, gaiñeko jendearentzatez-ezik, guretzat ere bai noski.

Alakoxe gorputzaldia edo tenplea egokitu zitzaigun, eta ixilik egon baiño kantari jardun naiago aukeran. Kafea ta patarrak eraginda. eztarria ta burua biak batera berotu izan dira iñoiz, eta baliteke egun artan ere orrelako zerbait gertatzea, geroni batere konturatu gabe.

Iru bertso-saio bazkalondoan maian egin genituen, ni oso oker ez banago beintzat; eta gero arrasaldean plazan laugarrena ta azkenekoa.

Beraz, esan genezake urte aietan erriaren goxoki ta jostailu biurturik zegoela bertsoa. Iñungo zalantzarik gabe idazten det au, irakurle. Zuk, gaztea baldin bazera, etzenduen ezagutuko orduko Euskal Erria nolatsukoa zan, eta nik sustrai garbiak utzi nai dizkizut, badaezbada ere, jakiñean egon zaitzen.

Emen gauzak izugarrizko aldaketak egin baidituzte geroztikako urteetan. Ori dala-ta, bearrezkotzat bezela ikusten det ezkutuan dauden gertaera batzuk bistan jartzea, iñork ikasi nai baditu, denbora pasa dagoenetan.

Leen ere liburuen bidez aurrerako aundia egingo zuela uste det pertsonak. Nere ontatik ez da noski

iñor asko jantziko, baiña irakurtzeak ez dio kalterik ekarriko. Ortan seguru nago.

Dana dala, goazen, ba, Mendaro aldeko istoriari bukaera eman aal bagenezaioke, beraren billa poli-ki-poliki.

Diodan egun aipagarri artan, plazan arratsaldean bertso-saio bat eginda bukatu ziran gure lanak. Illunabarrean garai onean libratzeko suertea izan genduenez, Basarrik etxerako treña artu zuen; eta nik, berriz, beste alderako bidea.

Mendarotik Astigarrabira trenbidez trenbide joan giñan oiñez Kortaberri aizkolaria ta biok. Arek, bertakoa izanik, ango berri ongi zekien, eta berak lagundu zidan. Ordurako konfiantza dexentea artuta baigeunden alkarrekin.

Oiek, Antonio Soraluze *Korta* zana ta biak erriz erriko pestetan aizkoran ibili oi ziran gerai artan, eta gu bertotan. Beraz, sarritan gertatu zitzaigun denok batera bildu bearra; eta lagun egin aal izateko orixe da modurik egokienetako bat, nere ustez beintzat.

Dana dala, gu Astigarrabira iritxi ta segituan, igo ziran oltzaduraren gaiñera bertsolariak, Uztapide ta Txapel, beraien saioa egitera. Baiña ni ikusi ninduten bean nengoela, ta gora igo erazi ere bai. Bestela etzegoela pakerik.

Eta antxe irurok nola jardun giñan kantari beti gogoan edukitzen det geroztik. Nere lana izugarrikoa ez bazan ere, ixtimatu zuela derizkiot entzule jendeak, eta Uztapide zanak ez gutxiena noski.

Gero, Txapel zanak berealaxe etxerako martxa artu zuan; baiña ez guk, ordea. Uztapide parrandarako amorratzen sentitzen nuen; eta neri, berriz, batere inportarik etzidanez, gau osoa bertan pasa genduen, oean etzan gabe, kafez ta patarrez bezela

tabakoz kixkali bearrean. Bertsoa, berriz, ipurditik ere ateratzen zitzaigun, esate baterako; ta ura zan jendearen gozamina!

Astigarrin ez ginduzten bakarrik utzi, ta gaizki tratatu ere ez. Baillara txiki artako entzuleak geientsuenak gure aldemenean pasako zuten gaua, gizonezkoak beintzat. Eta, dana ongi osatzearen, goizean egunaren zabaleran baratxuri zopa jan da orduantxe banatu zan jendea, bakoitza bere aldera, ta kito.

Guk, Uztapide ta biok, Debarako bidea artu genduen. Nik Zarautzen utzia nuen bezperan bizikleta nolabaiteko ura, ta Deban trenean artu ta goizean orreraiño etortzeko asmoan nintzan, gero Zarautztik Aiara bizikletan igotzeko.

Baiña artean kafetxo bana artzeko denbora bagendukala-ta, joan giñan ostatu ezagun batera. Ango nagusia Uztapideren lagun aundia izaki, ta kontu kontari asi ta trenak aldegin zidan.

– Zabarkeriz galdu det, ba, trena, Manuel –esan nion.

Eta:

– Dijoala bere bidean! Gu gabiltzan baiño obekiago ez dek ibiliko ura ere! –erantzun auxe jaso nuen Uztapideren aotik-. I lasai egon, Lasarte! Trenak egun guztian ortxe zebiltzak, eta bakarren bat arrapatuko dek.

Alaxe geundela, etxeakoandrea an dijoakigu zer nai genduen galdezka; ta nagusiak onela erantzun zion:

– Amaiketako ona irurontzako. Besterik ezer ez.

– Bueno, ba, prestatuko det, pozik gaiñera –esanda, eraman zigun gozo askoa.

Guk jan ere bai gogotsu; ta, jendea konturatu zanean an geundela, ostatua bete zitzaigun.

Asi giñan bertsotan, eta an ziran kontuak! Nik
eguerdi beranduko trena artu bear izan nuen etxe-
rako, ta Uztapide bertan gelditu zan.

Krixkillu

LEENGO gertaera zaarrak pixka bat berritzea da nere ilusioa. Ez dakit, irakurle, zurekin asma-tuko dedan edo ez. Baiña aleginduko naiz borondaterik onenez idazten gogoratzen zaizkidanak. Aaztutako denak, berriz, ortxe geldituko dira zokoraturik, iñork ez balekizki bezela, baztarrean. Baiña goazen pixkanaka gauzak esanez aurrera poliki-poliki.

Erriz erri dabillen pertsonak zelebrekeri asko ikusten ditu, pesta-egunetan batez ere; eta bertsolariari orixe gertatzen zaio, berak uste ez duela gaiñera, sarritan beintzat.

Uztapideri liburutxo bat eskeiñi nai nion. Aspalditxoan buruan bueltaka nerabilkien kezka sentimental bat da au. Nola ez, arek neregatik beste onenbeste egingo lukeela jakiñik, gaur bizirik balego? Beraz, asita nagoenez, merezi duen bezela bukatzeko almena ta suertea izango banitu, pozik geldituko nintzake, nere eginkizuna beteta.

Baiña liburua osatzeko lan asko egin bear da, ta badakit kostako zaidala. Umorez ere urri antzean bainabil.

Dana dala, egun batez Uztapide ta Krixkilluren artean ikusi nuen pasadizo zaar bat gogoratu zaidan kasoan, bera idatziko det, aaztu baiño leen, badaezbada ere.

Martutenen bertsotan jardun giñan. Leenengo, goizetik plazan Uztapide ta biok. Arratsaldez ere bai. Baiña tartean ziran komeri politak.

Ez; atzo goizeko kontuak ez dira auek. Berrogei ta bost bat urte gutxienez, ni oso oker ez banabil beintzat. Emen denbora errez pasatzen da batzue-tan.

Guk lagun jatorra eta bertsozale purrukatua bagenduen *Martuteneko Exkerra* deitzen ziotena an inguruan bizi ziran denak. Ez dakit izengoiti ori nundik zetorkion. Mutilzaarra zala uste det bera, ta ostalaria gainera. Jatetxe dotorea edukitzen zuten anai-arrebak, bien artean, garai artan. Oraingoz ez dakit nola jarraitzen duen ango martxak. Ni neroni aspaldiko urteetan ez naiz izan Martutenen.

Baiña leen, bertso-tara joandako bakoitzean, amaiketakoa eta bazkaria bertan ematen zizkiguten Exkerraren ostatuan. Gurekin oso ongi portatu ziran beti. Ori ez daukat ukatzerik iñolako moduz.

Krixkillurengana pasako naiz zuzenean. Onek ernaniarra izan bear zuen, adibidez. Karamelo, bar-killo ta orrelako goxokiak saltzen ibiltzen omen zan pestarik pesta. Nik Martuteneko Exkerraren jange-lan ezagutu nuen. Ara joan baizitzaigun bazkalon-doko kafea artzera. Ordurako urte-mordoska bere-kin zeukan gizona, baiña umorez jantzia.

Gu kantari asi aurretik, esan zidan Uztapidek:

– Emen leentxeago sartu dan zaar ori bertso-tan jarduten dana dek, karamelo-saltzaillea; ta bera to-reatu bear diagu, Lasarte.

– Nai dezun bezela. Neri berdin zait – erantzun nion; eta orduan Uztapidek:

– Kantatu zak, ba, ik leenengo, ta gero ni sartu-ko nauk.

Alaxe, ekin nion kantu-lanari bazkaria esker-tuz. Iru edo launa bertso moldatu genituen gai or-tan. Karamelo-saltzaille zaarrak ere parre egiñez txalo jotzen zuen. Baiña laixter sartu zion Uztapidek uste gabeko ziria. Bertso osoa ez det gogoan, azke-

neko bi puntu bakarrik, eta auetxek ziran:

Lengo batean Lezo aldean
izan zan naiko ixtillu:
gazte batzuek tarta ostuta
an utzi zuten Krixkillu.

Ori entzunik, beste gaiñontzeko denak txaloka ta berak su artu. Jarlekiatik jeiki ta an asi zitzaigun bertsoan gure Krixkillu. Tarta ostu ziotenak nor-tzuk ziran etzeukan aaztuta. Konpesio txukuna egin zuen. Ura amorrua gizonarena, naiz eta gerora go-zatu arazi genduen berari arrazoi emanez.

Orrelako bromak pozgarri dira lagunartean.

Elizondo

MILLAKA gertaera izango dira guk ez dakizkigunak, irakurle. Bestela, idatziko genituzke pozik.

Naiz eta aaztuak ere asko ditugun arren, egun batez, ordea, gogoratzen naiz Naparroako Elizondoko *Antxitonea* izeneko trinketean ikusi nuen komeriaz.

Diodan pelotaleku dotore artan bertsolarien jaialdiak antolatzen zituzten tarteka edo aal zanik maizena, negu-partean batez ere, Mariano Izeta, Klemente Ezkurdia ta beraien lagunak alkaturik, Baztan aldeko jendearen pozgarri.

Klemente Ezkurdia onek bertsoarako apizio ikaragarria zuen, eta bazekien poliki kantatzen ere. Inoiz gurekin jardun zalako dakit ori. Gaiñontzean, eguneroko bere lana zaldiaren gaiñean exeri ta baserriz baserri txerikume-tratuan ibiltzea omen zan. Naparroan Gorritiko seme genduen bere izatez Klemente Ezkurdia, baiña urte-mordoska aundian Elizondon ezkondata bizitua. Aspaldi samar illa da.

Mariano Izetaren gurasoak, berriz, emen, Gipuzkoan, Zarautzen jaiotakoak izan bear zuten, aita beintzat adibidez. Ama nungotarra zan esateko dunda pixka bat badaukat. Barkatuko al didate, ezeren okerrik egin baldin badet.

Dana dala, bertsolaritza asko maite izan duen gizona dala badakigu Mariano Izeta. Guri gaiak jaritzen bera jarduten zitzaigun, Elizondon ez-ezik,

Baztan aldeko beste edozein erritan ere. Bertsozale purrukatua ta gizon atsegiña billatzen nuen nik neronek Mariano Izeta.

Onezkero, larogei urtetik gora ditu gutxienez ere, edo pare bat geiago igoal nere kontadorian. Baiña oraintxe ere umorearen faltarik ez det espero edukiko duenik.

Ogibidez erlojerotzan jarduten ziran leen beste anaia ta biak. Opizio polita bezin garbia ta txukuna; erropak zikintzeko bildurrik gabekoa beintzat.

Dana dala, goazen aurrera. Egun batez joan giñan bertso tara, sarritan bezelaxe, Antxitoneko trinketera. An baigendukan eginkizun nagusia.

Gu, Uztapide ta biok, kontaturik edukitzen ginduzten beti. Baiña aldi bakoitzeko lau bertsolari eramaten zituztenez, beste bi bear da aiek etziran beti berdiñak izaten. Txandaka ibili oi ziran batzuek eta bestek.

Diodan egun artan, Uztapide, Lasarte, eta Goizuetako Andres Narbarte ere an genduen taldean. Baiña laugarrenaren izenik etzait gogoratzen une ontan paperean jartzeko, lastimagarria bada ere. Aspaldi pasatako gauzak arrisku ori dute. Ez da noski iñor arrituko nere akatsez.

Andres Narbarte mutil onaren itxurakoa zala koan nago. Bertsolari bizia ta azkarra ere bai bere izatez, naiz eta motibo aundirik etzuen arren langintza ortarako. Gutxitan jardutea oso txarra da bertsoa errez moldatzeko. Baiña ikusten zitzaion bazeukala etorria. Pixka bat geixeago saiatu balitz, gorago igo zitekeen ura, nere ustez beintzat.

Elizondon batzuk parrez ase zituen ederki. Bertso-lanak bukatu ta oltzaduratik beera jetxi giñanean, bi apaiz inguratu zitzaizkigun, Narbarteri zirikatze ko asmoz, eta an ziran angoak! Apaizetako baten galdera onela zan:

- Gaur gustora ikusi zaitut, Andres, kantari. Asko ibiltzen al zera erriz erri?

- Ibili deus ez. Mina-zuloan lana egiten degu guk galanki. Ez, apaizak bezela, jan da paseatu. Urrengo igandez Mitxelenarekin daukat saioa. Leengo batean Goizuetara joan da naiko arro sentitu nuen. Baiña aren orduko arrazoiak gogoan dauzkat. Artu bear du pasada ederra, eskarmentatu dedin. Nik ez det potorik egingo.

Erantzun auetxek eman zizkion Andresek apai-zari. Ta Uztapidek esan zion:

- Ik ez dek potorik egingo; marmita seguro asko.

Bat-bateko ateraldi dotorea Uztapiderena. Gustatu zitzaidan neri; ta an inguruan zeuden batzuek parrez asi ta noiz ixildu etzekiten, berriz. Ara umorea jartzeko modua.

Andres Narbartek etzuen txarkeririk.



Uztapide eta Lasarte bertso kantari.

Getari

GETARI iñoiz aaztu ezin nezakeen erri garrantzitsu bat da neretzat. Nork esplikatu ote lezake zenbat une gozo paseak ditugun Getarin San Antonetan, bestelakoan gutxitan bixitatzen bagenduen ere?

Nik, *Uztapide gogoan* idazterakoan, ezin nezake aipatu gabe utzi iñolako moduz erri maitagarri ura. Ain gogozkoa izanik, urtez urte berrogei aldiz joan giñala San Anton pestetan esango baldin banu, agian ez litzake egi osoa izango, baiña ez gezur aundia ere noski.

Udaletxeko balkoi eder artatik makiñatxo bat bertso-saio egindako bertsolariak gerala badakite getariar geientsuenak, leengo zaar jende elduak batez ere. Oraingo gaztediak ez gaitu ainbeste ezagutuko motiboaren faltaz. Guk ara joateari utzi genio-la ere urte mordoska baidira.

Uztapide gaixotu ta ixildu zanean, Lazkao-txikik artu zuen aren tokia betetzeko kargua, ta biok ibiltzen giñan, erriak alaxe nai zuelako. Baita Azpeitiko Joxe Lizaso ere gurekin batera iñoiz ibili zan Getarin bertsotan San Antonetan.

Eta Salbatore jaietan, txakoliñaren eguna ospatzerakoan, plaza edo frontoi aundi artara jendetza izugarrikoa bildu arazten zuen txakolin-probaketa zoragarri arek. Txorizo ta bokadilloz aukera jartzen zutenenez, zale ziranak gose-egarriak kentzen bazekiten dotore asko, ta gutxi kostata gaiñera egin amai-

ketako bikaiña. Erri bakoitzak bere oiturak dituela adierazten digu orrek garbiro.

Beraz, berrogei urtetan orrelatsu ezagutu genduela esan genezake Getari guk. Baiña gutxi gorabehera diot au badaezbada ere, segurantzi osorik ez dedalako. Sarritan gauza garrantzitsuak burutik aizeak eramaten dizkigu, ta gero emen ibiltzen gera, galdutakoak billatu eziñez, larri bezin estu.

Dana dala, Uztapide gaixorik gelditu zan garaian, pena ikaragarria artu zuela badakit Getariko jendeak, beste alde askotakoak bezelaxe. Urrengo San Antonetarako neregana etorri zitzaidan kontzejal bat, eta onela zion:

- Gogoratuko zera, noski, Lasarte, San Anton pestak badatozela ta Getarin bertsolariak bear ditugula.

- Bai, bai. Ez nago aaztuta ni zuen erriz.

- Ea, ba: Lazkao-txiki nai genduke beste bertsolaria zurekin kantatzeko, Uztapideren orde, libre baldin badago beintzat.

- Nik deituko diot eta laixter jakingo degu. Abixatuko dizut telefonoz -erantzun nion; eta biok izan giñala uste det, oker ez banabil.

- Ortik aparte ere, zerbaiten eske natorkizu, Lasarte - esan zidan kontzejalak-. Guk, Getarin kargua daukagunak, udaletxean billera eginda, Uztapideri erregali bat ematea erabakita daukagu. Zuk esango al zenioke jasotzera etortzeko? Edo, berak ezin badu, andrea bialdu dezala, Lasarte.

- Bai. Nik itzegingo det gai ortan.

Alaxe, joan nintzan Oiartzungo Ergoinera. Etxean zeuden andrea ta biak, eta eman nioten kontzejalaren enkargua artu bezelaxe. Ta Uztapidek, neri kiñu egiñez, onela dio andreari:

- Zu joango al zera, Kontxita, erregali ura ekartzera?

– Zerorri ortarako aiña bazera gaur, eta zu joatea ohea da, ni baiño –erantzun zion andre Kontxi-tak.

Alaxe, Uztapide bera agertu zitzaigun zorionez; eta, ura udaletxeko balkoian alkatearen eskutik erregalia artzen ikusi zutenean, etziran asarre getariarrak. Txalo zaparrada galantik entzun zuen San Anton egun artan Uztapidek.

Erriari eskerrak eman naiez bertsoa kantatzen asi zan; baiña ezin zuen, eta barkatzeko esanez ixildu ta kito. Guk kantatu genituan aren partezkoak eguerdiko saioan.

Gero, berriz, Irizarren jatetxe sonatuan bazkari ederra eman ziguten, beti bezelaxe, ta kontentu.

Nik neronek ere laixter utzi bear izan nuen bertsolaritza plazetakoa, 1986-garren urtean, oker ez banago; ta 1989-ko ilbeltzaren 17-an omenaldi bat jaso genduela uste det Basarri, Lazkao-txiki ta Lasartek, irurok batera, Getariko polikiroldegian.

Guk pozik artu genduen omenaldi ura. Eskerrik asko, Getari!

Naparroako Belaten

NAPARROAKO Belaten bazan jatetxe sonatua leen, eta oraindik bizirik iraungo duelakoan nago.

Emen urteak ez dirala alperrik joaten esan oi da; baiña pasatakoak ez bazaizkigu gogoratzen, ez dute ezertarako balio, ta neri orixe gertatzen zait: aspaldiko pasadizo zaarrak errez aaztu, eta idatziko nituzken gauza asko ezkutuan utzi bear derrigorrez.

Naparroako Belateko kaso, ordea, gogoan edukitzeko modukoa izanik, alaxe daukat, naiz eta zein urtetan gertatu zan seguru esaterik ez badago ere.

Negu gordin itxusi purrukatuak ikusten genituen garai aietan. Elurra, izotza ta etenunerik gabeko ekaizte trakesak ugari, mendi altu samarretan batez ere; ta jakingo dezu, irakurle, Belate oso goian dagoela, itxasoaren nibeletik neurtuko balitz beintzat.

Dana dala, beingo batez, Baztan aldeko ezagun batzuek pentsatu omen zuten koadrilla tajuzkoa bildu ta Belateko Bentan afari aundi eta garrantzitsua egitea, bertsolariak eramanda.

Alaxe, Uztapide zanari galdetu telefonoz ea libre ote geunden; bera ta Lasarte biok nai ginduztela afari baterako, eta Uztapidek erantzun omen zion deitu zuenari:

– Nik neronek ez daukat iñorako konpromisorik, zuk diozun egun eta gau ortarako; eta Lasarterekin, berriz, gaur bertan itzegingo det. Zuk biar,

gaurko ordu berean, deitu zaidazu ta erabakiko ditugu gauzak bear dan bezela.

Garai artan etxeetan etzan telefono aukerarik. Baiña erriko lokutoriora telefonema jarri zuen Uzta-pidek: alako ordutan otsegingo zidala ta zai egoteko. Abixoa artu nuenez, joan nintzan eta itzegin genduen. Zertsu gertatzen zan esplikatu zuen garbiro, beti bezelaxe. Nik baiezko itza eman nion, pozik gainera, ta joan giñan Belateko afari sonatu artara.

Nik Oriotik Oiartzunera bitarteko bidea autobu-sez egin nuan, Uzta-pidek esan baizidan Baztandik ara kotxearekin joango zitzaigula bakarren bat gure billa; ta garaiz abiatu giñan Oiartzundik Belate aldera.

Baiña oso eguraldi txarra egokitu zanez, etzegen berriketarik. Erropaz ongi samar jantziak izan arren, denak gutxiegi. Artean berogarri geiago eskatzen zidan gorputzak neri beintzat; eta besteak ere gauza berbera aipatzen zuten.

– Auxe dek giro pobre ta garratza!

Bein da bitan baiño sarriago entzun genion Uzta-pideri itz mingarri ori.

Jelate galantak ezagutu ditugu gure lurralde auetan; baiña ordukoaren parekoak gutxitan bear-ko zuten izan. Elurrez ere baztarrak ederki zurituri- zeuden, mendi ta basoak beintzat. Kamioetan ez genduen traba aundirik eta arazo txarrik edo ezi-ñezkorik erabili.

Gero Belaten, jangelan, ezkutatu zitzaizkigun otzaren kezka, eman zizkiguten alimentu on aien bidez. Bertso asko kantatu omen genituen gau artan, batzuen ustez. Denak ez dakit kontentu geldituko ziran; baiña aitzakirik iñork etzigin jarri, ta arrazoi txarrik eman ere ez, eskertu baizik egindako lana; ta guk uraxe nai, garbiro aitortzekotan.

Azkenean, soldata jaso ta gustora oeratu giñala bein ere ez nuke ukatu beariko, burua galdu ezean. Lotarako gela ere dotore asko beroturik zeukaten aurrez. Ura zan giro zoragarria billatu genduena, ordu batzuk epel gozoan pasa al izateko!

Goizean, oetik jeikitzerakoan, onela esan zidan Uztapidek:

- Lorik batere egin al dek, Lasarte?

- Bai. Ta zuk? -galdetu nion, eta berak:

- Bai, gizona. Oztu bildurrik gabe. Baiña orain, kanpora irtendakoan, ikusiko diagu onetik txarrera zer alde dagoen -erantzun zidan.

Martutene

UZTAPIDE zanak ta Mitxelena zanak, baita ere, biak il baiziran, irakurle, zuk jakingo dezun bezela, egun batez Donostiko Martutenen eguerdian bertso-saioa zeukaten; eta gero arratsalde berean mugaz beste aldean kantatu bear genduen.

Baiña oraingoz ez naiz gogoratzen zein erritan, seguru esateko, lastimagarria bada ere. Geroztik urte asko pasa baidira, ta burua moteldu gaiñera.

Dana dala, diodan egun artan, gu, Joxe Lizaso ta biok, Martutenera inguratzeko eguerdian ama-biak alderako, beste iñun ezeren eginkizunik ez bagendukan, abixatu zigun Uztapidek aurrez; eta andik mugaz beste aldera alkarrekin joateko martxa prestaturik zeukala berak.

Alaxe, goizetik libre geundenez, garaiz iritxi giñan Martutenera; eta, ikusi orduko, neri esan zidan ango pestak antolatzeko kargua zeukan batek ea kantatuko nuen mesedez Uztapide ta Mitxelenarekin batera.

– Ez. Orixe ez nuke egin nai, ta barkatu bearko didazu –erantzun nion–. Guk mugaz beste aldera, Uztapide, Lizaso ta irurok, joan bear degulako etorri gera gaur onuntza, ta kantatu dezatela izentaturik dauden biak, al danik azkarrena. Bestela, gero bidean presaka iritxi eziñik ibiliko gera gaizki.

Ta:

- *Bueno*, ba.

Ontzat artu zuen nik eman nion arrazoia gizon umil arek, eta berealaxe asi ziran bertsoan Uztapide eta Mitxelena, biak.

Baiña oso gozo zebillenik etzirudien Mitxelenak saio artan. Leenengo bertsoetik, edo bigarrenetik beintzat, gogor samar somatu genduen izketan Uztapideren aurka. Bromako kontuak izan zitezken. Guk ala pentsatu genduen, beean entzuten egonik, bertsolariak puntu asko ukitu bear dituenez.

Orrelako gauzak sarritan gertatzen dirala bada-kigu ongi baiño obeki ere, ta ez gera batere arritzen, langintza orren berri ikasi genduenok. Baiña diximulo pixka bat erabiltzea izugarri polita da, asmatu ezkerok, beti erreza ez bada ere. Uztapide ortan artista utsa zan.

Mitxelenak, etxean oillo batzuk eta bei txar bat bakarra zeukala gosez amorrutzen, eta ea aiekin bizimodua aurrera ateratzea pentsatzen al zuen galdetu zion Uztapideri.

- Gure beiak urtero umea egiten dik; eguneko ogei litro esne eman ere bai familirako, ta uste diat ura etxean edukitzea ohea dala, zezen antzu bat baiño.

Auxe zan Uztapideren erantzuna gutxi gora-beera.

Ta urrengo onela dio Mitxelenak: arraultzak oso txarrak jartzen omen zituztela Uztapidek zeuzkan oilloak; txikiegiak noski.

- Bai. Arrazoi daukak ortan, Mitxelena. Oillanda gazteak dituk eta arraultza txikiak egiten dizkitek; baiña oso errez, batere beartu gabe. Ire amak parto gogorragoa izango zian i jaiotzerakoan. Zer es-tuasun pasa ote zituen gaixo arek, kanpora atera bitartean?

Ara emen Uztapideren beste erantzun dotorea. Bertsoak ez dauzkat gogoan. Naiago nuke nola ziran baneki.

Dana dala, alai antzean kantatu zuten eta orixe da erriak bertsolariari eskatzen diona geientsuene-tan.

Gero, Martutenen bertan bazkaldu presaka ta Uztapide, Lizaso ta ni, Lasarte, irurok mugaz beste aldeko lanak egitera joan giñan, aginduta geunden bezelaxe.

Jende-mordoska dexentea bildu zan an ere ta, kontentu utzi genituelakoan, pozik aldegin genduen illunabarrean etxe aldera. Orrek ez du gutxiena ba-lío izaten berrizko ere.



Uztapide eta Lasarte bertso kantari

Bi gertaera

ERRIRIK erri eta pestarik pesta ainbat bider ibili geranez, badauzkagu motibo bereziak gure gertaerak aztertu eta idatzi al izateko, gusto ori duenak irakurriz ausnartu ditzan denbora pasa, zer egin ez dakiela dagoenetan batez ere.

Basarri bertsolariari sarritan entzuna naiz beretzat lagunik onena liburu eder bat eskuetan edukitzea dala, ixiltasunean orduak pasa ta gustora gelditzeko, an irakurritakoz gozaturik alegia.

Nik neronek ez dakit gauza oien berri. Ez baidet sekulan libururik erabili ezertarako. Baiña Basarri gezurra esaten etzan jardungo noski, ta sinisten diot den-dena.

Izan ere, bere bizitza guztia, edo geientsuena beintzat, irakurtzen eta idazten pasa duela badakigu. Ortik baizetorkion eguneroko ogia ta familiko gastueri erantzuteko modua.

Uztapide bertsolariak asko zekien, berriz, naiz eta berak ezjakiñaren itxura egin, ala komeni zitzaien bakoitzean. Uraxe bera ere dexente irakurritako gizona ote zan errezelotan egoten nintzan ni prankotan. Bein ere ez nion ezer galdetu gai ontan; baiña arrapatu nizkion alamoduzko puntu batzuk tarteka.

Illunabar batez, Baztan aldean bertsoan jardunda etxera gentozela, Igantziko bentan gelditzea pentsatu genduen tragoxkada bana artzearren, eta

an ari ziran disputan lau gizonezko euskerazko itz batekin, erdi asarreturik, mostradorearen ondoan.

Nik neronek laixter antzeman nion itz arek zertsu esan nai zuen, baiña ixilik nengoen, lau gizon aietan iñork etzeukala arrazoi osorik jakin arren.

Ala, guri galdetu ziguten ea nola zan itz ura esateko mesedez, baldin bagenekigun.

Orduan Uztapide jabetu zan eta onela dio:

– Zuek denok oker zaudete. Diozuten bezela ez da itz ori iñungo iztegitan agertuko. Begiratu beste-la ta ikusiko dezute. Auxe esan nai du itz orrek.

Euskera garbian esplikatu zioten Uztapidek, eta konforme gelditu ziran gizonak. Mugaz arunztik etorrita zebiltzala ziruditen. Baiña nik ez nioten se-guru esateko moduan igarri nungotarrak ziran. Baztan inguruan eta mugaz beste aldeko euskera berdintsua izanik, errez deskuidatu liteke.

Dana dala, au bere ontantxe utzita, beste pasadizo bat esplikatu dezadan, atal oni aurrera jarraituz. Erri txiki antzeko batean gertatu zitzaiguna da, ta gogoan artzea merezi lukena gaiñera, nere ustez beintzat.

Oraingoz ez daukat buruan erriaren izenik. Baiña eguerdian leenengo aizkolariak eta urrengo arri-jasotzailleak egin zituzten beraien lanak, gogor saiatuta noski.

Ondoren, berriz, bertsolarien saioa izentaturik zegoenez, guk, Uztapidek eta Lasartek, ekin genion kantu-lanari gai librean, orduko oitura alaxe zalako.

Ta, kontentu ari giñan ezkerro, luzatu ere de-xente egin omen genduen, batzuek esan zigutenez. oltzaduraren gaiñetik beera jetxitakoan. Baiña entzuten iñor etzala aspertu, alegia. Orrelako itzak poz aundia eman oi dute beti ere.

Ta. lagunekin kontu kontari bertan geundela, an dijoakigu gizon zaar txiki antzeko bat, onela esanez:

– Ongi etorri, bertsolariak. Gauza ederrak entzun dizkiagu. Gaur sasoi ona ekarri dezute nunbait.

– Sasoi-kontu ortan ez gaude gu arronka jotzeko moduan –erantzun nion nik.

Eta saltoka asi zitzaigun aitona.

– Zuek gazteak zerate oraindik. Ni emen nebillek. Irurogei ta amasei urte zeuzkat, eta sekulan baiño gogorrago negok.

– Gu ere gogortuko gera edade ori arrapatzerako –erantzun zion Uztapidek dotore.

Urnietako Xoxoka

URNIETAKO Xoxokara aspaldiko urteetan ez degu bixitarik egin, lastimagarria bada ere. Aibat biderrez gogoratzen naiz baillara polit atsegin artaz eta bertako jende leialez. Uztapide zanak gauza berbera esango lukela iduritzen zait, gaur bizirik baldin balego.

San Migeletan ospatzen dituzte Urnietan erriko pesta edo jai nagusiak, bi eratara esanik; eta, kalekoak bukatzean, asten dira Xoxokan bero-bero, auzotar denak batera bildurik. Beraien baillara besteak baiño gutxiago merezi duena ez dala erakutsi al izateko modu obeagorik billatzen ez det uste erreza danik.

Gaiñera, guk urtero bi egun pasatzen genituen Xoxokan bertsotan segidan, ez banaka eta bein ere deskontentu ez. Beti pozik. Gustoko lagunartean nekez aspertzen da pertsona. Pakearen bidez datorren umoreak zenbat balio duen or ikusi liteke garbiro.

Zorioneko baillara txiki artan konfiantza osoa aurkitzen genduela esan bearrik ez legoke noski. Baiña nik au ezin nuen gordean eduki, ta bistaritzea pentsatu det. Xoxokan leen ere egingo ziran erromeriak tarteka, seguru asko, gerra aurretik alegia.

Gure anaietako batek ganadu perratzen Urnietan nola ikasi zuen, igandeetan Leitzako Franki battersira joaten zitzaigun denbora pasa, ta arek kon-

tatzen zituen Xoxokako gertaera batzuk. Baiña, ni artean umea nintzanez, ez nizkion ulertzen bear bezela.

Dana dala, baserri eder asko izango zalakoan nago, Xoxoka baillaran ez-ezik, Urnietako erri osoan ere. Gaur ez dakit zer tankeratan dauden alde aietako terreno-saillak.

Baiña leen, ordea, zoragarritzko belar-zelaiak, sagastiak eta soroak ikusten ziran, ongi tratatuak. Fama aundiko lur-klase bikaiñak laboregintzarako ere: ezeak, sendoak eta aberatsak. Nekazaritza omen zan ango etorkizunaren abe nagusia, bizimoduari zutik eusten ziona.

Baiña oraingoz kalean badute lanerako bide egokia, batzuek beintzat, denentzat zailla dan arren. Fabrika edo taillar berriak ugaritu ote diran errezelotan gelditu nintzan, aspalditxoko egun batean erri artatik kotxearekin pasatzerakoan.

Ez giñan bertan iñorekin itzegiteko moduan, presa gendukalako. Bestela, nik pozik bixitatuko nuen Xoxoka. An baditut ezagun ixtimatu askoak, Parolerdi baserrikoak. Mariano Lasarte oraindik biziko da noski ura ere. Ildako konturik ez det entzun. Diodan bi baserri auetan gustora egon oi zan Uztapide zana, ta nerea zer esanik ez.

Mariano Lasarteren baserriak aldemenean zuen bestea. Teillatu baten azpian bi famili bizitzen ziran leen. Gaur ez dakit nola jarraitzen dioten martxari. Terreno-sail aundiak eta erosoak omen dituzte adibidez biak ere.

Aipatu ditudan iru baserri zoragarri auetan etxeakoak bezela tratatzen ginduzten, gu Xoxokara joandako bakoitzean. Beti zerbait eskeintzen edo ematen jarduten zitzaizkigun, nola gizonak ala emakumezkoak; eta gauzarik arrigarriena da bertsoa gustatzen ez zitzaionik iñor ez izatea iru familietan.

Urtean bi egun lasai ta pake gozoan antxe pasatzen genituela sekulan ezin nezake aaztu.

Dana dala, Parolerdiko Joxe zanak istori ikaragarriak kontatzen zituen, eiztari amorratua izanik. Uztapide bere ondoan jartzen bazitzaion jateko garaian, erbiz eta oillagorrez osatuko zan maia, basora batere joan gabe. Esan zitekeen etxetik tiroka ari ziralara. Uztapideren apizio berezia orixe baizan: eiza.

Beingo batez pentsatu zuten Parolerditar denak bildu ta egun-pasa egitea. Baiña bertsoaririk ez omen zegoela libre.

– Uztapide ta Lasarterekin itzegin degu, ta aiek ezezkoa eman digute, aita –esan dio semeak Joxe zaarrari.

Ta:

– Batere ez dik balio bertsoaririk gabeko banketeak – erantzun omen zion aitak.

Ordurako gurekin tratua eginda zegoen semea. Ernanin biltzeko eguna, ordua ta ostatua izentatu zizkigun, baiña aitak jakiterik etzuen nai, bazkaltzera joan bitartean.

Eta Ernaniko kalean topo egin genduen. Aiek ostatura zijoazen tragoxkada artzera, ta gu ere bai. Joxe zaarra, konturatu zanean, an dijoakigu korrika bezela, ta:

– Nora zoazte, mutillak?

– Goizuetara –esan genion.

– Au dek marka! Gurekin bear zenduten gaur! Gero jatetxean, ordea, etzan asarre.

Urretxu

URRETXUKO istoria idatzi nai nuke, merezi due-lakoan. Egun batez, berebiziko jaialdi zelebren bat antolatu baizuten an; eta, guri bertsotara deitu zigutenez, Uztapide, Basarri ta ni, Lasarte, irurok joan giñan, erriak eskatuta bezelaxe. Urretxuko pelotalekuan izan zan diodan jaialdi ospetsu ura.

Zenbat urte diran ezin nezake esan iñolako moduz. Ez baidet segurantzi osorik, eta ez nuke anka sartzerik egin nai dudako kontuekin, badaezbada ere.

Orrelako asko ditugu guk, aizearen egoetan utzi ta arek berekin eramanak, jaso ta gordetzeko arretaren faltaz edo ez dakit, ba, nik nola esplikatu ere.

Gauza bat da sekulan aaztutzen etzaidana: Basarri bertsolariak bazuen garai artan *Osa* izeneko moto bat eta alkarrekin joan giñan biok Urretxura.

An arkupeak zeuden kamioaren alde bietatik, eta goien utzi genduen motoa, ezkutu antzean gaiñera. Baiña buruan jarriko zitzaion Basarriri beeko arkupean utzi zuela, ta zerbaiten billa joan omen zan presaka ta motoa falta.

Izugarrizko naigabea artu du gure gizonak; eta, gauzarik txarrenak pentsaturik, asi da bati ta besteari galdezka, ea iñork ezeren arrastorik ematen ote dion. Baiña, alegin denak alperrikakoak dirala ikusirik, badijoa aguazillarengana. Baiña Zarauzko

Betelu txistulariak, pasakallea jotzen dabillega topo egiñik, onela dio:

– Zer dek, Basarri? Triste abill!

– Triste ibiliko ez nauk, ba, motoa ostu zidatek eta?

Ori esan da martxa. Alaxe, gu, Uztapide ta biok, beste lagun batzuekin ostatuan geundela, sartu dira txistulariak barrura tragoxkada egitera, ta Beteluk esan digu:

– Gaur bertotarako gai polita badezute. Basarri or zebillek asarre bizian. Motoa lapurtu omen zioz bateonbateg.

– Ori gezurra izango da, Betelu –esan nion–. Nik laixter billatuko nuke moto ura. Biok etorri gera ta badakit nun utzi degun. Basarrik ez, seguru asko.

Orrelaxe izketan ari giñala, inguratu zaigu bera. Ezin lasaituz asi da gertaera kontatzen, eta ni jabetu nintzaion:

– Nun utzi dezu motoa, Basarri?

– Zuk jakingo dezu, Manuel, arkupean nola gelditu dan.

– Antxe egongo da, ba, ta goazen biok ikustera.

Alaxe bagoaz eta, izugarritzko moto-sailla aurrean zeukala, Basarriren Osa norbaitek berea jartzeko kendu ta baztarreko zuloan sartua zeukan. Etzegoen errez billatzeko moduan, baiña ezeren akatsik gabe beintzat, guk utzita bezelaxe.

Ni neroni poztu nintzan, eta Basarri bera ez gutxiago.

– Nora begiratzen nuen, ba, nik –zion– leen nere motoa ikusi gabe emen bueltaka ibiltzeko?

Karpeta zeukan an eta, artaz beartu zanean, joan omen zan. Gero ura mototik artu zuen eta orduantxe kontentu gizona.

Izan ere, Urretxun jendetza ikaragarria zebillen egun artan kaleetan, inun kabitu eziñez, denak alkarri bultzaka esate baterako.

Guk Zumarragako ostatu ezagun batean bazkaldu genduen patxada ederrean, aurrez edo egun berean tokia eskatuta, ordea, goizean gosaltzeko garaian. Bestela, gaizki ibili bearra gendukan, beste askoren antzera. Eskerrak goizean gogoratu zitzaigun bazkariaren kontua.

Dana dala, arratsaldean entzundako ateraldi dotore baten berri emango dizut orain, irakurle zerran orri, ea gustatzen zaizun.

Bazkaldu ta bagoaz Urretxuko pelota-lekura mantxo-mantxo. Iritxi orduko, inguratu zaio Uztapideri aspalditxoan ikusi gabeko soldadu lagun bat. Alkar besarkatu dute eta, kontu zaarrak kontatzen ari dirala, an dijoa neska gazte bikain bat:

– Aizu, aita: zuretzat enkargua daukat. Baiña zuk bakarrik jakin bear dezuna.

– Bueno, egon zaitezte pixka batean mesedez –esan zigun gizonak.

Eta, biak baztarrera joan da itzezin ondoren, etorri da berriro guregana, ta Uztapidek galdetu dio:

– Ire alaba al uan?

– Bai. Orixe bakarra diagu.

– Ez dek bakarrik denbora luzean egongo. Orrek bereganatuko dizkik mutillak, imanak arbi-azia bezela –erantzun zion Uztapidek.

Bete-beteko arrazoia ta esaera aberatsa era berean.

Basarrik une artan etzuen entzun. Gero nik kontatu nion eta uste nuen parrez itoko zala.

Pasai Antxo

PASAI Antxon San Ferminetan pestak ospatzen dituztenez, gu urte-mordoska aundian kantatuak gera an ere. Uztapide ta biok beintzat jakiñekoak giñan. Beste bikoteren bat jartzen ziguten, bai, batzuetan, lau bertsolari osatu nai zituzten bakoitzean.

Oso lagunarte atsegiña billatzen genduen Pasai Antxon. Eguerdiko saioa bakarrik izan oi zan guretzat. Uraxe egin da libre.

Gero amaiketako bikaiña soziedadean. Baiña bertsotan asi aurretik ongi gosaltzen genduen, eta gogo gutxi ezer jateko, ta antxe gelditzen zan gure amaiketako-parteia maiaren gaiñean.

Ez det uste, ordea, alperrik galdu zitekenik, den-dena beintzat. Jende asko dabillen tokian zailla dala badakigu gauza onak sobratzen. Apetituz sendo egonik, zer jana aukeran ikusi ezkeru, nork utzi lezaioke probatu gabe? Eziñezkoa bezela iduritzen zait ori.

Dana dala, goazen aurrera xuabe-xuabe. Egun zelebren batez gogoratzen naiz, eta mereziko du noski beronek paperean idaztea, gure ibillerak nolatsu ziran jakin dezaten ondorengo gazteak.

Pasai Antxorako abixoa arturik geunden lau bertsolari: Uztapide, Joxe Lizaso, Imanol Lazkano ta ni, Lasarte. An betiko ostatu batean gosaltzeko ordua jarrita gendukan. Uztapidek esan zidan bi edo

iru egun aurretik, beste nunbaitera bertso tara joan giñanez:

– Pasaian zeukagu urrengo lan-saioa, Lasarte, bitartean ezer sortzen ez bazaigu. Goizean amarrak inguruan bilduko al gera, ongi iduritzen bazaik?

– Bai. Neretzat ez da ordu txarra –erantzun nion.

– Bueno, nik itzegingo diat telefonoz Lizasorekin. Garaiz antzean ibiltzea ohea dek badaezbada ere.

Ortantxe gelditu giñan biok, eta Lizasok abixoa pasa zidan berealaxe: aiek, Lazkano ta biak, etorriko zirala kotxean, eta ni Orion artuko nindutela, nai baldin banuen. Zubi-muturrean zai egotea aski nuela.

Alaxe, irurok batera bagoaz Pasaira gustora. Lizasok kotxe berria egun artan estreñatu zuen, eta errez pasatzen zuela bidea lengo kotxe zaarraren aldean antzematen zitzaion. Motor berria nekeak erasan gabe egoten baida, kilometro-mordo bat egin bitartean.

Pasai Antxon izentatutako orduan eta ostatu berean antxe geunden zintzo asko, ta Uztapide ere laixter agertu zitzaigun. Baiña buruko txapela bigurri antzean zeramala konturaturik:

– Atzo parranda pixkaren bat egiñik ote zauden pentsatu arazi didazu, Manuel. Egia al da? –galdetu nion.

Eta:

– Bai. Alaxe dek. Guk etzeukagu bizitzeko eskubiderik –erantzun zidan.

– Nun ibili ziñaten, ba?

– Ergoienen bertan. Koadrilla txiki bat bildu giñuazen; eta, leenengo, afaldu itxuraz. Gero, kafez ta patarraz berotu giñan garaian, txanpaiña eskatu

zian lagunetako batek. Baiña basotik baiño porroitik askoz ere ohea zala ta andik edan bear genduela. Denok konforme, ta ipurdiko otzak kendu genizkian ederki. An ez uan gustatu etzitzaionik porroiko txanpaina, Lasarte. Ik ere edaten al dek, aukera dan guztian.

Ara emen Uztapideren erantzun zuzenak. Arek etzuen ezer gorde.

Baiña pena pixka bat eman ziona onoko beste au zala zirudien: koadrillako norbaitek pentsatu omen zuen Lesakara joan bear zutela, gau-giro ona zegoenez, denbora pasa. Ergoiendik bereala sartzen baida kotxearekin Lesakara.

Baiña txoferra txanpainez bete samartua edo ez dakit zergatik gertatuko zitzaion deskuido ura. Bidean zijoazela, sartu omen ziran kamioitik irten da sasi-zuloan muturrez aurrera, ta orduantxe komeri zurezkoak. Gero aztarrika latzak jo izango zituzten kotxea atera eziñik adibidez, eta etxeratzerako berandutu. Uztapidek onela zion:

– Gaur goizean, ni etxean sartu naizen garaian, gure semea sukaldean abarkak oiñetan jazten ari uan, mendira eizera joateko. Ejenplo ederra ikusi dik bere aitarengandik. Pena diat benetan. Au ez dek martxa guraso batentzat.

Gizon sentimentuzkoa ta garbia zan Uztapide.

Baztan aldean

NAPARROAN Baztan aldeko jendea bertsozale sustua ez ote da? Leen beintzat bai, azkeneko urte auetan gauzak aldatu ez badira. Gu ango erri txiki askotan kantari jardunak geranez, ez daukagu beste iñori galdetu bearrik, orren berri jakin al izateko.

Abuztuko Ama Birjiñetan batez ere, esan genezake Baztandik Irun bitarteko erreka-zoko oietan soñu-otsik eta dantzari treberik ez dala faltako.

Garaian garaiko pestak erri bakoitzari komeni zaizkiola ez dago ukatzerik. Bizitzeko ilusio pixka bat zor zaio pertsonari, dudarik gabe gaiñera. Ori kendu ezkerro, etsipena da urrengo mailla. Ezertarako sustantzi ta juzkorik ez duen gauza pobre bat, onenera jota ere. Irakurle, zuk jakin zenezake agian nik baiño geiago gai ortan.

Egun batez entzun nuen arrazoia beti buruan bueltaka erabiltzen det, Naparroan gertatu zitzaiguna au ere.

Goizean goiz etxetik irten da joan giñan, Donostin *La Baztanesa* izeneko autobusean sartuta, bertso-tara Uztapide ta biok, sarritan bezela, lan aundi samarrak bizkar gaiñean arturik. Bi erritan baigendukan kantatu bearra: egunez batean eta gauez bestean.

Uste det egunezko bertso-saioak Arraiotzen egin genituela. Emen okerrik baldin balego, barkatu dezaidatela mesedez. Orixe da eskatzen dedana.

Deskuidatzen ez dan gizonik ez da iñoiz ezagutu mundu ontan.

Dana dala, goizean autobusetik jetxi ta ostaturira iritxi orduko, asi zitzaizkigun bertso-eske an zeuden parrandero batzuk, eta esan genioten:

– Itxogin zazute, ba, gosaldu bitartean. Gero ere bada naiko denbora kanturako. Gu oraindik baraurik gaude ta tripa-zorriak il bear ditugu leenengo.

Alaxe, ostatuko mostradorean zegoenak agindu zuen tokian exeri ta bereala sukaldetik agertu zan etxekoandrea, ea zer gosari nai genduen galdezka. Esan genion eta laixter eraman zigun ederki gozatu. Gosez supritzen egotea aiñakoa bazan ura noski.

Sabeleko otzak kendu ondoren, kafetxo bana artu, puru boltitxerrak sutu ta bapo lanerako. Beti gaiñetik begira genduzkan aieri bertso-mordoska kantatu ta kontentu, baiña denbora gutxiko. Ez baizuten pakerik ematen. Beraiek sasoiko zeudenean, gu ere ala geundela uste.

Naparroan jende ona dan arren, ortxe zeukaten akats txiki antzeko bat: bertsolariak apustu-gizonak bezela juzkatzen zituzten. Alkar neurtzen ikusi bear derrigor. Bestela, etzeukan batere grazirik batzuentzat. Bertsoa zer dan ez dakienari gertatzen zaiola esango nuke ori, eta erreza da ulertzen.

Urte osoan, esate baterako, baso-lanetan dabilzan aiek, erriko pestetan bakarrik jexten dira kalera, denbora pasa beintzat, eta orduan ezin ase lagunarteko gozamenez. Pertsona atsegiñak benetan, baiña bertso-saio asko egin arazi ziguten egun artan, alperrik ere.

Dana dala, gero andik Oronotz-Mugairera pasa giñan gauerako. Erri batetik bestera aldatu ta, leengo nekea aaztu baiño leen, berriari eldu bete-betean.

Oronotz-Mugairen afari ikaragarria zeukan prestaturik koadrilla aundi batek. Guri aurrez deitu zigutenez, bagenekigun zertara joan bear genduen.

Ortik aparte, berriz, jende ezaguna ta bertsozale purrukatua egokitu zitzaigun. Ainbat aldetan gu kantari ari giñala aurrean entzuten egoten ziranak, geientsuenak beintzat, den-denak ez esatearren.

Elizondoko Mariano Izetak jartzen zizkigun gaiak, arretaz bezin txukun. Saio luze samarrak, ori bai, betiko antzera. Baiña iñor aspertu arazi gabe geiegikeriz, tarteka atsedenaldi ederrak emanaz, bertsolariak ixilduta, jendeak bestelako kontuak kontatu zitzan.

Gau zoragarri ura geroztik gogoan daukat. Aitarren egin orduko igaro zan. Zergatik, ordea? Entzuleak gustora utzi genituelako besterik gabe.

Iruretan oeratu ote giñan errezelotan nago, ta biaramon-goizean seiretan jeiki berriro. Andik Donostiraiño autobusean etorri, Amaran treña artu ta etxera. Ni neroni orrelaxe moldatu nintzan.

Eta Uztapide Erreterin geratu zala badakit. Leentxeago atal ontan aipatzen dedan arrazoi serio ura arek eman zidan. Uztapide, oean sartzerakoan, eztulka asi zan, eta onela dio:

– Katarro au zerena dan bai al dakik, Lasarte?

– Ori zurea –esan nion.

Eta:

– Ez dek nerea, ez, tabakoarena baizik. Erretze-ari uzten ez badiot, laixter il bearra zeukat derrigor.

Donostia

LEENGO pasadizo zaarretakoak idazten ari naiz eta au ere aietako bat da. Ez oraingoxea. Urte asko pasa dira geroztik. Baiña nere burutik ez du iñora aldegin nai izan. Ongi grabatuko zitzaidan nunbait ganbarako zintan.

Donostiko Teatro Printzipala edo Antzoki Zaarra Bulebar aldean dagoela jakingo dezu noski, adiskide. Leengo bertsolari zaarrak. Txirrita, Pello Errota eta beste batzuek ere ezagutuko zuten ura, seguru asko; ta guk ere bai, zorionez.

Igande-arratsalde batez jaialdi aberatsa antolatu zutela gogoan daukat. Danetik pulamentuz osatua, alegia. Asieran esan ziguten:

– Zuek bertsoan bi saio dauzkazute egin bearrak. Oraintxe leenengoa, eta emendik bi ordu edo geiagora bestea, antzerkien bukaeran.

Ori entzunik, Uztapidek galdetu zion:

– Aizu: ta bitarteko denbora libre al daukagu?

– Bai, bai.

– Orduan or Bodegoira joango gera zerbait artzera, baiña zainduko degu ordua.

– Konforme, ba.

Ekin genion kantu-lanari bizi-bizi, bertso-mordoska osatu arte. Antzokia jendez beterik zegoen eta pozik gu beintzat. Bertsolariak aurrean entzuleak nai izaten dituenetz, etzegoen arazo tristerik alde or-tatik; eta, leenengo saioa bukatu bezin laixter, joan

giñan Joxe Mari zanaren Bodegoira, ta an ari zan bertsolari aundi zala uste zuen mutilzaar kalaxka bat kantari, mostradore inguruan.

Sukaldean bertan bazituzten maiak eta ara pasa arazi ginduzten gu, pakean egotearren. Baiña nik esan nion Uztapideri:

– Berealaxe emen degu or oiuka ari dan latoso ori.

– Bai, noski. Alperrik, ordea. Merezi duen arrazoia jasota aldegingo dik –erantzun zidan Uztapidek.

Eta alako batean an dijoakigu.

– Kaixo, Manuel-parea! Donosti aldera etorrita zuek ere?

– Bai. Ta zu zer zabilta? Inork abixatu gabe etorriko ziñan gaur ere, beti bezelaxe? – esan zion Uztapidek, kopeta serio jarri ta txorakeri gutxirekin. Nazkaturik baizeukan kokotzeraiño, baldatxa zalako.

Eta onela zion:

– Ogei ta lau bertso eder ortxe kantatu ditut, nere lagun bati jarri nizkionak. Ez al dituzute entzun?

– Ez, gizona. Ez ditugu entzun. Onak izan balira, entzungo genituen. Gogoan artu ere bai bat edo beste. Baiña zuk ez dezu ortarako modukorik kantatzen inoiz ere, ta ez dizugu kasorik egin.

– Bueno, bueno, banijoa. Agur –esanda, kanpora aldegin zuen gure gizon edo mutilzaarrak.

Eta Uztapidek onela zion:

– Ikusi dek, Lasarte, nolatsu itzegin bear dan jende ariña ondotik bialdu al izateko? Orain kontuak kontatuko dizkiagu pake ederrean.

Uztapide lagun-zale amorratua zala ongi dakit nik. Baiña arronka ta txorakeririk etzitzaión gusta-

tzen sekulan. Bakoitzari berea eman da kito. Zertan jardun berriketan, utsaren urrengo pertsona bat dala jakiñik?

Orrelaxe, ba, gure gorabeera zelebrea, eta berriro inguratu giñan poliki-poliki Teatro Zaarrera, gure zai iñor egon etzedin.

- Puntu-puntu etorri zerate -esan zigun ango zuzendaritzaren kargua zeukanak-. Antzerkia bukaeran da ta urrengo zuen txanda dator. Berealaxe deituko dizuegu. Bitartean exeri ortxe ta lasai egon.

- Bai, bai. Toki seguruan gaudela badakigu -erantzun genion.

Andik denbora gutxira eman zuten abixoa bertsolarien bigarren go saioa astera zijoala. Oltzaduran agertu orduko, txalo-zaparrada aundi bat jo zigun jendeak, pixka bat animatzearen agian. Baiña ez gendukan umore txarrik eta errez egin genituen ango lanak.

Alde ederreko egunak izaten dira ortan ere. Bartzuetan nun-naitik sortzen zaio bertsolariari bertsoa, ezer kosta gabe edo neke gutxirekin alegia; ta urrengoa, berriz, iñundik iñolaz ezin asmatu arrastotan sartzen bear bezela. Memoriak ez baidu beti berdin laguntzen. Gizonaren izakerak aldakuntza izugarriak dituela pentsatzen det nik, une batetik bestera.

Bertsolari zaar batekin

EGUN batez erri txiki batera joan giñan bertso-talara iru bertsolari, baiña bat zaartu samartua zegoen ordurako, ta gutxi ibiltzen zana gaiñera. Ori zeukan gaitzik txarrena, berak aitortu zigunez. Eta guk sinistu genion. Nola ez?

Kantuan ari danean, errez antzematen zaio gizonari nundik nora dabillen. Or ez dago diximuloan ezer ezkutatzeko modurik, alaxe nai izanik ere.

Bertsolaritzak baditu
bere atalak,
gogorak eta apalak,
biziak eta makalak.
Zerk kenduko dizkio oiek?
Aitzurra ta palak.

Konparazio txiki bat idaztea besterik ez det egin oraingoz.

Uztapideren ateraldi dotorea bururatu zait, baiña geroago esplikatu nezake ura, ta aurreko gertakariz itzegin dezadan leenengo. Egun bereko gora-beerak baidira denak ere.

Atal onen asieran aipatzen dedan bezela, erri txiki artan ostatuan gosalduta ta lasai geundela, iritxi zitzaigun plazan bertso-talan asteko izentaturik zeukaten ordua, eta igo giñan oltzaduraren gaiñera.

An bertsolari zaarra erdian jarri arazi edo artu genduen guk, Uztapidek eta Lasartek, borondate onez.

Altabozik etzuen iñork erabiltzen artean. Gai librean kantatu oi zan, gaiñera, askatasun osoan. Baiña iru bertsolari ongi uztartzen ez pentsatu erreza danik, alkar artzen leendik oituak ez badaude beintzat.

Gu, Uztapide ta biok, ixkiña banatan geundenez, arek bertsoa bukatzen zuenean, nik berari eltzen nion beste aldetik; edo, bestela, arek nere arrazoiari elduko zion, aria eten da gauzak ez naastearren. Eta erdian kantari ari zana, an gelditzen zan nori erantzun etzekiela, zearo salduta bezela.

Bertsolariatian irukotea puntu txarra dala bada-kigu, gai librean batez ere. Bi bertsolari edo lau onenak, batere dudarik gabe. Ostatu barruan kantatzeko ez du ainbeste garrantzi. Baiña plazarako bai.

Eguerdiko saioan antzeman genion bertsolari zaarri pixkaren bat minberatu ote zitzaigun. Baiña etzan gure errua, arek ala uste bazuen ere.

Gero, bazkalondoan, bi edo iru bertso-saio egin arazi zizkiguten. Ostatura bildu ziran entzuleak bagenekigun zergatik joanak zeuden araiño, eta alegindu giñan poz pixka bat ematen aieri ere, aal zan neurrian noski.

Baiña etzegoen aparteko miraririk egiterik iñolako moduz. Ezin baigenduen alkar artzen asmatu, ta bakoitzak bereari eutsi nai. Gu oituak geunden, Uztapide, Basarri ta ni, Lasarte. Irurok kantatzen erri askotan ibilita ordurako, ta orrek badu bere arrazoia. Baiña diodan bertsolari zaar aren bertso-egitura edo dotriña etzan gurearekin bat zetorrena. Izlari bizi amorratua izanik, geitxo berotzen ote zan iduritu zitzaidan, garbiro aitortzekotan; eta ori arrixkutsua gertatzen da, geientsuenetan beintzat.

Uztapidek etzuen iñori gaizki itzegiteko griña zitalik. Galdera bakoitzari zegokion erantzuna ematen zan ura eder aparta. Egokia bezin azkarra.

Dana dala, bazkal ondoren ostatuko jardunaldietaz aaztu baiño leen plazara agertzeko abixoa artu genduenez, ara joan da agindu ziguten garaian ekin genion berriro kantu-lanari, goiz partean bezelaxe, zaarra erdian zala. Dotore argazkiak ateratzeko. Ez, ordea, bertsoak umil da maitasunez kantatzeko. Onekin ez nuke esan nai erria deskontentu gelditu zanik. Baiña goizeko jokabidearen antza berbera zuen arratsaldekoak ere neretzat. Gogorkeriaren itxura dexentea, gutxienera jota ere.

Geiegi nabarmendu gabe diximulo pixka baten bidez esaten diran gauzak doble balio dute publikoan, ni oso oker ez banago. Beti ezin leike asmatu zuzen eta txukun itzegiten. Ori asko eskatzea da noski. Baiña bertsolari zaarra iduripenez oker zebillen nereko. Uztapidek etzuen amets txarrik, eta nik ere ez. “Alkar artu ta nere kontra zabiltzaten arren, gaur biok egingo dezute naikoa” bein baiño geiagotan kantatu zigun arrazoirik gabe. Ta azkenean Uztapidek erantzundako bertsoaren bukaerako bi puntu ditut goioan. Auek dira:

Nik gizonari bere garaian
ematen diot aurpegi,
guk naikoa egin ordurako zuk
egingo dezu geiegi.

Orduantxe umildu arazi zuen bertsolari zaarra, ta kito. Uztapidek pertsona bakoitzari neurriko trajea laister josten zion. Sastre eder aparta zan. Ura probatu genduenak badakigu zer doai zeuzkan.

Oiartzungo Ergoien

OIARTZUNGO istori zelebrez osatu nai nuke nere ataltxo au. Den-denak gogoratzea ez da erreza. Baiña erdiak izanik ere, bete liteke eskuetan artu dedan papera, ta ortantxe aleginduko naiz, denbora pasa nagoen ezkeru.

Zer da gauza politagorik lagun zaarretaz oroitzea baiño? Mundu ontan neretzat, oraingoz beintzat, ezer gutxi. Leengo gertaerak kontatzen edo aiek idazten ari naizenean, berritaldi bat sentitzen det barruan, pozak ematen didana seguru asko. Nundik eta nolaz datorkit sentimentu apal ori burura ta biotzera?

Manuel Olaizola Uztapide bertsolari bikain uraxe da sekulan aaztu ezin zaidana. Ametsetan ere arekin ibiltzen naiz oean bueltaka sarritan. Guk biok alkarri zenbat nai genion adierazteko nik ez daukat aukerako itzik. Baiña maite det gaur oraindik, bizi zanean bezelaxe. Neretzat ez da bein ere ilko Uztapide ospetsua.

Egun batez, Arruatik deitu ziguten lagun ixtimagarri batzuek: Oiartzungo Ergoienen bazkari on samarra egiteko asmoa zeukatela, gu, Uztapide ta biok, libre geunden igande batez, batere presarik gabe. Illabetean, bian edo irutan berdin itxogingo zutela beraiek; eta, iñorako konpromisorik ez gendukan garaian, aditzera emateko mesedez. Bi egun aurretik abixatzea naikoa zala.

– Bueno, ba. Ez diagu aukera txarra, Lasarte –esan zidan Uztapidek.

– Ez, gizona –erantzun nion–. Orain ere negua ere bada ta ez degu udaran bezelako zalapartarik erabiliko batera ta bestera. Zuri ongi datorkizun tarte batean deitu zaidazu Oriora telefonoz, eta erabakiko degu noiz egin genezaken dalako bazkari ori. Ta bestela, berriz, egun gutxiren barruan bildu bearrak gaudenez, an itzegin leike lasai.

– Bai, bai. Konfiantza dagoen tokian errez mol-datzen dituk gauzak.

Auxe izan zan Uztapideren erantzun atsegiña, amaika orrelako emana zan-da bere bizitzan.

Alaxe genbiltzala, pixka bat luzatu arazi ziguten, erriz erriko deiak ugaltzea egokitu zalako. Baiña utsunea ikusi orduko, abixoa pasa genioten arruatar laguneri noiz geunden libre; ta aientzat ongi zetorrela erantzun ziguten.

Andik bi edo iru egunera, gutxi gora-beera esanda, izan zan Ergoiengo billera sonatu ura, arruatarrak gustora joan da gozatualdi ederra artu zutena, nere ustez beintzat.

An etzan geiegikeriz iñor aspertzeko motibo berezirik. Ezta ere ezeren faltarik. Janariz eta edariz aukera osoa. Bakoitzak eskatu zezala komeni zitzaiena eta aurrera txalupa. Apetituz bikain zeuden Arruako gizon jatorrak. Neri poz aundia ematen zidan aien jateko gogoak eta lagunarteko portaerak. Umiltasunez jantzitako jende leiala alde guztietan ixtimatzen dala badakigu ongi baiño obeki ere.

Guk, Uztapide zanak eta nik, Lasartek, bertso-saioak ugari antzean egin genizkiotenez, aien gozamenak etzuen txantxarik.

– Auxe uan, ba, guk nai genduen! –esaten zioten alkarri pozaren pozez.

Alaxe pasa zan arratsalde gogoangarri neurtu ura, neri geroztik aaztu etzaidana. Ta, negua izanik, nai baiño leen illundu. Ara zer gertatu zitzaigun: gustoko lekuan nekerik ez sentitzen nunbait eta bertan gozo, aspaldiko esaerak dion bezela.

Baiña noizbait mugitu bear da abiatu giñan etxe aldera, Uztapide agurtuta, Oiartzungo Ergoien-dik; eta gero bidean komeri politak ikusi genituen.

Kamio estu samarra zegoen garai artan Ergoien-dik Oiartzungo kalera bitartekoa; ta, txoferra deskuidatu edo orrelako zerbaiten motiboz, sartu zaio kotxea sasi tartean muturrez aurrera, ta “Kai-xo, jaunak, emen gaituk!” esanda irten giñan denok kotxearen barrutik kanpora. Ta, ongi indarturik geundenez, berealaxe zuzendu txoferraren okerra. Sasi tartetik atera kotxea ta martxa.

Gero nik gai orri zegozkion bertso batzuk kantatu nizekion txoferrari, bidean gentozela, ta ura zan umorea ekarri genduen, Oriora iritxi bitartean batez ere! Jendeak etzuen ipurdiko otzik.

– Baiña ni nola deskuidatu naiz gaur? –esaten zuen txoferrak bere kasa.

Ta:

– Nola deskuidatu? Ez al dakizu nun pasa dezun egunaren zati aundi bat? –erantzun nion nik, ala ari zalako.

Ta orduantxe konformatu gizona. Burua jantzi zitzaion. Garai berean konturatu zergatik izan zan gertakizun ura. Goizean arunzkoan andik joan giñan, baiña ederki eraman zuen kotxea. Bueltan zettorrela, ordea, bolantea bigurritu.

Basoan

ATAUNGO San Gregorion prankotan kantatuak geranez, ango gertaera batzuk ere badauzkat gogoan jasorik, oraingoxeak ez diran arren.

Lagunarte bikaiña billatzen genduen joandako bakoitzean, eta guk uraxe nai, berriz. Eguna gustora pasa al izateko, konfiantza bear da leenengo, ta gero gerokoak, nere iritziz beintzat.

Uztapide bertsolaria oso maitea zan Ataun aldean ere, beste erri askotan ez-ezik. Ori ongi dakien bat ari zaizu paperean idazten, irakurle zeran adiskide ixtimagarri orri. Beraz, ez artu itz auek zurikeritzat, mesedez, nere sentimentuak orrelaxe dira ta. Emen bati ez genioke ezer kendu bear besteari emateko. Zuzenbidez gizon bakoitzak beregan dituen doaiak garbiro aitortu ta kito. Lasai geratu konzientziz.

Egun batez, Ataungo San Gregorioko plazan, gai librean, garai artan oitura zegoen gisara, asi giñan Uztapide ta biok eguerdiko bertso-saioa egiten. Leenengo, erria agurtu bertso bana edo binarekin; eta aurrera jarraitzeko bidea laister aukeratu zuen Uztapidek. An Markes-basoa deitzen diotena gendukan bistan, eta galdetu zidan bertsoz Uztapidek:

– Ezagutzen al dek aurreko aldean daukagun zugaizti aundi ori, Lasarte? Ni or lanean jarduna nauk gaztetan.

Ara gai zelebrea kanturako, ta entzule jendeak ongi ulertzen zuena gaiñera, guk geronek bezelaxe.

Ataunen baso-lanetik geiago biziko ziran opizinatik baiño, seguru asko; ta dotore antzean irten zitzai-gun bertso-saio ura. Erri artarako ezin ohea, esate baterako. Ni neroni ere gaztetan basoan ibilia nintzanez, banekien nolatsu erantzun Uztapideri, ta bapo moldatu giñalakoan nago, jendearen iritziak entzunik batez ere.

Sarritan edozer uskeri aski izan oi da pesta jar-tzeko, umorezko ateraldi zorrotzak erabili ezkeri; ta ortan artista utsa zan Uztapide. Uste gabeko zokoak ederki miatzen zituena. Iñork gutxiena espero zuen garaian sortzen zitzaizkion gauza arrigarriak.

Berezkotasuna orixe da, bertsolari bakoitzak bear lukena. Baiña denok ez ditugu pentsamentu berdiñak ezertan ere. Ezta urrik emateko aalmenik eta lan-tankerarik ere noski.

Uztapidek zenbat denbora pasa zuen Ataungo Markes-basoan ezin nezaioke irakurleari adierazi garbiro. Ez baidakit. Neronek sekulan ez nion gal-detu ere.

Ta Azkoiti aldean pixkaren bat jardunak zirala uste det. Orko kontuak aipatzen zituen batzuetan. Koadrillan gizon zaar antzeko jator bat izan bear zu-ten, adibidez. Oso atsegiña, zurrutero samarra, bai-ña langille amorratua era berean.

Egun batez, goizean goiz, artean illun zegoela, kamaiñatik jeiki denak eta prestatu omen ziran lan-nean asteko, ta euri-zaparrada ikaragarria ekarri noski bat-batean.

- Atertzen duen edo ez ikusi arte ezin mugituko gaituk, ba, mutillak. Giro onekin etzegok iñora joa-terik badaezbada ere.

Lantokira etzan bide luzea egongo noski. Baiña eguraldi txarrean gizonak ez du ezer egiten, galanki supritu besterik; eta, txabolan bertan zeudela, go-

saltzea erabaki omen zuten, ea giroa obeagotzen ote zan.

Bai zera! Gerora ta okerrago zijoala ikusirik, etsi samartu ta karta-jokoan asi omen ziran musean denbora pasa, ardo ona ere bazeukatela ta zatorik edanez. Eguerdian pixka bat atertu edo arinduitxura artu zuenean, bazkaldu ta lanera joateko prestatu dira denak, eta ekarri du berebiziko euri-erauntsia berriro.

– Bueno, bueno! Gure Jaungoikoak guk jai egi-tea naiko dik gaur –esanda, sartu kamaiñan da lo sendo. Siesta ederra egin ondoren, jeiki ta ekin dio-te karta-jokoari:

– Enbido aundira!

– Ez. Jaso tantoa.

– Amar txikira.

– Euki.

– Ta pareak bai.

Orrelaxe segitzen dute musean, eta zato beltza an dabil eskutik eskura geldiunerik gabe, ustutakoan berriro betez. Eta, afaltzeko garaia iritxi baiño le-en, gizon zaar istimatu ura jarlekutik atzeko aldera zilipurdika, balantza egiñik noski, ta onela omen dio berak:

– Zaarra erori dek, mutillak!

Auek Uztapidek esanda dakizkit nik. Dotore kontatzen zituen. Bein galdetu nion Uztapideri:

– Zuen lagun zaarra erori zanerako, beste nor-bait ere izango zan an larri?

– Bai, Lasarte. Guk bagenizkian galtzak bete lan –erantzun zidan, parre gozo asko egiñez

Ixtori politikak!

Ala ere naiko urrean

GERTAERA errikoiak kontatuz gozatzen naizen ezkerero, atal ontarako ere badet alamoduzko bat, Uztapiderekin zer ikusia duena gaiñera. Baiña geroago itzegin nezake orretaz. Beraz, goazen aurretik esan bearrekoak esatera al danik egokiena.

Egun batez, baillara txiki antzeko dotore batean, pentsatu zuten bertsolariak eraman da pesta jartzea, bertako jendearentzat batez ere. Baiña kanpotarrik joan arren, etzan iñor kejatuko, poztu baikik eta ongi tratatu. Ortan asmatzeak ez du gutxi balio, nere ustez beintzat.

Dana dala, guk, Uztapidek ta Lasartek, artu genduen ango bertsolaritzaren kargua, deitu ziguten bezelaxe; ta betetzen alegindu ere bai, ezer gorde gabe. Ostatu barruan egin genituen bertso-saio denak. Negu beltza izanik, antxe zegoen girorik onena, nola kantatzeko, ala entzuteko.

Eguraldi txarrean, estalpe tajuzkorik ez bada, pestak ez du luzitzen batere. Ortaz oarturik, erri txiki ta baillara askotan egin dituzte polikiroldegi berriak azken aldiko urte auetan.

Oso bearrezkotzat juzkatzen ditudan langintzak dira oiek. Dudarik ez daukat nere ezjakiñean. Pelotan, saski-baloian, fubolean eta ainbat kirol-klase-tan jolastu ditezke gazteak errian bertan, aukera jartzen bazaiote. Bestela, kanpora dijoazte al duten tokira, jai-egunetan beintzat. Astez eskolan daukate

naiko lan. Baiña askatasun pixka bat lasaigarri da-
la ezin genezake ukatu iñolako moduz.

Ortik aparte, berriz, erriko pesta nagusiak an-
tolatzeko, zerura begira egon oi ziran leen, ea argita-
sunik ikusten ote zitzaion goi aldeari. Segurantzia-
ren naia ta giro txarraren bildurra, bi gauza batera
oso desberdiñak zeuzkaten garai aietako gazte ta
zaarrak. Beste norbaiten eskutik artu bear dana be-
ti arrixkuan egoten danez, kontuz ibilita obe, bada-
ezbada ere.

Neguak ez du txantxarik, okerrera jotzen duen
bakoitzean, gu bizi geran lurralde auetan beintzat.
Iñoiz ematen dizkigu zapletako latzak, eta datorrena
artzera derrigorturik gaude, naiz orren zale ez geran
arren. Burua makurtu ta segi aurrera pixkanaka,
orain arteko geientsuenak egingo zuten antzera.

Emen gizonaren baitan balego eguraldiaren
etorkizuna, ikusiko lirake aldakuntza bildurgarriak.
Baiña eziñezkoa izango da ori. Geiegikeria, alegia,
neri iduritzen zaidanez edo ez dakit, ba, nola espli-
katu ere. Pixu aundiko gauzak.

Ataltxo onen asieran gero esatekotan utzi de-
dan pasadizoari eldu nai nioke oraingoz. Zalako bai-
llara polit atsegin artan ostatu edo jatetxe sonatua
zegoen. Guk ongi ezagutzen genduen famili batek
erabiltzen zuen ango martxa, lan asko egiñez gaiñe-
ra.

Jangela ederra zeukan, eta bazkaltzeko garaian
nagusiak agindu zigun nun jartzea komeni zan ber-
tsolariak, jende guztiak errez entzun zitzan bertso-
ak, alegia. Ta, etxeko nagusiarentzat maiburuan to-
kia libre utzita, ixkiña banatan exeri giñan: Uztapi-
de alde batean eta ni, Lasarte, bestean.

Artean iñor etzan inguratu bazkaltzera. Baiña
laister sartu zan jende-mordoska; ta aietako bat,
guk espero ez genduena. Bertsolari ona zalakoan bi-

zitzen zan, ordea, kalaxka ura, ta joan zitzaigun guregana. Leenengo, Uztapideri luzatu zion eskua; ta urrengo, berriz, neri.

– Zer modutan zerate? Nik zuen ondoan bazkaldu bear det –esan zigun.

Eta Uztapidek onela erantzun zion:

– Ez. Mai au osatua omen dago. An, baztar aldean, egongo dira bat edo bi libre, ta joan zaite mesedez araiño, ala ere naiko urrean izango zera zu ta.

Ura zan parregurea eman zidana Uztapideren ateraldi dotore arek. Geroxeago galdetu zidan:

– Nabarmen samar itzegin dedala iduritu al zaik, Lasarte?

– Diximuloan ezer esatea alpertsurik dek gizon ariñari, ez dik ulertzen da. Egi borobilla orixe da –erantzun nion–. Pake ederra eman dezake, baztar aldeko mai artan ixilik egoten asmatzen baldin baidu. Baiña ea andik bertsotan asten dan.

– Baleikek, jendeak uzten badio. Ikusiko diagu.

Au izan zan Uztapideren iritzia, eta etzebillen oker. Arratsalde osoan ez genion itzik entzun. Agian norbaitek galeraziko zion.

Donostiko Antiguano

DONOSTIKO Antiguano gertakari zelebreak, adibidez, ez gezurrezkoak, egi utsez moldatuak baizik, eta gogoangarriak era berean.

1936-garren urtean piztu zitzaigun gerrate gogor ura bukatu ondorenean, berealaxe asi omen ziran Uztapide ta Zepai bertsolariak Antiguako Zerbererian lanean noski, beste askoren antzera. Baiña soldata txikiaren truke, ta ezin bururik jaso inolako moduz.

Antiguako Konportan Zepairen anaiordeko bategen ostatu edukitzen zuela uste det, nik entzueran dedanez. Ala ez balitz, nere akatsa litzake, ta barkatzea naiko nuke, mesedez.

Dana dala, diodan bezela, Konportan apupillo jarri izan bear zuten Uztapidek eta Zepaik, biak batera jan, edan ta lo bertan egiñez.

Baiña igandetan, erriz erri bertetan zebiltzantetan, deskarrillatu egiten, ordea; ta astez ere bai sarritan edo geiegitan agian. Lagunarte zabalean sartu ezkeron, gizonak ez du bere buruarekin agintzen, nai luken guztian; eta bertsolariari orixe gertatzen zaiola badakigu probatu degunak.

Uztapide ta Zepairen istoriala, zerbeza-fabrikatik asita, ongi esplikatzen zuten pertsonak ezagutu nituen nik, geientsuenak illak diran arren.

Illunabarretan, fabrikari eguna lanean pasa ta kanpora irtendakoan, beti sortzen omen zitzaioten konpromisoren bat, afaltzeko edo meriendatzeko sa-

gardotegietan eta abar. Igeldon, Donostiko Parte Zarrean eta Antiguán, iru oietan beintzat eten gabeko saltsa, Uztapidek esaten zuenez.

Leengo bertsolari zaarrak parrandero-fama omen zuten noski. Baiña geroztikakoak ere ez gera denok santuak izan mundu zelebren ontan.

Gerra ondorengo urte aietan, berriz, umore onak asko balioko zuten, aurretik pasatako tristura ta penak aaztutzeko ere. Bertsolariak zertaraiño ixtimatzen zituen jendeak esplikatzeko ez da erreza nere moduko ezjakin batentzat. Baiña ikusitako kasoak gogoratzen zaizkit, atzo goizean gertatuak balira bezela, ain mingarriak izanik.

Uztapidek eta Zepaik zenbat denboran egin zuten lana Antiguako Zerbezerian ez daukat garbiro idazterik, neronek ez dakidalako; ta orretzek ematen dit pena une ontan. Baiña bestela ere bada zer kontatua ataltxo au osatu aal izateko, ta goazen aurrera poliki-poliki, iñor minberatu arazi gabe.

Donostiko seme apal bat ezagutzen det gaztetan torero famatu samarra izandakoa: Joxe Mari Rekondo. Aspaldiko urteetan Malaga inguruan bizi omen da bere familiarekin. An ez dakit zer lan-klase erabiltzen duen; baiña noizean bein Donosti aldea bixitatzen duela jakiñik nago. Gizon atsegiña da neretzat, eta bertsozale purrukatua ere bai, bere aita Rekondo zan bezelaxe. Guk arekin konfiantza aundia genduen, zorionez.

Uztapide ta Zepairen istori politikak dotore kontatzen zituen tarteka, umore ona zeukanean batez ere; ta jenio txarrean, berriz, nik neronek sekulan iñun ez nuen ikusi gizon gozo leial ura. Sagardotegietan, jatetxe ta ainbat zokotan ibili giñan alkarrekin, eta beti kontentua. Zer ote da gauza ederragorik lagunarterako, maitasuna baiño? Nik dakidanik ezer ez, beintzat.

Dana dala, Uztapide ta Zepairengana itzuliko naiz berriro, nere lantxo au bukatu dezadan.

Illunabar batez, koadrillan afaria omen zeukaten aurrez izentaturik, eta Zerbezerian eguna lanean pasa ta joan dira biak ara. Ta, jan-edanez ase ondoren, umorez jantzi ta sasoi ederrean ekin diote bertsotan nola batek ala besteak.

Baiña gero ostatuz aldatzea pentsatu dute; eta, kalean aurrera dijoazela, txixa-larri izugarria sentitzen du bat-batean Zepai bertsolariak.

“Onela etzegok, ba, irauterik” esan bere buruari ta zirkillu batera ezkutatu, disimuloan bere ustez; eta orma edo pareta zaarrari txixa egiten ari zaiola, an arrapatu du serenoak gure Zepai gizarajoa, ta iru duroko munta kendu.

Sartu eskua poltxikoan ta eman dizkio iru duro, esanez:

– Kostako zaizu ni berriz arrapatzea modu on-tan.

Uztapideren izakeraz

UZTAPIDE zanaren izakeraz gogoratzeak beste gauza asko ekartzen dizkit burura, denbora pasa nagoenetan batez ere. Ni ezin niteke aaztu iño-lako moduz gizon apal edukatu artaz, memoria gal-tzen ez bazait beintzat.

Orain aurreko gau batez, biok bertsoan ari gi-ñala esnatu nintzan. Ametsetan nenbillen gozota-sun ikaragarrian, Uztapide zerutik beera berriro piztu ta jetxi zalakoan zearo sinisturik. Ura zan po-za eman zidana! Ta galdetu nion:

– Etorri al zera, Manuel, gu bixitatzera? Bertso-ak sasoirik onena zenduenean bezelakoxeak kanta-tzen dituzu.

Ara nolako maitasun sutsua genion batek bes-teari. Ametsetako kontuak dira noski; baiña oiek zerbaitek esan erazten dizkio pertsonari. Auskalo nundik eta nola zebillen nere pentsamentua gau zo-rioritsu artan. Biok alkarri lepotik eldu ta musuka ari giñan garaian, bat-batean esnatu ta ezer ez.

Orrelaxe oi da geientsuenetan ametsaren bu-kaera: utsetik utserakoa. Baiña bien bitartean une gozo ta atsegiñak ere badituela dudarik ez nuke ja-rriko, nik nere baitan daukadan neurrian edo uste-an beintzat.

Guk, Manuel Olaizola Uztapide bertsolari eder zoragarri arek eta biok, konfiantza aundienetakoa izanik, sekulan ez genduen itz bat altuagorik erabi-li, bear zan baiño. Beti ongi konpondu giñan ogei ta

zazpi urtetan, erriz erri bertsotan galanki ibili arren. Gizon osoa ta burutsu aparta billatzen nuen nik ura nere gustorako.

Egun batez, gure anaietako bati onela galdetu omen zion, ni soldadu nengoela, Uztapidek:

– Zu Lasarte bertsolariaren anaia zerala esan didate. Egia al da?

– Bai; alaxe naiz -erantzun zionean:

– Urte askotarako. Orixe jakin nai nuen, eta exeri zaitez mesedez mai ontan, nere ondoan tokia badago ta, zerbait artuz itzegin dezagun lasai, iñora joateko presarik ez badaukazu beintzat.

Bai pozik exeri ere gure anaia Uztapideren alde-menean. Nola ez? Oso gogozkoa zuen gaiñera arek, bertsolari bezela, Uztapide, bestela gutxi samar eza-gutu bazuen ere.

1997-garren urteko maiatzaren 21-ean il zitzai-gun gure anai Eusebio Lasarte zana, irurogei ta amabost urte eskas zeuzkala, ta kito. Ortik ez gera iñor libre. Dana dala, sartu nadin leengo karrillera, aririk eten ez dezadan.

Uztapidek eta biak alkarrizketa apala izan zu-ten egun artan. Ikaragarri gustora geratu zala uste det gure Eusebio, ondorenean entzuten genionez.

– Arrazoi aundiak ateratzen dizkik gizon arek -zion Uztapiderengatik.

– Eta i ere konturatu al aiz ortaz? Biok berdinsu pentsatzen diagu orduan – erantzun nion.

Neretzat asko gogoratzen zala ta goraintziak emateko mesedez aren partetik esan omen zion Uz-tapidek gure anaiari.

Andik laixter egokitu zitzaidan illabeteko permi-soa, etxera etorri aal izateko; ta jakin nuen Ernainin, urrengo igande-arratsaldez, bertso-saioa nola

zegoen. Eta bakar-bakarrik, beste iñor endredatu gabe, joan nintzan Aiatik Ernanira.

Berealaxe billatu nituen an bertsolariak. Jate-txe ezagun batera sartu orduko, esan zidan bertako nagusiak:

– Zure lagunak ortxe daude, Lasarte, jangelan, bazkaldu ta lasai. Lentxeago egin dute bertso-saio bat, eta une ontan kontu zaarrak kontatzen ari dira. Nai al zenduke barrura sartu beroiengana?

– Nik ez daukat batere presarik iñorako, eta emen itxorongo diotet kafea artuz, nagusi –erantzun nion.

Baiña denbora gutxian egon nintzan bakarrik. Norbaitek abixoa pasa zioten seguru asko, ta azkar joan zitzaidan Uztapide neregana, ta aren atzetik Basarri ere bai.

Aspalditxoan alkar ikusi gabe geundenez, ura zan poza gure artekoa! Sekulan aaztu eziñezkoa, neretzat beintzat. Gizon aundien ondoan txikia gustora egon oi dala badakigu geientsuenetan, eta neri ere orrelako zerbait gertatu zitzaidan, dudarik gabe. Uztapidek onela esan zidan, alkar agurtzerakoan, eskua estutuz:

– Aurrerantzean ongi izatea opa diat iri, Lasarte; ta leenbaileen bukatu dedilla soldadutza, emen bertotan alkarrekin ibili gaitezen.

Albiste illuna bezin tristea

GAUR idaztera nijoan atal ontan, albiste illuna bezin tristea eman bearrean aurkitzen naiz, irakurle zeran adiskide orri. Uztapidek eta nik, Lasartek, maite genduen gizon ospetsu baten eriotzak minberatu ninduela adierazi nai nizuke.

Nor ote da, ba, adiskide gogoangarri ura? Joan Krutz Azpiroz Goikoetxea, *Chiquito de Arruiz* deitzen ziotena erdaldunak; eta euskaldun askorentzat, beintzat *Arroizko Txikia*. Bi modutara esanik, agian geiagok ulertuko dute.

Korrikalari ikaragarria izan zan bere garaian, diodan gizon apal au. Kirol-kontuan Naparroak mutil onak ugari antzean eman dizkigu aspalditxoko urteetan, eta ara emen nola agertzen dan beraietako bat. Baiña bukatu zituen mundu ontako lanak, adibidez; 1997-ko uztaillaren 2-an il omen zan, irurogei ta zortzi urte zeuzkala, Iruñen; eta andik bi egunera illobiratu Arroitzen bertan gorputza, uztaillaren 4-ean, Joan Krutz Azpiroz zana.

Pena aundia artu nuen, *El Diario Vasco*-n zeterren eskela ikusita. Baiña nik ez neukan ezer egite-rik aren okerra zuzentzeko, ta orrela bearko du, lastimagarria bada ere.

Bein baiño geiagotan entzun nion nere lagun zintzoa izandako bati:

– Begira, Lasarte. Gure anaia Arroizko Txikiarekin sozio dala badakik, eta biak ibiltzen dira entrenamentuetan gauez, zero-goia garbi ta giro ona da-

goen bakoitzean, illargitan. Gure anaia zaldiaren gaiñean jarrita, eskuan ordularia edo erlojua duela, kilometroa zenbat denboran pasatzen duen jakin eta zer martxa eraman bear luken adierazteko. Ta arek esaten du sekulan ez duela korrikalari ederragorik ikusi, Arroiztarra baiño, anilloaren bueltan ibiltzeko, bere gustorako alegia.

Beste bat bazan emen, Gipuzkoan, korrikalari bildurgarria: Joan Manuel Azpiroz. Aiako Txikia deitzen ziotena. Au eta Arroizko Txikia berdintsuak konparatzen omen zituzten joko-gizon batzuek. Baiña ez ziran biak garai berekoak, ordea. Aiatarra askoz ere zaarragoa, leengo gerra aurreko korrikalari famatua. Nik ezagutu nuen juxtu-juxtuan nolatsuko korrikalaria zan Joan Manuel Azpiroz.

Dana dala, berriro Naparro aldera itzuli nadin, zer itzegiñik ez da faltako ta.

Joan Krutz Azpiroz gurekin batera prankotan ibilia zan erriz erriko pestetan, emen Gipuzkoan batez ere.

Andoaingo Irizar erabiltzen zuen kontrario edo lagun. Korrikalari ederra zan Irizar au ere, ta plazan jendeari pozaldi aundiak ematen zizkiotela badakigu, bien artean. Alkar artzen asmatzea oso garrantzitsua izango dalakoan egoten naiz ni, edozer gauzetan ere; ta aipatu ditudan gizon auek artistak ziran ortan, askoren iritziz.

Joan Krutz Azpirozek eta bere familiak ostatua edukitzen zuten leen Arroitzen, Erriko Etxean, Oraingo berririk ez dakit, seguru esateko. Aspaldiko urteetan ez bainaiz iritxi alde aietara. Baiña parranda galantak egin genituen Uztapidek eta biok antxe ere iñoiz.

Egun batez, sekulan aaztu eziñezko billera egokitu zitzaigun, batere espero ez genduela. Inauteri edo karnabaletan ospatzen dira Arroitzen pestak,

eta leenengo eguna joan zaiote dotore antzean, nainko soiñua entzunez eta dantzan egiñez, umore ederrean. Baiña zerbait geiago nai jendeak, eta pentsatu du koadrillako norbaitek:

– Biar bertsolariak ekarri bear dizkiagu.

Alaxe, gu lanean ari giñan tokira sartu zaizkigu goizean goiz. Jela izugarria zegoen arren, aiek etzuten otzik sentitzen. Arroitzen gaupasa eginda egonik, barruak bero zeuzkatela zirudien jende umoretsu aren itxurak, eta onela asi ziran izketan:

– Egun on, jaunak.

– Baita zueri ere –erantzun genioten; eta batek esan zidan:

– Lan-giro al dago, Lasarte?

– Bai. Emen kanpoan baiño ohea.

– Ba, utzi mesedez eskuetan dauzkazun tresna oiek. Segituan Arroitzera joan bear dezu gurekin batera, gaur karnabal bigarrena dalako. Ta bestea Uztapide eraman nai genduke.

– Uztapide Oiartzunen bizi da, urruti samar –esan nion–, presaka etorri bazerate.

– Ez dio inporta. Gu bi kotxetan gabilta ta goazen bertara. Zuk esplikatuko diozu ari, guk baiño obeki, lagunak zeratenez.

Alaxe, erropak aldatu ta Uztapiderengana joan giñan. Etxean zeuden andre-gizonak, eta berealaxe prestatu zitzaigun gure Manuel Olaizola bertsolaria umil asko.

Arroiztarrak etzeuden asarre. Laixter eraman ginduzten beraien errira, ta andik aurrerakoan ez genduen ezere faltarik. Bertsoak ere ugari.

Zarauzko Zinema pelotalekuan

LEENGO pasadizo zaarrak idazterakoan, Manuel Olaizola, Uztapide bertsolaria, aipatzen det maiz, aspalditxotik asita. Nola ez? Nik egin nezaioken guztia ezer gutxi dala iduritzen zait, gizon arek merezi duenarentzat. Baiña bakoitzak daukana baiño geiago eskatzea alpertsurik izan oi da geientsuenetan edo beti. Denok ez baigera jakinduriz mailla berdiñekoak. Beraz, goazen aurrera, papera bete bitartean, bururatzen diran gertakariak idatziz.

1997-garren urteko uztailaren azken egunetako batean, arratsalde, etorri ziran Eibartik Oriora Uztapide zanaren lagunak izandakoak, eta nereak ere bai denboran berean.

Utsa aiñako poza eman zidaten, garbiro aitortzekotan, eta naiago nuke nola ordaindu baneki. Bixita anaikor ura ixtimatu nuen benetan. Orioko *Loretxu* jatetxean alkartu giñan zorionez, eta aspaldiko partez bi ordu pasako genituen gutxi gora-beera kontu kontari. Ala ere etzitzaigun almazenik ustü.

Lau gizon adiñez ongi jantzitakoak ziran aipatzen ditudanak, eta beraietako bat oso ezaguna Euskal Errian: Felix Aranzabal, Angiozarko Itxua, soiñu-jotzaille ospetsu uraxe. Irurogei ta amazortzi urte omen dauzka, baiña oraindik gizon dotorea dago, itxuraz beintzat, leen ere alaxe zan da.

Nik neronek leenengo aldiz Zarauzko *Zinema pelotalekuan* ikusi nuen soiñu jotzen Felix Aranzabal. Entzutera joan giñanak gozatu ederra artu gen-

duen igande-arratsalde artan. Jaialdi garrantzitsua antolatu zuten zarauztarrak, egun seiñalatuan gaiñera zerbaiten motiboz. Baiña nik une ontan ez daukat gogoan zergatik eta nola, seguru esan aal izateko.

Dana dala, Uztapide ta Basarri ere antxe jardun ziran bertsotan dotore asko. Sasoi betea zeukaten garai artan, batek bezela besteak. Bikote bikaiña.

Txandaka jartzen zituzten lanean. Leenengo, Angiozarko Itxuari entzun genizkion fandango zoragarriak. Pianozko auspo-soiñu aundi bat erabiltzen zuen, ederki manejatuz. Zarauzko *Zinema* pelotalekuan jendeari tristurak kendu zizkiola uste det. Ango txalo-otsak etziran txantxetakoak, leenengo zatia bukatu zuenean batez ere.

Eta segidan bertsolarien txanda. Basarrik eman zion saioari asiera, ta Uztapidek jarraitu, amar-amabina bertso osatu arte.

Gero berriro Felix Itxua jarri zuten bigarren aldiz lanean. Etzeukan beatzetako nagitasun aundirik. Ura zan zoramena ta auspo-soiñuari itzegin arazitzeke modua! Pertsona serio askoak ikusi nituen nik jarlekuetatik altxa ta txalo-zartada galantak jotzen pozaren pozez.

Musika gauza aberatsa da benetan. Nik neronek ezin nezake ulertu bear dan bezela, solfeorik ikasi ez nuelako. Baiña belarriz bereizten ditut ona eta txarra zer diran gutxi gora-beera. Soiñu-jole batetik bestera dagoen aldea izugarri nabarmena ote dan iduritu izan zaidala esan nai nuke onekin, iñori ezer kendu gabe alegia.

Prestakizunari ere begiratu bear genioke. Dendetak ez baidute punta-puntakoa erabiltzen. Egunero faubrikan lan egiñez bizi dan gizon batek ez dauka nai aiña denbora libre arrapatzerik soiñuare-

kin entrenatzeko ta erreztasunez ongi osatu aal izateko.

Dana dala, Zarauzko jaialdi zoragarri artan, Felix Itxuak bigarrenengo zatiari bukaera noiz emango zai zeuden bertsolariak kantari asteko, ta bota zituen bakoitzak bereak. Entzule jendearen egarria ongi aseta geratu zala uste det *Zinema* pelotalekuan.

Leenengo bertso-saioan baiño parre-algara gozoagoak entzuten ziran azkenekoan. Biziago ta zorrotzago jardun nunbait kantuan biak ere, ta bete-betea asmatu.

Basarri asi zitzaion eztenkadak ematen, eta Uztapidek uraxe nai ziri legorrak sartzeko. Ortan artista utsa genduen, bertsolari ederra izatez aparte, Manuel Olaizola, Uztapide zana. Gutxi ezagutu diran bezelakoa.

Katua xaguaren goardian nola egoten da deskuidoaz arrapatzeko? Zai-era berean egon oi zan Uztapide ere, belarriak eta burua erne asko zituela, arrazoi bakoitzari zegokion erantzuna emateko azkar bezin egoki, pentsatzen denborarik galdu gabe.

Euskal Erriko bertsozaleeri gozamen pranko emandako gizona, ta iñoiz aaztu ezin leikena gaiñera izango dala derizkiot Uztapide.

Donostiko *Bodegón Alejandro*

BETIKO antzera, egun batez, Donostiko *Victoria Eugenia* antzoki dotore sonatuan jaialdi bat antolatu zutenez, guri bertso-tara deitu ziguten; eta Uztapide zana ta biok joan giñan bertara, eguerdiko pesta ta bertso-saio bakarra gendukala jakiñean.

Baiña, igandea izanik, eta azkeneko orduan presaka iritxi eziñez ibili gabe, goizetik artu genduen Donostirako bidea.

Parte Zaarrean *Bodegón Alejandro* izeneko ostatu zoko artan baizegoen gure lagunik ixtimatuene-tako bat, Martin Berasategi, neri sekulan aaztuko etzaidan gizona. Urrestillako seme jatorra bere izatez, eta kinto-laguna nuen gaiñera. Aspaldi samar illa da gizarajo ura. Bertsolari denak edo geientsue-nak beintzat maite zituen benetan. Ori ongi baiño obeki ere badakigu.

Donostin, leenengo, arategia jarri zuen, solda-dutza bukatu ondoren, opizioz arakiña izanik; eta geroago, berriz, pentsamentuz aldatuta, *Alejandro* izeneko bodegoia artu bere gain bizimodurako, ta antxe asmatu zuela sarritan entzun genion Martin Berasategi zanari. Ez det uste gezurra esaten jardungo zitzaigunik. Gizon ura zuzen aparta baizan, guretzat batez ere.

Baiña bertsolariekin ezer gutxi irabaziko zuela-koan nago. Galdu geiago, seguru asko. Guk ematen genituen propinak gastatzeko etzuen denbora asko-rik bearko. Lagun galesti samarrak zeuzkan. Beti

artzea bakarrik ez da legezkoa. Gauza bakoitza ordaindu ezker, lasaiago geratzen da pertsona berrizko ere. Baiña Martiñen jokabideak orrelaxe ziran, eta bere andrearenak zer esanik ez. Erdi prezioan, jatekoz bezela edariz asetzen ginduzten etxe artan.

Atal onen asieran aipatu det Donostiko *Victoria Eugenia*-ko jaialdiaren kontua. Ara bertso-tara joan aurretik, Bodegoian amaiketako ederra egin genduen, eta bertako nagusia zan Martin Berasategik onela esan zigun:

– Bertso-lanak bukatzen dituzuten garaian, gure etxera etorri zaitezte mesedez, zuentzat bazkaria prest egongo da ta.

– Arrazoi txarragorik iñork ematen ez badigu, ez degu egun aldrebasa pasako gaurkoa ere –erantzun genion –nola ez?–, borondate ura zeukan gizon prestu ari.

Alaxe, antzokian bi bertso-saio jarri zizkiguten. Dantzari-taldeak ere baziran; eta, alkarri txanda eman bearrez, dexente luzatu zitzaigun jaialdia azkenerrako.

Baiña bukatu ta bereala, antxe giñan Bodegoian berriro, ta bagenduzkan aingeru politak zai ordurako, bertsoz sekulan aspertzen etziran oieta-koak. Bai gizon osatuak ere denbora berean; ongi edukatutako jende leiala. Poz aundia ematen zuen aiekin itzegiteak. Bazkaldu bitartean, kontu kontarri ixildu gabeko erretolikan, baiña xuabe ta gozo.

Gizon zaar bat bagenduen errejimen estu samarra zeukana, medikutan zebillena. Petxuko anjinak omen zituen eta edaria kontuz erabiltzeko ordena artua zegoena; ta edateko oitura beti izan zuela, baiña ezurretaraiño beldurra sartu ziola medikuak esan zuen. Eta Uztapidek onela erantzun zion:

– Nik ere baditut petxuko anjinak; baiña ardo ona gaur emen bezela aurrean jartzen didatenean,

ez det medikuaren agindurik errespetatzen, geiegi beintzat. Neurritz kanpora edan ezean, pertsona zaar-rak bizigarri pixka bat oso bearrezkoa duenez, artu zenezake lasai jatekoarekin batera. Noizean beingo-ak ez du kalterik, eta zure medikua ez dakit nor dan; baiña neri tratamentua ematen jarduten danak, bein ere ez dit esan ardorik ez edateko. Aal danik gutxiena erabiltzen det etxean, ori bai, badaez-bada ere.

Alaxe, ederki bazkaldu ta kafeak eraman zizki-guten, eta uiski kopatxoak ere bai, ta orduantxe kontentu gure lagun zaarra.

- Au biotzerako ona omen da, Uztapide -zion berak.

- Dudarik gabe. Bestela nik ez nuen artuko -orixe izan zan Uztapideren erantzuna.

Ta:

- Bertso batzuk kantatu bear dizkiagu, Lasarte. Asi adi mesedez, bazkari onek merezi duen bezela.

Laixter ekin genion, ba, kantu-lanari; ta gero ixiltzen kostatzen. Baiña asmatu genduen artan ere, iñor aspertu baiño leen, eta bapo.

Ongi pasatako egunak ez dira errez aaztutzen, nere ustez beintzat. Orain utsa...

Erdibidea, Kaxiano itxua eta abar

AURTEN ezin deguna urrengo urterako utzi ta segi aurrera. Uztapide zanaren esaera zan au. Bizitza baikorra eraman zuen gizon burutsu bat bilatzen nuen nik ura. Bere izakeraz sekulan damutu zanik ez nion entzun, deskuido ez ere. Beti geroko itxaropen ona ikusten zitzaion, eta orrek asko laguntzen du, estuasunetan ez-zez, lasaialdi bazuetan ere.

Emen pertsona juxtuegiak ez du asmatzen nai bezela bizitzen, barruak agintzen ez diolako agian; eta lasaiak, berriz, arduragabekeriz galdu lezazke bere etorkizun denak. Beraz, erdibidea dago aurkitu bearra nola edo ala. Ain erreza ez dan arren, saiatu beintzat, badaezbada ere.

- Zer ote da erdibide ori? -galdetu zenezake zuk, irakurle jatorra zeran orrek.

Nere iritziz, esango dizudan auxe: bakoitzak bere irabazia eta gastua neurtzen jakitea.

Uztapide bertsolariak ortan zekien zuzentasun aundiz jokutzen. Alegia, irabazi baiño gutxiago gastatuz ibiltzen. Baiña bere parte ordainduz. Ez beste inori ezer kendu ta artaz baliatzen.

Lagunarteko gora-beeretan sartzen bagera, gizon atsegin aparta zala esango det nik, batere kezkarik gabe gaiñera, lasai gelditzeko moduan kontzientziz. Alkar ongi ezagutu baigenduen zorionez.

Guk pasatako egunak eta gau zoragarri aiek gogoratzen zaizkidan bakoitzean, Uztapiderekin pentsatzen jartzen naiz nere kasa.

Gu bertsolari gisara alegindu giñan Euskal Erria serbitzen aal zaneraño; eta nik neronek beintzat ez det penarik sentitzen.

Bertsolaritzari eskerrak eman nai nizkioke, orren bitartez ainbat zoko ikustera iritxi geralako. Bestela sekulan ezagutuko ez genituen erri, baillara ta pertsona-klase asko erakutsi baidizkigu. Pausoz pauso eraman gaitu Euskal Erri osoaren punta batetik bestera, poliki-poliki lana galanki eragiñez, baiña ez gorrotoz, maitasunez baizik. Orixe izan da gure jokabide bakarra ta ixtimatuena, iñungo zalan-tza naasturik gabe.

Manuel Olaizola Uztapide zanaren baimena eskuetan baneuka bezela ari naiz une ontan bion ize-nean idazten, pozik gaiñera, nere tokian balego berak berdintsu egingo lukela jakiñik.

Egun batez parre algara gozotan jarri zuen gure Uztapide, Lizartzan bizi dan Kaxiano itxuak. Erri txikiren bateko gertaera kontatu baizigun Kaxiano soiñujotzaille ospetsuak. Baiña geroxeago bukatuko det ixtori au. Orain, lenengo, beste gauza batzuk dauzkat esan bearrak, gizon berari buruzkoak.

Nik uste izaten nuen Kaxiano itxua Lizartzan bertako semea zala; baiña oker nengoen, adibidez edo argibidez. Bakoitzak nai duen bezela ulertu dezan, bi modutara idatzita geratzen da paperean, eta goazen aurrera pixkanaka.

1997-garren urteko abuztuaren azken egunetako batean, gutxi gora-beera, lau gizon presturekin itzegiteko egokiera eduki nuen emen, Orion. Beraiek inguratu zitzaizkidan ni nengoen tokira, ta denbora gutxian kontu zaar asko berritu genituen.

– Kaixo, arratsaldeon, Lasarte! Giroa al dago egonean?

– Bai. Sarritan ez-ezik, ala dirudi -erantzun nioten. Eta:

– Ezagutzen al gaituzu gu? –urrengo galdera.

– Aurpegiz bai, baiña ezin naiz jantzi, seguru esateko moduan, une ontan, nungotarrak zeraten.

– Antzuolakoak gera, Lasarte. Zu gure errian izan ziñan Basarrirekin bertsoan, orain dala berrogei ta amar urte.

– Bai, noski. Ta Uztapiderekin ere bai bein baiño geiagotan. Eta azkeneko aldiz, berriz, Xabier Amuriza, Lazkao-Txiki ta oiek lagun nituela, kanta-tu nuen Antzuolan gau batez. Onezkero amaika edo amabi urte badira. Gutxi gora-beera diot.

Au entzun zuenean, batek esan zion besteari:

– Ikusten al dek, i, nola gogoratzen dan Lasarte?

Orrelaxe pasa genduen denboralditxo bat, kontu kontari, gustora. Zaar jendearen bixitak izugarrizko poza ematen didate.

Dana dala, gero osatzekotan utzi dedan Kaxianoren ixtorira itzuli nadin, badu bere garrantzia ta.

Ez dakit zein erritan, baiña gu, Uztapide ta biok, bertsoara joan omen giñan; eta Kaxiano bezperan, larunbatez, urrengo eguna igandea izanik. Elizan meza nagusia ospatzeko organista falta ta Kaxianori esan omen zioten ea organoa joko ote zuen. Baietz, alegiña egingo zuela. Eta:

– Goizean, leenengo, pasakaillea deitzen zaion ori izan diagu, eta ondoren meza nagusia jo bear, da an jardun nauk. Esan nian ostatuan, eta or baztarran dagoen Lasarte bertsolari orrek onela galdetu zitxan parrez: “Meza nagusia jo egiten al dezu zuk, Kaxiano?”

Añorga

GAUR Añorgari begira sentitzen ditut nere begiak, ataltxo au osatu aal izateko.

Erririk erri zerbaiten billa ibili giñan leen urte-mordoska aundi samarrean, eta oraingoz ere alaxe nabil ni neroni beintzat: nun aurkitu ote nezake nik nai dedana, ongi ezaguturik daukadan baratza loretsu dotore jantzitako artantxe.

Ori gogoratu zaidan garai berean aukeratu det Añorga idazlanerako. Ainbat egun gozo pasata gauden txoko maitagarri ura ez ote da aipatzea merezi duena? Nere iritziz bai noski.

Jaialdi askotan artu genduen parte bertan Uztapide, Xalbador, Mattin, Basarri, Joxe Lizaso, Joxe Agirre, Lazkao-Txiki, ni, Lasarte, eta emen izentatzen ditudan beste bi auek, Lopategi ta Azpillaga. Juxtuan gogoratu zaizkit.

Eta aaztuta ere utziko nituen bakarren batzuk agian. Orixe gertatzen da aspaldiko kontu zaarrak idazterakoan. Beraz, barkatu dezaidatela gaiñontzeko bertsolariak, utsegiterik egin baldin badet beraienkin. Ez nuke gaizki artzerik nai iñolako moduz. Añorgan, dakitenak egongo dira gaur oraindik nortzu ziran, gu ibiltzen giñan garaian, an kantatzen zuten bertsolariak, gutaz aparte alegia.

Euxebio Igartzabal ere izan zan. Beingo batez ikusi nuela Añorgan kantari une ontan bururatu zait. Eta ortik aparte, berriz, bertsolari gazteentzat

txapelketak ere antolatzen zituzten tarteka añorgatarrak.

Bertsolaritzari gogotsu lagundu izan diotela badakigu. Arreta eta zaletasuna, biak dira bearrezkoak ortarako ere. Bestela ez legoke zer egiñik.

Gaur ez dakit nola dabilzan ango pestak. Baiña leen indar aundikoak ziran. Alde askotako eza-gunak ikusten genituen, bertara joaten giñan bakoitzean. Entzule onak, beti edo aukera zegoen guztian bertsoaren inguruan zebiltzanak, iñork beartu gabe, beraien kasa.

Ta orixe dala esango nuke gauzarik onena bertsoa baloratu aal izateko. Orrek ere baditu bere sekreto batzuk, ezkutuan gordetzen diranak eta antzematen oso zaillak, bein bakarrik entzunda beintzat: egitura, joskera, itzak erabiltzeko modua ta abar.

Den-denak ezin esango ditut batera. Bestela, nere pentsamentuen berri nik aiña jakingo baidu ala nai ez lukenak agian, eta lastimagarria litzake dudan norbait jarri arazitzea.

Dana dala, jarrai dezaiogun aurrerako bideari.

Gure gai-jartzaille ta zuzendari Joxe Mari Aranalde izan oi zan Añorgako pestetan, beste jaialdi askotan bezelaxe. Izketan gozoa ta patxada ederreko gizona da Joxe Mari Aranalde.

Bertsoa ezagutzeko ere motiborik aski baduela esanda asmatuko nuke noski. Larre ortatik ugari antzean janez bizitu baida aspaldiko urteetan. Beraz, garbiro adierazten det nortsu degun gure adiskide Aranalde, bertsozale purrukatua eta bertsolaritza goiko maillan jartzen aalegindu dana.

Utsaren truke gaiñera, sarritan beintzat, nik entzuera dedanez. Gustoko lanean nekez aspertzen nunbait. Ori gertatuko zitzaion seguru asko.

Egun batez lau bertsolari bildu giñan Añorgako zine-saloian. Ez da aundi aietakoa berez; baiña oso polita. Jendez leporaiño beteta ikusten genduen geientsuenetan edo beti, ta ederki ematen zuena ala zegoenetan. Leku aundiak erdi utsik baiño obeki.

Ara emen aipatu ditudan lau bertsolarien ize-nak: Uztapide, Basarri, Xalbador eta ni, Lasarte. Modu askotara jarrita zeuzkan gaiak Aranaldek: binaka, bakarka, puntutan laurok txandaka eta abar. Doiñuak, berriz, zortziko aundia eta txikia erabili genituen, garai aietan oitura gendukan bezela.

Ta gai librean ere kantatu arazi zigun. Ni oker ez banago, laurok batera jardun giñalakoa nago. Seguru antzean, umorezko bertsoak saio artantxe entzungo zituen jendeak.

Basarri asi zan leenengo indartsu ta bizi. Bigarren, Uztapide. Irugarren, Xalbador. Eta, laugarren-goia ni nintzanez, ekin genion alkarri eztenkada batzuk ematen, baiña ez gorrotoz edo txarkeriz, entzule askok uraxe naiko zutela jakiñik aien gustoko zerbait esan naiean baizik.

Ez dakit nolako bertsoak irten zitzaizkigun. Baiña Uztapideren orduko ateraldi zelebren batez gogoratzen naiz.

Oraindik ere tiki-taka bero-bero ari giñala, Basarrik onoko itz auen bidez bukatu zuen bere bertsoa, gutxi gora-beera:

– Mutillak, oraintxe buruko miña eragin didazute.

Eta Uztapidek, urrengo kantatu bear zuenez, onela erantzun zion:

– Buru aundi ori dana miñez jartzen bazaik, egun ederra daukak gizarajo orrek gaur ere.

Parrandako afana

PARANDARAKO afanak den-denak izaten dutenik ez nuke esango ao betean; baiña geientsuenak bai. Gaztetan edo sasoiatsu dagoen bitartean batez ere, zenbat astakeri egiten diran bearrik gabe norberak ez du ulertzen lautatik irutan. Gorputzari erasaten zaionean konturatzen da gaizki dijoazkiola gauzak, eta aldakuntzaren premian aurkitzen du bere burua.

Egunezko parranda txarra baldin bada, gauezkoa zer izango ote da? Lo gozoa galdu, zurrutez eta tabakoz erdi kixkali, ta segi antxe baztarrak naastutzen zalapartaka, kaltegarritzko bideari elduta, osasunaren aurka ta dirua alperrik gastatzen, ezeren probetxu tajuzkorik gabe. Jokaera eskasa da ori benetan.

Ala ere, noizean beingoa izanik, gaitz erdi. Egunez egun jarraitzeko txarra ta penagarri utsa, nere ustez beintzat. Gizon parranderoaren etxean beste norbaitek supritzen omen du sarritan. Baiña askatasun pixka bat komeni zaio, ba, lanetik bizi dan pertsonari. Den-dena ezin litzaioke kendu edo ukatu.

Emen, Orion, bazan, adibidez, gizonezko bat, parranda egin da gero damutzen zitzaiona. Baiña oitura artu beingoz artarakoxe, ta ezin utzi iñolako moduz.

- Larunbatetik astelen goizera bitarteko orduak kartzelan sartu ta pasa araziko balizkigute, obe

gendukela pentsatzen det nik –esaten zuela entzun-
da nago bein da bi aldiz baiño geiagotan.

Jakiña, larunbat-illunabarretan astea osatzean faubrikatik kanpora irten da libre sentitzen, eta os-
tatuz ostatu ortxe bere lagunekin batera, denbora
ta loa biak alperrik galtzen. Baiña gustora, ordea.

Tripa-zorroa ongi berotutakoan, erretira etxe
aldera. Ta biaramonean berriro igandea, ta jai ura
ere. Nola ez?

Goizean, oetik jeikitzerako, lo ederrez ase lee-
nengo, ta gosaldu. Gero elizara joan, meza entzun
eta berriro ostatura, presaka bezela, kalderari bero-
garria ematera, oztu baiño leentxeago edo bezpera
-gauean piztutako sua itzali etzedin. Orrelaxe pasa-
tzen omen zuen igandea ere.

Ta astelenean kontu serioak noski. Goizeko or-
duak oso astunak lantokian, damutzeko modukoak
gure gizonarentzat.

Etzan, ordea, ura bakarrik izango. Beste batzuk
ere ibiliko ziran aren antzera.

Emen, neurria zaintzen ez bada, ez dago zer
egitiñik. Lagunarteko gozamenak engaiñagarri utsak
dirala jakiñaren gaiñean gaudenez, ez gaitu ezerk
arritzen.

Parranda-kontuan batez ere baditugu oroipen
politak geronek ere. Ortarako, bertsolaritza aitzaki-
rik onentxoenetako bat billatu izan genduen batere
zalantzarik gabe, ta iñoiz etzitzaigun damutu gaiñe-
ra, egindako parrandak egin arren.

Bestela zer gendukan? Oilloa bezela aztarrika
beti lanean jardun bearra, ta ori ere gauza motza
juzkatzen det pertsonaren bizitzarako. Uztapide za-
nak zenbat bider esan ote zidan:

– Ik lanarekin bakarrik pentsatzen dek, Lasar-
te. Baiña oso oker ago. Ortan ez dek ezer aurreratu-
ko.

Arrazoi ikaragarria, nere jokabidez eta geroko etorkizunez ongi konturatua emana, naiz eta nik sinistu ez garai artan.

Uztapidek bazekien dotore ta xuabe itzegiten, gustoko lagunartean zegoenetan batez ere. Berari entzuten jendea nekez aspertuko zan. Ao zabalik egon oi ziran inguruan zeudenak.

Egun batez, Goierri aldean giñan bertsotan. Nun esateko ez naiz gogoratzen une ontan seguru. Baiña gauerako bertan gelditu arazi ginduzten, eta poz aundia artu genduen gaiñera. Egiz diot au.

Erri artan bertsolariak gutxitan kantatzen omen zuten. Urteko jai nagusietan bakarrik. Guk jendeak esandakoa dakigu; besterik ez.

Dana dala, gauean mendiko artzaiak eta base-rritarrak bildu zitzaizkigun, kaletar asko bezelaxe, afaltzera; ta an ziran erriko pestak, gu bertsotan asi giñanetik aurrera.

Ura zan umore zoragarria. Egunezko bertso-saiorik entzun etzutenak, afalondokoak ixtimatu zizkiguten benetan. Gaizki kantatzen genduenik inork etzigun esaten, eta guk geronek ere ez genduen pentsatzen. Tarteka ixildu orduko:

– Ori dek bertsotan egitea! Jo txalo!

Ta bateonbategen kopakoak eskatuko zizkion serbitzen zebillenari, ta bapo. Artantxe ari giñala, ordu txikietara iritxi; baiña auskalo zenbat kopakada patar edanda. Jendeak etzuen ipurdiko otzik eramango etxe aldera.

Guk Uztapide ta biok, goizeko ordubietan agurtu genituen ostatuko bertsozale denak; eta, oera joateko asmoz, galdetu genion ostatuko nagusiari ea lo egiteko tokia nun gendukan erakutsiko al zigun mesedez.

– Bai, segituan. Onezkero nekatuko ziñaten ederki, ta goazen –esan zuenean, aldemeneko etxe

batera eraman gaitu. Jo du bee-sarrerako atea. Ir-
ten da bertako gizona:

– Emen al zerate? Goazen gora.

Eskailera aldapatsuak, eta Uztapidek onela
dio:

– Exerita artu diagu karga. Orain jaso zak au!

Ernani

ERNANI erri euskaldun aparta izandakoa leen, bertsolaritzari zegokion maillan, guk kantatzen genduen garaian alegia. Oraingoz ez dakit nola jarraitzen duen.

Ango jendearen apizio sutsua agian baliteke pixkaren bat aldaturik egotea ere. Erri aundietan iñoiz gertatu baidira orrelako kasoak. Baiña zailla izango dala derizkiot Ernanin bertsoarenganako maitasuna galtzea, euskerak bizirik irauten baldin badu beintzat.

Ni neroni, kanturako gauza ez naizenez, iñora joateko moduan ez nago, ta etxeko sukaldetik laguntzen diot gure izkuntzari zerbait idatziz eta abar, aal dan neurrian. Geiago eskatzea alperrik da ezin duenari. Irakurle, zuk ulertuko dezu orrenbeste seguru asko, garbiro esaten badizut nere pasadizoa.

Guk erri ixtimatuak asko izan ditugu bertsotarako, ta Ernani aietako bat. Dударik gabe diot au, eta Uztapidek ere iritzi berbera emango luke, gaur bizirik balego.

Bertsolaria beti pozik joaten da entzule onak dauden tokira. An billatzen baidu izketarako konfiantza osoa. Berealaxe antzematen zaio jendeak zertsu nai duen. Iru edo lau bertso kantatzerako bai. Baiña burua argi ta belarriak erne eduki bear dira ortarako, ta batzuetan deskuidatzen ere erreza dala badakigu.

Ogi biguna baiño gai obeagoa aoko zuloan sartu ta ari zumorik atera gabe gelditu izan gera tarteka. Zer adierazten du orrek? Gizonaren tenplea izugarri aldakorra dala, umorezko lan-klase batzuetan beintzat.

Gorputzak aldi txarra edo triste daukanean, bertsolariak iñork uste lezaken baiño geiago supritzen du; eta, disimulatzen aalegindu arren, bera nabarmendu oi da. Izketan gai-jartzailleak gauza bat esan da bertsolariak ura gogoan artzen ez badu, gaizki ibiliko da, gaiari dagokion erantzuna ematen.

Iñoiz gertatu izan dira orrelako deskuido mingarriak. Lagunarterako ez du ainbesteko garrantzirik. Baiña ostatu barrutik plazara salto aundia dago. Plazan seriotasunez edo pikardi pixka baten bidez jartzen du pesta bertsolariak.

Ernanin apizio izugarrizkoa billatzen zan, gure gazte denboran ez-ezik, gerora ere, bertso-kontuan. Errian bertan bezela baillaretan gaiñera: Ereñozun, Ollalumen eta abar. Den-denak gogoan ezin leizke eduki. Zikuñaga, Portu ta aietan ere kantatu izan degu prankotan, eta nun ez, ortara bagoaz?

Bertso-saio asko ta asko aaztuta dauzkadala, orrek ematen dit pena paperean idazterakoan. Baiña beti sortzen da zerbait, barrua miatzen saiatu ezkerero.

Ernanin bada baserri bikain bat, Arriatzu edo Arriatxu bi auetakoren bat izena duena. Urte bana-ka batzuetan izan giñan an ere bertsoan Uztapide zana ta biok.

Baserrian bertakoak eta ezkondu ta kanpoan bizi ziran denak bildu ta egun pasa egin oi zuten alkartasun ederrean udazken aldera. Zein egunetan, orixe ez daukat gogoan. Baiña umoretsu ta dotore pasatzen genduen eguerditik illunabarrera bitartekoa.

Guretzat oso famili atsegiña zan uraxe bera ere. Eskertzea merezi lukena. Nik neronek ezin nezake aaztu ta baztarrean utzi gureganako biotz ona erakutsi duenik.

Dana dala, au bere ontan geratzen da, Ernani-ko beste gertakari bat idatzi dezadan.

Tratanteak, Inaxio Setien eta Enpurru, biak sozio ibili omen ziran ganadu-tratuan urte-mordoska aundi samarrean. Esne-beiak erabiltzen zituzten. Torrelavega-n erosi ta kamionetan ekarri, eta gero emen inguru peri-plazetan saldu.

Inaxio Setien au Ernanin Zinkonea izena zuen ostatu sonatuko nagusia zan. Gizon-pusketa galanta. Peria astero egin oi zan Ernanin ostegunetan; baiña ganaduak ukuilluan edukitzen zituzten aipatu ditudan tratante auek, eta bertatik saldu.

Nik beingo batez ekarri nuen bei ona an erosita. Ukuilluan zeuzkaten dozenaren bat edo geiago, ta nai zan klasekoak. Alaxe, nere begien gustokoa iduritu zitzaidana aukeratu ta esan nion:

– Inaxio, aure eramango nuke, konpontzen bagera. Zenbat diru balio du?

– Ogei ta bat milla pezta –erantzun zidan–. Eta, ez badezu ona ikusten, ekarri beia. Beste bat eman-go dizugu.

– Bueno, tratua egiña dago.

Orduan morroiari esan zion:

– Sartu zak kamionera bei ori, Lasarteren etxera joan gaitezen.

– Aizu; baiña noiz ordaindu bear dizudan jakin nai det.

– Datorren ostegunean zortzi. Ongi al datorkizu?

– Bai, noski. Konforme.

– Bazkaria gure kontura daukazu Zinkonean.

Egun artan lasai agertu, Lasarte.

Alaxe, sartu naiz ostatura presaka, ta nun ikusten dedan Uztapide. Beia erosi ta ordaintzera joana izaki ura ere, ta an zeuden Inaxio ta Enpurru.

Nik eman nizkion diruak. Kontatu ditu Enpurruk, baiña milla pezta gutxiago.

– Oiek askotan kontatuak daude ta or ez da dirurik falta –esan nion Enpurruri.

Ta, ori entzunik, Uztapidek onela dio:

– Gure etxean ez dituk askotan kontatzen orrenbeste milla peztako batera.

Ateraldi dotorea benetan; baiña bigarren aldian ogei ta bat milla pezta juxtu-juxtuan antxe billatu zituen Enpurruk, eta denok kontentu.

Mutriku

MUTRIKU aldeko istori zaarretaz mintzatu nai nuke, Uztapide zanari eskeintzen diodan ataltxo ontan. Gauza garrantzitsurik ez bada ere, norbaitek ixtimatu lezazke agian idazten ditudan pasadizo batzuk.

Mutrikun pozik kantari jardundako semea naiz ni, iñoiz errian bertan ere, ta Kalbario deitzen genion baillara polit artan berriz geiagotan. Ez dira oraingoxe kontuak. Leenengo aldiz Uztapiderekin joan nintzan Kalbariora bertsotara; baiña oso gazterik.

Dana dala, gai au geroxeago erabiliko det, orain bestelako iritziak emateko modu egokian bainago, ta ortaraxe nijoa poliki-poliki.

Mutriku arrantzale-erri jator bat iduritu izan zait neri. Jende sanoz osatua, itz gutxitan adierazteko. Itxas-gizonak langintza astuna ta arrixkutsua darabilkite, azken aldiko urte auetan batez ere. Orrekin ez nuke esan nai beste tokietan segurantzi osoak daudenik eta denak zoriontsu diranik. Alde guztietan eman oi ditu bizinaiak larritasun estuak.

Baiña arrantzale askoren kezka auxe dala uste det: itxasoa antzutuko ote dan. Arraia urritu, alegia. Ta, ori gertatuko balitz, komeri latzak ikusi bearko genituzke.

Aspaldiko esaera da munduaren erdia itxasoak mantentzen duela, ta ez dirudi gezurra izan litekenik, arrandegietara begiratzen baldin badegu.

Batzuek diotenez, aragia baiño geiago saltzen omen da arraia, oraingoz beintzat. Janari gozoagoa edo zerbait edukiko du guk ez dakiguna.

Udaran, kosta aldeko erri auetan, ostatuetako braseroak berotualdi ederrak artzen dituzte. Kanpotik datorren jendeari parrillan erretako arraia edo aragia gustatzen zaizkiola esan naiko du orrek dudarik gabe, ta gaur aukeran dago zer jana, klase denetatik ere, gastuak bildurtzen ez duenarentzat.

Nik emen Orion bertako martxa ikusten det, eta Mutrikun berdin samarra billatuko litzakelakotan nago. Arrantzale-erria baida ura ere, bete-beteko, auskalo noiztik gaiñera. Dana dala, ataltxo onen asieran aipatzen dedanera itzuliko naiz berriro.

Mutrikun ezagun asko genituen leengo zaarretakoak, nekazariak eta abar. Lanean ere jardun giñan an baserri konfiantzazko batean, Kalbario bailaran, denboraldi luze samarrean gaiñera, gauduentzat moda berriko ukuillua antolatzen. Mutrikuko Maixa izeneko baserrian, ain juxtu ere.

Baiña aspaldiko kontua da diodan au. Zenbat urte diran ezin nezake seguru esan, eta dudako gauzak ez nituzke paperean idatzi nai, badaezbada ere.

Gu an lanean ari giñala, negua zanez, arrantza-leak paseatzen ibili oi ziran kamioan gora ta beera lasai asko. Udaberriko antxoaren kostera asi bitartean iñorako presarik ez baizeukaten, eta bapo. Eguraldi ona zegoenetan uraxe aprobetxatu, kanpoko aize sanoa gorputzaren osasungarri biurtu zedin. Orrela ikusten genituen itxas-gizonak patxada ederean.

Mutriku neri asko gustatzen zitzaidan erria zan leen. Ez dakit zergatik, baiña banion esplikaziorik billatzen ez diodan zerbait.

Leenengo aldiz Kalbarioko ermitaren ondoan Uztapide zanarekin bertsoan jardun nintzan une gozo ura sekulan etzait aaztutzen. Ilusio paregabea ta poza, biak batera sentitzen nituen. Uztapidek zeukan talentua ta nik neukan zaletasuna berdintsuak ote ziran errezelotan nago bertsoarako.

Geroztik urte asko igaro zaizkigun arren, ordu-ra bitartekoak kontatzen ez dira zaillak, nereak beintzat. Emeretzi edo ogei urte edukiko nituen geienaz ere. Soldadutzara joan aurreko kontua zan.

Garai artan bai parrandarako gogoia. Gaur zer? Ezer ez, tristura besterik. Buelta ederra eman du gure mundu ontako bizitzak.

Mutrikuko Maixa baserrian ostatua jarri zuten, eta bazan antxe jendea ta lana ugari. Gu, Uztapide ta biok, gauerako bertan gelditu giñan, gustora gaiñera. Nola ez? Bertso-saio pranko egin genituen. Bearko, jendearen eskeari erantzungo bazitzaion.

Trikitilari edo soiñu-jotzailleak ere etzuten atsedenaldirik artu, gazte asko bildu ziranez. Denak dantzari egin nai ta ura anka-otsa! Zurezko solairua zegoen, eta pipi-autsak kendu izango zizkioleta pentsatzen det ederki, zorioneko gau umoretsu artan.

Guk biaramon-goizean autobusaren gaiñera igo bear izan genduen, barruan tokirik etzegoelako, eta dotore antzean ibili giñan, teillatu-gaillurrean usoak bezela, Debara iritxi arte. Gero nik an etxerako tren artu nuen; baiña Uztapidek ez.

Txapelketako estuasunak

TXAPELKETAKO estuasunak aipagarri nola ez? Larrialdi latzak pasatzen dira noski txapelketan. Nik neronek oso gutxi dakit langintza orren berri. Sekulan ez baidet parterik artu Euskal Erri guztiko txapelketa nagusietan.

Baiña bertso-saioak entzutera joaten nintzanez, an ikusitakoz gogoratzen naiz, eta Uztapide zanari zorionak bialdu nai nizkioke lurretik zerura, an la-saiago egongo dalakoan; eta bere nortasuna agertu dezadan, merezi duen neurrian, baiña beste iñori ezer kendu gabe. Beraz, orain unetxo batean bestelako iritzi batzuk idatzi ta geroago segituko det Uztapideri buruz izketan.

Txapelketak zer etorkizun dauka edo bearrezkoa al da? Au galdetzen dutenak ere badaude batzuk, eta nik ez dakit nola erantzun, segurantzi osoz beintzat. Baiña baiezkoan bezela nago une ontan.

Bertsolari gazteak ezagutu aal izateko modurik egokienetako bat orixe ote dan iduritzen zait. Erriak landare berriak ikusi naiko ditu aukeran, gero bere gustokoak nortzu diran jakin dezan. Ortarako balio-ko du txapelketak, nere ustez.

Leendik asko dabiltzan bertsolariak ongi ezaguturik daudenez, txapelketaren bearrik ez daukatela esango nuke, batere dudarik gabe. Baiña beroiek joan da probatu nai baldin badute, utzi dezaiegun pakean. Emen norberak daki zer komeni zaion, eta kito!

Gaur gaiari dagokion moldean antolatzen da bertsoa, eta orrek laguntza aundia du, bertsolari batzuentzat batez ere. Baiña gaiaren barruan ez badabilta kurpillak, akabo! Ardatza autsi edo bigurritu laister egingo da, ta orduantxe joko du baztarra.

Beraz, txapelketak buruko min asko eman lezazkela gogoan artu dezagun badaezbada ere.

Gaiak elduleku gutxikoak izaten dira batzuk, zugaitz gerri-soillak bezela. Baita ere adar ugariz jantzitakoak eta nun-naitik eltzeko modukoak diranak ere beste batzuk.

Baiña iñoiz gertatu oi da bertsolariak ez dituela gauzak ongi ulertu entzuterakoan, edo buruan etzaizkiola sartu; eta gero, konturatzen dan garaian, pentsatuko du: "Akats ikaragarria eduki diat, ta galdu dizkiat puntu-mordoska!"

Uste gabeko anka sartzeak nork ez ditu egiten? Denok deskuidatzen gerala badakigu tarteka.

Len aipatu det bertsolarako gaiak asko lagundu lezaiokela zenbait bertsolarik agertzen duen jokabideari, ta zergatik oraintxe esango det. Ikastoletan, umetatik asita, ortaraxe oitu diralako.

Gai librean kantatzen ere ikastea ez legoke batiere gaizki. Oso polita da ta lagunarterako graziosoena. Orixe iduritu izan zaiote bertsozale askori.

Gure garaian orrela ikusi genituen gauzak. Baiña ez da derrigorrezkoa leengo oiturak bakarrik erabiltzea bertso gintzan. Eman denbora ta aukera, gazte argi oiek ea obeagorik asmatzen diguten.

Dana dala, berriro Uztapiderengana itzuli nadin. Egun batez gogoratzen naiz txapelketa nagusiz. Donostiko *Astoria* antzokian izan zala daukat buruan, 1962-garren urtean. Oker idazten badet, barkatu mesedez. Baiña Uztapidek leenengo aldiz txapela urte artan irabazi zuela uste det.

Ni neroni goizetik joan nintzan Donostira, beste bertso-entzule askoren antzera; ta an billatu nituen Uztapide ta bere lagunak, ostatu ezagun batean gosalitzen ari zirala. Gu, Uztapide ta biok, pare bat egun aurretik alkarrekin bertsoan nola jardun gihan, itzegin genduen eta bagenekigun nun bildu gosalteko garaian.

Alaxe, tripa-zorroko otzak kendu ta bagoaz Astoria aldera. Sarrerako txartelak Uztapidek artuta zeuzkanez, lasaitasun osoan barrura pasa ta aulkietan exeritzerakoan, esan zidan Uztapideren koiñadoak:

- Nik zure ondoan jarri nai nuke, Lasarte.
- Etorri, ba.

Ta ederki entzuten zan. Goizeko bertso-saioa bukatu bitartekoan, jendea ixil eta umil egon baidan. Gero bazkaldu ta arratsaldeko lanetan ekin zioten bertsolariak zorroztasunez.

Nik ere belarriak erne neuzkan. Baiña Uztapideren koiñadoak lo artu zuen nere aldemenean. Zurunkadaka sentitzen nuen; eta, esnatu orduko, onela galdetu zidan:

- Uztapide zer modutan ari da bertsoan, Lasarte?

- Oso ongi -erantzun nion.
- Ala ere estuasun ederra pasa det -zion berak.

Eta:

- Bai, noski. Bestela etzenduen orrelako lo gozorik egingo.

Orixe erantzun nion.

Zarautz

GAURKO nere lantxoaa osatu aal izateko, Zarautz aldera joko det, ainbat biderrez gogoratzen zaidan *Zinema* pelotalekura. Uztapide zanarekin batera kantatzen genduen an beste bertsolari batzuek eta nik beti ez bazan ere, geientsuenetan beintzat.

Basarri, Zarautzen bertan bizi zan arren, etziztaigun bertso-saio guztietara agertzen. Nik ez dakit zergatik, seguru esateko. Baiña igande-arratsaldeetan bazkaldu ta siesta tajuzkoa egitea gustatzen omen zitzaion, adibidez; eta baliteke motibo orixe izatea naikoa agian.

Egun batez, *Zinema*-ko ateondora inguratu giñan, barrura sartu ta kantari asi bearra gendukalako, Uztapide ta biok; eta an dijoakigu Basarri:

– Kaixo, jaunak! Etorri al zerate?

– Bai. Gu emen ibili gaituk. Salegiren ostatuan artu dizkiagu kafeak. I an egongo intzala uste genian.

– Ez. Siestatik oraintxe jeiki ta ezer edan gabe etorri nauk –esan zuen Basarrik.

Eta Uztapidek onela erantzun zion:

– Egon adi beti lotan. Azkenerako, perretxikoak ere oean bertan jaioko zaizkik iri.

Ori entzunik, parre-algara gozo askoa egin zuen, ba, Basarrik.

Uztapidek orrelakoxe ateraldi dotoreak zituen sarritan. Berak serio itxuran itzezin eta besteri pa-

rre eragin. Ara or bi gauza zelebren batera, alkarrekin ongi ezkontzen diranak. Baiña leenengo asmatzen jakin bear, ordea, ta orixe da lan zailla askorentzat.

Dana dala, gure garaiko bertsolarietan Zarauzko *Zinema* izeneko pelotaleku edo frontoi politean kantatu gabekoak oso gutxi izango zirala derizkiot. Alde askotako bertsolariak erabili izan dituzte diodan erri ortan, txandaka batzuk eta besteak.

Gu, ez dakit zergatik, baiña Uztapide ta biok kontuan artzen ginduzten jai-eratzailleak. Aldiko lau bertsolari edo bestela sei alkartzen giñan. Gai-jartzailereren bat ere beti eramaten ziguten zuzendarri bezela, ta bapo. Bakoitzak aal zuena egin da segi aurrera.

Entzule jendearen gustoko txokoa zala pentsatzen egoten naiz ni, nere kasa, Zarauzko *Zinema* pelotalekua. Betekada galantak artua dala badakigu bolaratan.

Puntu egokian ere badago ta ortaz asko baliatzen dala dirudi Zarautzek, edozer gauzetarako ere. Bizkai aldeko bertsolariak ongi dakite orko berri, Euskal-Erri osokoak bezelaxe.

Zarautzen bertan bertsozale purrukatuak ugari antzean ezagutu genituen leen, eta gaur oraindik ere ala izaten jarraituko dutelakoan nago. Zergatik ez? Erri batek bere oiturak ez ditu goizetik gauera galtzen.

Iñurritzan San Pelaio jaiak ospatzen dira udaran, aundikiro gaiñera; ta bertsolaririk ez da falta. Gu sarritan jardunak gera kantari San Pelaio egunez. Ekainaren 26-garrena da, ni deskuidatu ez banaiz beintzat.

Jendetza ikaragarria ikusten genduen Iñurritzan, joaten giñan bakoitzean. Urte-garaia ere almoduzkoa. ta paseatzeko gogo nabarmena eduki-

tzen nunbait libre zegoen jendeak, eguraldi itxurazkoan batez ere. Ekainaren 26-an ez da arritzekoa giro ona izatea. Nik ala ezagutu det urterik geien-tsuenetan.

Santa Marina kalean ere pestak antolatzen zizuten. Santa Klaran edo Azkenportun berdin. Baiña otsik aundienekoak *Zinema* pelotalekuko jaialdi aiek ziran, nere ustez.

Egun batez gogoratzen naiz. Urtain zana boseatzen gogor zebillen garaiko kontua da idaztera nijotan au. Bertsolariak an ari giñan txandatur, binaka, bakarka ta abar, gai-jartzailleak agintzen zigun modura; ta alako batean onela dio gaiak ematen zizkigunak:

– Orain alkarrekin borrokan jarri bear ditugu Uztapide ta Lasarte. Datozela biak mikrofonora.

Jarlekutik altxa ta bagoaz bere ondora.

– Begira, jaunak: auxe dezute iruna bertso teman kantatzeko gaia. Biok boseolariak zerate. Zuen konbatea astera dijoa. Uztapide Urtain izango da; ta Lasarte, berriz, estranjeriko beltzetako bat. Ekin dezaiola leenengo Uztapidek lanari.

Bai ekin ere, pentsatzen denbora askorik alpe-rrik galdu gabe, zortziko txikian, tximixta baiño azkarrago esate baterako. Ta nik era berean erantzun bizitasunez.

Uztapideren bertso batean itz auek entzun nituen:

Arrapatzen bazaitu
nere ezker kakoak.

Gaiñontzekoak ez dauzkat gogoan, baiña etziran aldrebesak izango noski.

Nik emango dizkizut
San Jose loreak.

Au nere bertso baten azkeneko puntua zan. Ez dakit San Jose egunez giñan urte artan Zarautzen; baiña inguru samarrean bearko zuten gauzak. Ala dirudite.

Orioko lagunak

UZTAPIDEK lagun ondradu apal asko izan zituen emen Orion bertan ere, neronek ondo ezagutzen nituenak, Euskal Errian nun-nai bezelaxe. Bera ain jatorra izanik, errez asmatzen zuen izketan eta jendearekiko ar-emanetan.

Nik uste dedanez beintzat, sena aundiko gizona zan Manuel Olaizola, Endoiako Uztapide izeneko baserri ospetsuan jaio ta azitako seme eder au. Ez zitzaion falta iñoiz seriotasunik, eta umore onik ere denbora berean, naiz ta egun denak berdiñak ez diran arren.

Ataltxo onen asieran diodan bezela, Orion soldadu lagunak bazituela adierazi nai nioke erriari. Baiña penagarria da aietakorik iñor ez dagoela bizerik. Ezkutatu zitzaizkigun betiko gure begien aurretik, eta kito.

Egun batez, gogoratzen naiz gertakari politez. Astelena zan gaiñera; ta bezperan, igandez, bertso-tan jardun giñan. Zein erritan ezin zait bururatu une ontan. Baiña gauerako bertan geratu arazi ginduzten, eta biaramon-goizean norteko trena artu genduen, etxe aldera itzuli aal izateko.

Uztapidek esan zidan Donostin bazeukala enkarguren bat derrigor egin bearrekoa, ta biok bagoz trenetik jetxi ta kalean aurrera kontu kontari; ta an agertzen zaigu oriotar gizon atsegin bat, idiekin baso-lanean ibili oi zana ta aiek uztartzeko larruz eta bigungarriz dotore egindako kopetako berriak

Ernanin erosi ta eskutik zintzilik zituela, Uztapide-
ren soldadu laguna.

Alkar ikusi zuten garaian etziran asarre biak
ere. Ura gozamina ezer gutxiren truke!

Bereala ostatura joan da gosaria eskatu gen-
duen; eta, maian jartzerakoan, oriotar itzaiak gana-
duen kopetakoak goiko koskan utzi zituen, seguru
bere ustez.

Baiña ango kontu esateak nola etzuen bukae-
rarik, aaztu zitzaizkion nun ibili zan, zertan, nora
joan zan eta denak. Azkenerako, ganaduentzat Er-
nanin erositako kopetakoak ere bai. Ta Donostiko
Amaran trenean presaka sartu ta bagatoz itzaia ta
biok Oriora, ta bat-batean onela dio:

- Ederra bota det, Lasarte! Au da marka! Nere
kopetakoak gosaltzen jardun geran leku berean gel-
ditu dira. Aaztuta utzi ditut gaur arratsalderako be-
ar nituenak. Orain zer jokabide daukat nik?

- Usurbillen trenetik jetxi ta berriro Donostira
joatea zenduke onena - esan nion.

Uraxe egin zuen itzai gizarajoak, penaz osaturik
baiña. Kopetakoak, ordea, ostatuan jasota omen
zeuzkaten. Ala ere gaitz erdi. Norbaitek ostu ta era-
man balizkio, orduantxe gaizki.

Beste gizon zintzo purrukatu batek ere Uztapi-
de maite zuen, ba, benetan. Nikolas Karrera zan
diodan au. Pertsona xuabe askoa, itz bat baiño
bestea torpeago erabiltzen etzekiena,

Ni nun edo nun kanpoan izan da etxera nento-
rrela kalean ikusten ninduen bakoitzean, laixter
galdetu oi zidan:

- Bertso-lanak eginda al zatoz, Lasarte, gaur
ere?

- Bai. Alaxe nator, ba.

Urrengo:

– Uztapidek zer dio?

– Oso ongi dabil Uztapide. Ez du iñungo miñik daukanik ematen, eta umore ederra derabilki. Gaur ere biok kantatu degu ta sasoi bikaiña zeukala iduritu zait. Zer esango dizut geiago, Nikolas?

– Ez, Lasarte. Orrekin aski det. Dena ulertua dago ta pozik gelditzen naiz.

Erantzun orixe emango zuen gutxi gora-beera Nikolas Karrera zanak.

Uztapiderekin batera soldadu ibilia zan, eta beingo batez gaixotasun gogor samarra arrapatu omen zuen Nikolas Karrera onek, berak esan zidanez.

Bi edo iru egunetan ez jatekorik eta ez edaririk probatu gabe egon bear zuen, nolabait antzean noski; ta Uztapide, ondoezik zegoela jakinda, joan zaio bixitatzerara, ta galdetzen dio:

– Zer modutan ago, Nikolas?

– Ementxe supritzen. Egarrria zeukat ikaragarria, ta edateko ezer ez.

– Ez al diok iñori eskatu?

– Bai; baiña ez ditek ekartzen urik ere.

– Nik ekarriko diat iri bizigarria, Nikolas, nunbaitetik –esan da martxa Uztapidek.

Eta berealaxe an dijoakio, botilla lodi batean kafesne beroa artuta, beragana.

– Emen zegok sendagaia, Nikolas. Oztu baiño leen edan bearko dek au. Mesede egingo dik.

Eta, alaxe, leenengo tragoan antzeman omen zion ongi zetorkiola, ta:

– Au ez dek kafesnea bakarrik.

– Ez. Neri gustatzen zaidan klase artatik pixka bat badik naastua –erantzun omen zion Uztapidek.

Amaika orrelako ateraldi dotore bazuen gizon arek.

Nikolas Karrerak zenbat nai zion ez dago itzez esaterik. Biotzez sentitzea izango litzake onena, seguru asko.

Beingo batez Orion bildu giñan Rosendo Lizaso, Luis Lopetegi, Bizente Gaztaiñazpi, Nikolas eta abar. Oiek Uztapide bertara ekarri zuten, nik ere lagundu nioten, alaxe nai zutelako; ta egun gogoangarri ura ez zitzaieten aaztu, nerekin maiz aipatuta.

Baiña, leen esan dedan bezela, gizon jator aiek illak dira.

Bertsolaritzak ainbat une gogoangarri

BERTSOLARITZAK ainbat une gogoangarri eman dizkigunez, ez dira nolanai aaztutzeko modukoak, den-denak beintzat, naiz eta batzuk gordetzea ohea dan arren, badaezbada ere.

Emen norberak pentsatu ta ausnartu bear ditu gauzak leenengo, ta gero paperean idatzi, iñori kalterik egin gabe ta txukun antzean. Nik, nere ezjakiñean, kezka orixe edukitzen det beti.

Beraz, badakizu, irakurle izango zeran adiskide orrek, Lasartek ez dizula miñik eman nai borondate txarrez. Baiña baliteke, ordea, deskuidoren batez, eta ura errez barkatuko zenidake noski.

Orain arte egin dedan lanaren damurik ez det sentitzen neregan. Batekoz bestera, poza edo aren antzeko zerbait, gutxienez ere.

Uztapide bertsolari ospetsuak esandakoz gogorutzen naiz sarritan: gizonak, zaartu ezkerero, ez due-la ezertan ere ikasten bear bezela.

Arrazoi ederra benetan, neretzat ongi datorrena, oraingoz beintzat; eta aurerantzean ez det uste obeagotuko naizenik.

Esku artean daukadan langintza ontan ere berrogei urte leenago asi izan banintz, agian bai. Baiña berandutu zait, eta kito.

Dana dala, aspaldiko pasadizo bat kontatzera nijoa, denbora nere gain dagoen kasoan.

Donostiko *Victoria Eugenia* antzoki dotore sonatuan gendukan kantatu bearra, ta Uztapide nuen bertsolari laguna. Biok bakarrik giñan deituak, eta jaialdiaren ardura zeukatenak agindu ziguten gai librean jardutea nai zutela beraiek eta beste askok bertsotan.

Bueno, guretzat berdintsu zala erantzun genioten. Nola ez, ongi oituak egonik gai libreko bertso-gintzan?

Molde ori ezagutu nuen nik, nere aurreko bertsolariak erabiltzen zutena: Uztapidek, Basarrik eta gaiñontzeko denak ere bai garai artakoak.

Dana dala, asi giñan kantari. Leenengo, entzule jendea agurtu xuabe antzean. Baiña Uztapide etzegoen buruz nagi, ta laixter billatu zuen ango xaltxari bizitzeko zegokion piper-klasea.

Nik neronek emango nion tentazioa, entzule jatorrak zeudela gure bistan eta aietaz baliaturik ongi kantatu zitekela esanez. Baiña bertsoa ez det gogotan.

Uztapideren erantzuna izan zan dotore samarretakoa. Nik bere bertsoaren azkeneko bi puntu jaso nizkion, eta auetxek ziran:

Ongi kantatzeko etorri gera
oso bikote bajua:
ni, Uztapide, aula nago ta
Lasarte pipiak jua.

Beti erdi gaixo ibiltzen nintzalako esana zan ori, anka-sartze aundirik egin gabe, denak ulertzeko modu egokian. Leenengo, bere akatsak aitortu, ta bide batez nereak adierazi kurioso asko.

Uztapideren burua etzan zerrautsarekin egiña. Nundik asi ta noraiño sartu pentsatu bear du bertsolariak leenengo.

Donostiko *Victoria Eugenia*-n ortantxe asmatu ote genduen errezelotan nago gaur oraindik ere. Ez nuke esan nai beste inun ez bezelako bertso-saioa izan zanik. Baiña alkarri arrazoibide garbiak jartzen genizkion aurrera jarraitzeko, ta orrek laguntzen du asko, itzezko jokia neurri juxtuan erabiltzeko batez ere.

Idazten ari naizen jaialdi au ez dakit zein urte-takoa dan. Lastima! Izan ere, satelitearen antzera ibiltzen baigiñan garai aietan.

Victoria Eugenia-n bertan zenbat bertso-saiotan parte artu izan degun neri galdetzea alpertsurik litzake, neronek ez dakit-eta erantzun zuzena emateko.

Donosti aundian bertsozale purrukatuak ugari antzean ezagutu genituen, zorionez. Noiznai deitzen ziguten alde batetik edo bestetik, afariren bat pres-tatu zutelako ta abar.

Urte aietan bezelako apizio bero eta sutsua baldin balego gaur entzule jendearen artean, bertsolaritzak ez luke galtzeko bildurrik, ez ostatuetan eta ez plazetan. Nik orrela ikusten ditut gauzak, oraingoz beintzat.

Egun batez erri txiki samar batera joan giñan Uztapide ta biok bertso-tara, goizeko autobusean sartu ta garaiz. Baiña derrigorrez uraxe gendukan artu bearra. Bestela ez baizegoen joateko aukerarik, tasisa izan ezean.

Alaxe, diodan erri polit artara autobusa noiz iri-txiko zai zeuden geltokian iru edo lau gizona-zko, ta beraietako bat bertso-tan pixkaren bat jarduten zana gaiñera, guk jakin ez arren.

Eta, autobusetik irten orduko, esku eman ez kantatu zigun leenengo bertsoa, ta geroxeago bigarrena.

Baiña asko kosta zitzaiola antzemanik, neronek esan nion:

- Ederki zeuden bi bertso oiek; baiña ez kantatu geiago.

Ta, ori entzunik. Uztapideren erantzuna:

- Orrek zeuzkanak bota dizkik.

Napar aldeko albiste batzuk

NAPAR aldeko albiste batzuen bidez osatu nai nuke gaurko nere ataltxo au. Erri ta baillara asko ditut ezagunak an ere. Baiña, bat izentatzekotan, Leitza da nik maitasunik beroena zor diodana. Antxe mundura ekarri eta azi baininduten nere gurasoak, Franki baserrian.

Bertan bizitu giñan bitartean, ez genion merezi zuen eskerrik eman. Baiña gerora ta maizago gogoratzen zaizkigu ango artalde, ganadu ta izan genituen abere-klase guztiak.

Askori gertatzen zaiote ori: kanpora aldegindakoan etxea edertu. Emen ona zer dan jakin nai duenak, txarra probatu bearko duela pentsatzen det nik, eta bi gauza berezi oiek bizimoduak berekin dauzka. Baiña zorion osorik iñork iñun ez, seguru asko.

Dana dala, gu, Uztapide ta biok, prankotan kantatuak gera Leitzako erri apalean. *Sarrió* Papele-
ra faubrikako nagusi ta langille jendeak urtero bazkari eder bat egin oi zuten *Oialde* izeneko ostatuan. Zein egunetan ezingo det esan, ala nai izanik ere. Ez baidaukat gogoan.

Baiña negu-partean beintzat. Naiz ere Oialdeko jangela bikain artan otzik sentitzen ez genduen arren, barrura sartu bitartean bero-usai gutxi; kanpoan, alegia.

Orrelaxe ibili giñan urte batzuetan, *Sarrió* Papele-
lerako enpleatuak deituta joanik, gustora bezin do-
tore ta zoratu bearrean ango lagunarte anaikorrez.

Jatekoz bezela edariz aukera osoa ta umore ona gainezka ikusten genituenez, zer eskatu geiago?

Nik emen urte batzuk aipatu ditut, zenbat ziran izentatzeko segurantzirik ez dedalako. Okerrik ez nuke egin nai, badaezbada ere. Ta kontuak ateratzen asteko, berriz, berandutxo nabil, gauzak aaztu ta gero. Beraz, barka dezaidatela leitzatarrak. Izan ere, gogoan edukitzeko, bertso-saio geiegitan artu degu parte guk erri artan.

Uztapidek beingo batez onela esan zidan:

– Zuen erri ontantxe ere jende bertsozale amorratua ikusten diat, Lasarte.

– Bai, bai. Alaxe da –erantzun nion.

Eta zergatik etorri zan itzbidea garbiro idatzita utziko det. Ez dakit zer jaialdi antolatu zuten leitzatarrak. Inauterien ospakizuna edo orrelako zerbait izan ziteken agian. Baiña ez nago segurantziz jantzia, ta ori ezin erabaki, urte asko pasa baidira geroztik.

Dana dala, goazen aurrera. Leitzatik deitu zidaten beintzat bertsoarako, eta aiek izentatu zuten egun berean Pasaian kantatzekotan giñan Uztapide ta biok, ain juxtu ere. Ta esan nioten nun gendukan eginkizuna: soziedade edo bazkune batean

Telefonoz izketan ari giñanez, galdetu zidan leitzatar adiskideak ea egunezko lana bakarrik al genduen Pasaian.

– Bai noski –erantzun nionean, onela dio berak:

– Gauerako ez al ziñateke etorriko Leitzara? Guk kotxea bialduko genizueke Pasaira zuen billa.

– Bueno. Ez da batere idea txarra. Nik Uztapideri abixoa pasa bear diot leenengo, ta gero zurekin egongo naiz telefonoz, gaur bezelaxe. Etzi goizean, bestela arratsaldean, emango dizut erantzuna. Neri Uztapidek berak esan zidan nola pasaitarrak deitu

zioten: gu biok joatea nai zutela, iñungo loturarik ez bagendukan. Beraz, arek jakingo du zer itzeginda dauden alkarren artean.

Alaxe, denborarik galdu gabe, segituan markatu zenbakia edo lumeroa, ta Uztapidek berak galde-tu zuen:

– Nor da?

– Lasartek deitzen dizu Oriotik, Manuel.

– Bai. Ire abotsa ezaguna dek neretzat. Enkar-guren bat badiagu oraintxe ere, seguru asko.

– Erdiz erdi asmatu dezu, ba; ta esplikatuko di-zut zer nai duten gure lagun batzuek. Gaur bertan otsegin didate Leitzatik bertsoarako. Baiña oker txiki bat daukagu tartean, eta auxe da: aiek aukera-tu zuten egun berean guk Pasaian daukagula kan-tatu bearra esan diotet. Baiña ea gauerako libratu ote gindezken jakin nai luteke. Beranduxeago joan-da ere, itxogiteko moduan omen daude. Zer deriz-kiozu, Manuel?

– Ori orrela baldin bada, nik arrapatuko dizkiat pasaitarrak, eta itzegiñez konpontzen dituk gauzak. I lasai egon, Lasarte, nere abixoa artu bitartean. Be-realaxe emango zioat telefonoari kuerda –esan zidan Uztapidek.

Ala gertatu ere. Arratsaldean garaiz jakin nuen pasaitarren berri. Uztapidek laixter billatu zuen norbait, eta dotore moldatu ere bai gure martxa. Onela zion:

– I, Lasarte: Pasaian egunez ongi kantatzen ba-degu, illunabarrean zortzirak alderako libre izango omen gaituk.

– Ori errez egin genezakela badakite aiek –eran-tzun nion.

Biok kontentu eta leitzatarrak ere bai. Gure bi-lla kotxe eder batekin joan ziran Pasaira. Eguraldi txarra zan arren, denok pozik.

Eguneroko ogia bezelatsu

KARTA-jokoa eguneroko ogia bezelatsu erabiltzen dute batzuek. Emen Orion bertan ere badaude apizio izugarria daukatenak ortarako.

Puntuan, musean eta tutean, iru klasetara jarduten dira, zaar jendea batez ere, ta pixka bat gazteagoak ere bai tarteka. Baiña geientsuenak lanetik erretiratutakoak zerbaiten ajez edo eziñez.

Nik goiz-partean ikusten ditut Orioko *Loretxu*-n egunero lagun jakin samarrak puntuan bi-bitara nola jokatzten duten. Sarritan bulla ta zalaparta ugari entzuten degu utsaren urrengo kontuen bidez, alkarri aitzakiak ematen asten diranetan. Baiña gaiñetik begira egoteko gauza polita dala esango nuke karta-jokoa.

Ordu ta erdian jarduten dira gutxi gora-beera; ta, irabazi edo galdu, alde aundirik ez. Amar duoren diferentzia, geienera jota ere. Diru asko arrixkorian jartzea izango litzake txarra ortan ere.

Bestela, denbora pasatzeko zer asmatu lezake pertsonak gauza politagorik, gustatzen zaionarentzat, alegia, lagunartean? Zerbaiten poza edo xaltxa bear da derrigor, umore onak iraungo baldin badu.

Nik neronek sekulan ez det gogorik izan karta-jokorako. Baiña beste batzuei begira nagoenetan gustora egoten naizela ezin nezake ukatu iñolako moduz. Bakoitzak bere molde bereziak ditu emen bizitza aurrera eramateko.

Musea dabil moda ikaragarrian aspaldiko urteetan. Lau muslari jokatzan ongi dakitenak erabiltzen dute gezurra ta tranpa ugari. Sartzen dizkiote ziri galantak alkarri; ta iru ordu bezela lau pasatzen dituzte maian exerita, noiz altxa ez dakitela. Kartak eskutik utzi gabe, segi antxe, enbido ta ordo, ipurdia zearo mindu arte. Diru-jokoan ari diranetan, batez ere, apizioak ez du txantxarik.

Oraindik ikusi ditudan azkarrenak Orion ikusiko nituen. Baiña ez emen bertakoak; kanpotarrak ziran, lau gizonezko trebe askoak. Une batez arriturik utzi ninduen beraien jokatzeko posturak. Etzuten leenengo aldia izango noski.

Ura zan eskuetako mugimentua ta izketarako era. Bai tantoak kontatzen ere. Erropa josteko makinaren antza zeukaten. Pare bat ordutan jardungo ziran jokoan. Gutxi gora-beera diot au, seguru ez dakidalako.

Nik asieran ikusteko suertea izan nuen. Baiña gero jendez gaiñezkatu zan ostatua, ta ez nioten arretaz begiratu. Atzera aldegin eta kito. Beste batzuei tokia eman obekiago ikusi zezaten ango martxa nolatsu zijoan.

Uztapide bertsolari ospetsua ere musean oso onetakoa omen zan, adibidez; eta, nik gai ortan gutxi ulertzen dedan arren, alaxe pentsatzen det. Inoiz nere bistan jokatu zuenez, gustatu zitzaidan. Aren bekokiari antzematen etzan erreza izango zertarako zegoen.

Begiratu, irakurle, orain idaztera nijoakizun gertakari ontara, eta igarriko diozu Uztapideren ateraldiak zer ziran.

Gipuzkoako erri txiki batera bertsotara joan da Uztapide. Ez bera bakarrik. Laguna eramango zuen norbait, baiña nik ez daukat gogoan beste bertsolariaren izenik. Lastima!

Dana dala, diodan erri artan izan bear zuen musean iñork bildurto arazitzen etzuen gizon gordiñen bat; eta eguerdian, bertso-saioa egin ondoren, an omen zeuden ostatuan denbora pasa bertsolariak; eta sartu da barrura muslari famatua, ta desapiatu ditu denak, iñor berezi gabe.

Leenengo anka-sartzea artantxe egin nunbait gizarajoak, eta Uztapide jabetu: berak jokatuko ziola.

Asi dira musean bero-bero, biak erne antzean alkarren jokaerak ezagutu bitartean; eta Uztapidek onela dio:

– Zuk usteko dezu muslari artista zerala. Baiña orain artean bezela jokatzuz neri ez didazu irabaziko.

Ori entzunik, pixkaren bat mindu gizona, ta asi zaio leen baiño sutsuago, jo batera ta jo bestera. Baiña bere kalterako. Azkenean Uztapide nagusitu, ta pena aundiz beterik muslari sonatuak esan omen zuen:

– Sekulan ez diat gaur aiñako pasadarik artu. Au dek marka, pentsatzen jarrita ere!

Ta ara emen Uztapideren erantzun dotorea:

– Gizona, ez daukazu arrazoirik penaz egoteko. Ez uste izan edozeiñen aurka jokatu ta galdu dezu-nik gaur musean. Uztapiderek in galdu dezula esan da iñor ez da arrituko.

Nik asmatuak ez dira idatzi ditudan kontu zelebre auek, beste norbaitengandik jasotakoak baizik, eta erosita bezela saltzen ditut, badaezbada ere. Kartajoko ori arrixkutsu samarra ote dan errezelotan bizitzen naiz ni.

Oiartzungo Ergoin baillaran ere apizio aundia izan bear zuen leen muserako.

Uztapidek esanda dakit nik diodan pasadizo au, eta pentsatzen det ura gezurretan etzala jardungo orrelako gauzak kontatzen.



Manuel Lasarte bertsotan.

Santo Tomasetan

ORIOTIK Azpeitira begira nagoen une berezi ontan aspaldiko gertakari zaarrak ugari antzean gogoratu zaizkidanez, beraien bidez osatu nai nuke gaurko nere ataltxo au.

Gipuzkoan baditugu bi erri-alde ezagunak eta sonatuak, pesta-giroan batez ere: bat Azpeiti eta bestea Donosti. Santo Tomasetan zein baiño zein dotoreago ikusiko dituzu, irakurle, nola bat ala bestea.

Ori nik bezin ongi jakin zenezake leendik ere noski. Baiña berriro adierazten dizut, aaztu ez zaitezzen bi lorategi apain oietaz.

Gu sarritan kantari jardunak geralako dakit nik zertsu diran esateko aiña, ta ortantxe aleginduko naiz borondaterik onenez.

Santo Tomas egunez Azpeitin lagunarte sanoa bezin alaia billatzen genduen, eta etekin itxurazkoa ateratzen genion goizetik illunabarrera bitartekoari.

Eguerdian bertso-saioa jartzen ziguten erriko plazan, gai librean gaiñera, leengo oitura zaarrean; eta bapo moldatzen giñan. Gai libreko bertsogintza gauza bizia ta polita dala iduritu izan zait neri, bertsolariak alkar artzen asmatu ezkerro.

Azpeitin Santo Tomas egunez urte batean gertatu zitzaigun kaso baten berri emango det ataltxo ontan geroxeago. Entzule jendearen atsegingarri biurtu baizan bazkal aurreko gure jardunaldia, ber-

tso umoretsuen bidez osatua, alegia. Donostin ere jokabide berbera erabili oi genduen Santo Tomas bigarrenez.

Garai aietan, beti ez bazan ere, joandako bakoi-tzean beintzat, batere gai-jartzailerik edo zuzendaririk gabe, ardiak larrera bezela bialtzen ginduzten plazara:

– Ordua iritxi zaizute. Or jendea zuen bertsoen zai dago ta asi zaitezte kantari leenbaileen, mesedez.

Agindu ori artzean, berealaxe eltzen genion lanari, eta saiatu ere bai aal zaneraíño entzuleak gus-tora uzten.

Baiña bertsolari jakiñak ez giñan joaten urtero Santo Tomasetan Donostira, txandaka baizik batzuek eta besteak.

Arrasaten ere egun berean ospatzen zuten bertsolarien jaialdia Santo Tomas bigarrenez; eta, guk leenengo abixatzen zigunari baiezkoko itza ematen genionez, Arrasatera sarritan joan bear izan genduela badakit, Uztapidek eta biok batez ere, an lagun ixtimagarriak ugari antzean baigenituen, eta aiek aaztuta ezin utzi, noizean bein serbitu aal izanik.

Dana dala, berriro Donostira itzuliko naiz, Gipuzkoak duen kapital eder txukunera. Jakingo nuke pozik, erreza balitz, zenbat naziotako pertsonak bixitatzen duten Donosti urtearen aurrenetik azkenera bitartean.

Guk ez diogu merezi aiñako garrantzirik ematen, etxetik bi pausora bezelatsu daukagulako. Baiña estranjeri aldetik datozenak txoratu bearrean egoten omen dira berari begira, nik entzuera dedanez.

Santo Tomasetan bakarrik ez da polita Donosti. Baita San Sebastianetan ere. Pesta dotore apartak

antolatzen dituzte. Orko tanborradak eta jolasak aintzat artzen ez baditugu, umorea faltako zaigula bistan dago.

Ta ori zer ekartzen du? Zaartzeak, nere ustez beintzat. Garai bateko ilusio ta gaztetasunaren pozak joan zitzaizkigun pikotara, ta kito.

Baiña, Donosti aipatzerakoan, guk an egin ditugun bertso-saioretaz gogoratzen naiz oraindik ere. Zenbat bodega-zulotan kantatu ote genduen? Uzta-pide zanak esango lituzke pasadizo politikak, gaur bizirik balego.

Dana dala, berriro Azpeiti aldera joko det. Leen-txeago diodan bezela, an ere San Sebastian aundi-kiro ospatzen dutenez, izan oi da zer ikusia. Baiña onoko gertaera auxe kontatu nai nuke bereziki.

Santo Tomas egun batez joan giñan goizeko trenean Uzta-pide ta biok Azpeitira. An, erdi kaleko ostatuetako batean gosaltzen ari giñala, agertu zitzai-gun Joxe Lizaso bertsolaria, eta geroxeago Basarri, patxada ederrean. Basarrik, kotxea erosi berria zue-nez, egokiera zeukan ibilirako, gure partez. Alaxe, sartu ostatura.

Amaiketakoa egin da kontu kontari geundela, abixoa bialdu ziguten presarik gabe plazara joateko: ta, Joxe Lizaso Basarrirekin abiatu zanean, Uzta-pide komonera sartu zan, maskuria edo txixa-zorroa ustutzer. Nik bertan itxogin nion, bakarrik ez uzte-arren.

Eta andik irten orduko, erropa-denda bateko eskaparatean txapelak ikusi zituenean, esan zidan:

- Barrura sartu bear diagu, Lasarte.

Atea iriki ta:

- Egun on.

- Baita zueri ere. Zer nai dezute?

- Txapela on bat.

Alaxe, aukeratu, jantzi, ordaindu ta bagoaz plazara.

Baiña Basarrik jakin zuen; eta, bertsoan asi giñanean, onela dio:

– Nun artu dek txapela ori?

– Plazotan erosi diat, kotxea bezela –Uztapidek.

Bertsolaritzaren naigabeak

BERTSOLARITZAREN kezkek, pozak, tristurak eta naigabe denak zer diran ongi esplikatzea oso zaila da nere moduko ezjakin batentzat.

Baiña, ala ere, ez daukat batere damurik, ibille-ra txar eta nolabaiteko guztiak erriaren mesederako egin baldin baditut.

Irakurle, zuri zer iduritzen ote zaizu: bertsolariak ez degula sentimenturik edo denbora pasako pailazo soillak gerala?

Ez pentsatu orrelakorik. Nik neronek asko supritu det osasun-eskasiaren bidez, berrogei ta bi urtetan erririk erri, ostatuz ostatu eta plazarik plaza eten gabeko trotea erabili dedanez. Badakit nolako langintza dan ori.

Bertsolariak, tenple ona daukanean, errez kantatzen du. Bera pozik jardungo da eta entzuleak ere alaxe utziko ditu.

Umorea falta zaionean, ordea, ezin ezer moldatu jendearen gustoko arrazoi dotore aietakorik eta txispa bizizko ateraldi egokirik. Alde ikaragarria nabaitzen da egun batetik bestera.

Gogoa gendukanetan bakarrik kantatu izan bagendu, gure lanak askoz ere geiago balioko zuen. Ortan ez nuke dudarik jarriko.

Nik nere iritzia garbiro agertzen det, eta gaiñontzeko bertsolariak ere berdintsu samarra emango lutekela derizkiot gai onen barruan.

Sasoian dagoen bitartean, gizonak nekerik aundienari ere bere neurri batean erantzungo dio. Baiña zaarraren kontuak bestelakoak dira, geientsu-netan beintzat.

Indarrak urritzen dijoazen bezela, ustea ugartzten da. Utsaren urrengo gauza ta bururik argienak naastu arazitzen dakiena da ori.

Gaur bertso-saio itxurazkoa ematen badiozu erriari, biar obeagoa eskatzen du, eskubide osoz gaiñera.

Baiña, ezin duen garaian, bertsolariak estuasun galantak pasa oi ditu, eta bere kasa asarretzen da sarritan, iñork ezer esan gabe.

Ni neroni, azken aldiko urte batzuetan batez ere, umorez oso urri ibili nintzanez, kostatzen zitzaidan ederki nere tokia betetzen.

Bertsolaria gutxitan gelditzen da gustora berak egin duen lanez. Irakurle, orixe adierazi nai nizun zuri atal onen asierako itzetan, argibide zuzenak merezi dituzulako. Ez degu iñor naigabetu bear gezurrez.

Uztapide zanaren oroimengarri eta erriari zerbait eskeiñi asmoz ari naiz idazten. Ez artetsua naitzelako, baiña biotzak alaxe agintzen dit.

Berrogei ta amalau urte bete bitartean, sekulan ez omen zuen medikutara joan bearrik izan. Orduantxe leenengo aldiz zerbait sentitu bere gorputzean, eta zer ote zeukan jakin naiak eramanez sendagillearengana.

Ta petxuko anjina-puntua edo ez dakit seguru esateko; baiña tentsio altua beintzat bat billatu omen zion sendagilleak gure Manuel Olaizola bertsolari aundiari.

Berak esplikatu zizkigun gauzak dotore asko iñoiz. Baiña nik ez nion arreta askorik jartzen, gai-

xotasun-kontuak kontatzen ari zanetan. Batetik pena ematen baizidan, eta beste aldetik, berriz, nere buruarekin neukan naiko lan garai artan ere, ta tristura pranko pozaren ordez.

Egun batez, Zestoan gendukan kantatu bearra, ta auxe zan motibo berezia: Uztapide baserrian bizi-tu edo jaio ta azi ziran senideetatik zaarrenak erabiltzen zuen etxeko martxa; Joxe Mari Olaizolak, alegia.

Baiña gero baserria utzi ta Zestoan ostatu berri bat iriki zuten, bera buru zala, andre ta familiaren arte. *Uztapide* izeneko taberna.

Ta leenengo egunez bertsolariak bear omen ziralta ta ostatuaren irikiera ospatu genduen, lagun-talde bikaiña bildurik.

Neri Manuel Olaizola Uztapide bertsolariak deitu zidan telefonoz, zer pentsamentu zeukaten esanez.

Eta goizeko trenean joan, Zestoako estazioan jetxi ta bagoaz oiñez, mantxo bezin kontuz. Uztapide garai artan baizebillen erdi gaixorik eta poliki antxean.

Presarik gabe iritxi gera erriko plazara; ta ikusi gaitu, an parean pasatzerakoan, ostalari batek, eta onela dio bere ate ondolik:

– Kaixo, jaunak! Etorri al zerate? Sartu mese-dez barrura, ta zer nai dezuten, uraxe emango dizutegu.

– Alaxe, gizon jator orrek mereziko dik, ba, ixtimatzea, ta goazen berarengana.

Ostatuan alkar besarkatu ondoren, Manuel Olaizolak galdetu zidan:

– Lasarte, etorri geran ezkerro, artuko al dizkiagu mosto bana, barrua berotuta laister bertso-tan bizi-bizi asteko?

- Edari ederra aukeratu dezu ortarako -esan nion-. Mostoa mandoaren txixa baiño makalagoa da, gizona. Nik aiña edaterako, aspertuko zera.

Ori entzunik, parra saltatu zitzaion Uztapide bertsolariari.

Tolosa

TOLOSA ez nuke aaztuta baztarrean utzi nai iñundik iñolaz ere. Ainbat egun eder eman izan dizkigun erri ospetsu maitagarri au nik bezelaxe ixtimatuko zutelakoan nago beste bertsolariak ere, gure garaikoak beintzat.

San Joanetan egin oi dira urtero pestarik aundienak Tolosan, naiz eta Karnabal edo Iñauteriak ere fama izugarria duten arren.

Gu bietan ibilita gaudenez, ez genduen bereizten zer alde zegoen batetik bestera. Arrigarrizko jendetzak ikusten baigenituen, nola San Joanetan, ala Iñauterietan. Iñun kabitu eziñik alkarri bultzaka kalez kale,

Eta ostalariak, izerdiz bustirik, lanean presaka, jateko astirik gabe. Ori ere dagoenean egin bearrekoa baida, gero zerbait esku artean ikusiko baldin bada.

Ortik aparte, berriz, gosez edo egarriz ostatuan sartzen danak ez du pazientzirik luzaroan zai egoteko, naiz eta jakin beste asko bere aurretik dauzkala, bazkaria edo afaria eskatu ta noiz eramango maian exerita itxogiten asperturik.

Jai-klase oietan kanpotarrak ere joera ikaragarria dutela badakigu Tolosara, ta orretzek adierazten du naikoa bestek ez daukan zerbait bearko due la erri onek.

Apustulari geientsuenak ere maite dute benetan Tolosako zezen-plaza. Emen, Gipuzkoatik beze-

la, Naparroatik eroso jartzen zaiote, itxurak diranez; eta jende asko bildu oi da orrelako egunetan Tolosan.

Ez dira den-denak dirua jokatzera joango noski; baiña parte aundi antzeko bat bai, adibidez. Ala ere, nik neronek beintzat ez diot iñori itzik esango ta or konpon. Bakoitzak bere gustoa egin dezala.

Euskal Errian jokora griña beti izango zuen jendeak, batzuek geiago besteak baiño. Ortxe dago alde dexentea, ta esku artez ere denok ez ditugu erreztasun berdiñak. Dirua urri samar darabilkienak ez dauka asko jokatzetik, alaxe nai izanik ere.

Ta sarritan obe gaiñera. Iñoiz ikusita gaude gizon argiak diruditenak sakelak ederki ustuta plaza-tik kanpora serio asko ateratzen, "Gaur etxean gelditu bagiña obe genian!" esanez, bapo damuturik.

Baiña zertarako, ordea? Jokoari bein betiko uzten ez badio, berriro ere griña txarrak beregana eramango du gizona.

Aspaldiko esaerak dionez, noizean beingoak ez omen du kalterik; eta, ori orrela baldin bada, gaitzerdi.

Egun batez gogoratzen naiz. Txapelketa nagusian zala uste det. Bertsotarako gaia jarri zioten: Gizona ez da ogiz bakarrik mantentzen.

Nik une ontan buruan daukadan bezela idazten det. Ezeren okerrik balego, barkatu mesedez.

Baiña elduleku asko billatu genezaioke gai oni: gizona ez da ogiz bakarrik mantentzen. Egi borobilla ta arrazoibidez josia.

Naiz eta eguneroko ogia eskatzen degun arren, lagunarteko gozotasunak eta tarteko parranda batzuk ere ez zaizkio batere gaizki etortzen estu antzean dabillen pertsonari, penak edo kezka aundi samarrak dauzkanean batez ere. Aiek pixka bat diximulatu aal izateko ta pentsamentuz aldatzeko au-

kera eman, alegia, beroegi dagoen buruari. Oztu dedilla, berriro bere tokian jarri ta lanean zuzen segitu dezan.

Nik atal ontan idazten ditudanak eta askoz geiago ere komenigarriak zaizkigula uste det, mundu ontako bizitzari dagokionez.

Orain au bere-berean utzita, leengo saillera sartuko naiz. Tolosan, Uztapide bertsolariari beingo batez entzun nion arrazoi dotore ta egokia esplikatu dizut, irakurle zaitudan lagun ixtimatu orri.

Tolosan San Joan pestak ziran; eta, sarritan bezelaxe, bertsotara joanak giñan biok. Goiz-partean saio bat eragin ziguten, eta arratsaldean bestea zezen-plazan.

Leidor izeneko antzokian sarritan kantatuak gera. *Iparragirre*-n ere bai. Baiña denetan geiena pelota-lekuan.

Tolosa oso inportantea juzkatzen nuen nik, eta gaiñontzeko bertsolariak ere iritzi ber-berekoak ziralakoan nago. Noiznai antolatzen zuten guretzat ongi zetorren jaialdiren bat tolosar bertsozaleak; eta orrelako gertaera pozgarriak nekez aaztu oi dira.

Dana dala, leentxeago aipatu dedan zezen-plazako pesta ura gogoratzen zait, ain gustagarria izanik. Nola ez, aizkolari arri-jasotzaille, aari talkalariak eta abarrez osatutako jaialdi ederra, baserritar kutsu berezia zeukana?

Guk bi saio egin genituen bertsotan: leenengo, asieran; eta gero, azkenean.

Kirolariak, sasoi onean zeudenez, eman zizkiguten une gozo aberatsak; eta aari setoso aiek, berriz, bazuten alkar jo naia. Buru aldeetako otzak kendu zizkietela ziruditen batek besteari.

Oiek denak ikusi ondoren, gure txanda iritxi zala ta ekin genion bertso-lanari, zortziko txikian erabiltzen dan doiñuetako batean; eta Uztapidek

kantatu zuen bertso baten azkeneko bi puntuak
onela ziran:

Aariak ere ditugu
borrokan ikusi,
ez da gizona bakarrik
gorrotoan bizi.

Itziarren, ezkontza edo boda batean

BAKOITZAK bere modura ulertu lezake ori. Irakurlearen esku utziko det.

Uztapide bertsolaria benetan maite zutela badakit itziartarrak, gure garaiko jendeak eta zaaragoak batez ere. Ainbat bertso kantatu genduen biok batera urte-mordoan Itziarren.

Baiña ni asi aurretik nork daki zenbat bider jandungo zan Uztapide bertsotan, Endoia baillaran jaio ta azitako semea izanik?

Etxetik bi pausora bezelatsu baizeukan Itziar, eta lagun onak alde denetan.

Beraz, ezer ez zitzaion falta, parrandarako dirua sortu ezkerok; ta ortarako aiña pulamentu bazuen arek. Buruz ongi jantzia baizan, eta bizimodua txukun bezin dotore eramaten ikasia gaiñera. Zer geiago bear du gizonak, osasunez sendo egonik?

Ezkontza-kontuekin asi naiz atal au betetzen. Baiña ori geroxeago beteko det. Orain beste pasadizo batzuk idatzi nai nituzke leenengo.

Itziarko jendearentzat zezenak edo larre-beiak oso bearrezkotzat juzkatzen genituen guk, beste askoren gisa.

Erri bakoitzak bere oitura ta jokabide bereziak dituela ez dakienik iñor baldin balego, joan bedi bertara ta jakindu, bi aldiz galdetu baiño leen, Itziarren nolako pestak antolatzen dituzten.

Urteko jai nagusietan Lasturko zezenik ez da faltako. Bertsolaririk ere ez, eta erri-kirolez aukera. Musikalari ederrez zer esanik ez; eta dantzari bikaiñez plaza beteta gaiñezka.

Ainbat bider ikusita gaude aipatu ditudan gauza auek denak, eta gustora begira egon ere bai iñoiz. Baiña oraingoz ez daukagu pestarako ilusiorik, gerorako izango ez degun bezelaxe, ta kito.

Itziarren baziran nere lagun jator batzuk bertsozale purrukatuak, nik ongi ezagutzen genituenak; Uztapidek gaixotasunaren bidez bertsolaritzari utzi zionean pena galanta artu zutenak.

Eta erri askotan gertatuko zan gauza ber-bera, nik entzuten nuenez. Baiña beti zutik iraun lezaken gizonik ez det uste mundu ontara sekulan jaioko danik.

Neretzat ere tristura izugarria ekarri zuen Uztapide ixiltzeak. Ainbesteraiñoko konfiantza gendukan alkarrekin eta gero bakardadezko min bat sentitzen nuen. Espelikazio garbirik billatu ezin diodan zerbait dalakoan nago.

Bertsolari denak, edo geientsuenak beintzat, ezagunak ditut. Txirrita zana ez nuen bein ere ikusi. Aren lengusua, Saiburu bertsolaria, bai; ta biok kantatu genduen gaiñera egun batez Ernaniko Ereñozu baillaran.

Geroztik emen, Euskal Erriko plazetan, ibili diran bertsolaririk bai ote da nerekin kantatu gabekorik? Baliteke bakarren bat agian, baiña zailla iduritzen zait, oraingo gazte berri auek izan ezik.

Dana dala, ezkontza edo boda batera deitu ziguten egun batez Manuel Olaizola Uztapide bertsolari ospetsuari ta bioi: ea joateko moduan geunden jakin nai zutela. Artean bi illabete falta zirala; baiña, gu libre gutxitan egoten giñanez, aurrez ibiltzea obe zala pentsatu omen zuten.

Albiste egokia entzun ondoren, galdetu genio-
ten:

- Nun dezute boda ori?

- Itziarko elizan degu ezkontzeko asmoa, larun-
bat-illunabarrez; eta gero Salegiren jatetxean afaria
enkargatua daukagu.

- Ederki. Guk itza ematen dizutegu arratsalde-
an garaiz an izango gerala, ezeren okerrik ez bada.

Auxe zan gure erantzuna, aiek nai zutena ta
merezi bezelakoa, ain ziran jatorrak eta.

Alaxe, egun berezi ura iritxi zanean, joan giñan
Itziar aldera, etxean bazkaldu ta lasai antzean; eta
Salegi izeneko ostatuan sartu orduko, exertzeko ta
zer artu nai genduen eskatzeko bildurrik gabe esan
ziguten.

- Ez da batere aukera txarra jarri diguzutena
-erantzun zion Uztapidek-. Laister erabakiko degu
nundik asi eskean.

Kafetxo bana ta beste zerbait artuz, maian kon-
tu kontari errez pasa zitzaigun denbora, ta andik
elizara. Gazteak ezkontzen ikusi genituen, eta bere-
alaxe jangelara berriro.

Jendetza aundia bildu zan. Guk afal erdiko ga-
raitsuan egin genduen leenengo bertso-saioa ezkon-
berrien aginduz, eta ordura bitartean ixil samar.

Aldemenean egon zan gizon-pusketa aundi ba-
tek izugarrizko txaloak jotzen zizkigula konturatu
nintzan ni neroni beintzat, eta Uztapide ere bai se-
guru asko.

Ta, saio ura bukatu ta exeri giñanean, onela
dio gure gizonak:

- Zuek libururik ez al dezute idatzi?

- Ez; ta asmorik ere ez daukagu idazteko -eran-
tzun zion Uztapidek.

Baiña azkenean iru liburu eginda utzi zituen il aurretik berak, eta ni ere ementxe ari naiz idazlanetan.

Ez genduen asko pentsatzen, ez Uztapidek eta ez nik, ontaratuko giñanik, garai artan.

Amezketeta

ZENBAT bider bururatzen zaidan erri txukun euskaldun ura esplikatzeko ez da batere erreza nere moduko ezjakin batentzat. Baiña saiatuko naiz aal dedan neurrian ango gertakariak idazten, iñor mindu arazi gabe ta errespeto aundiz gaiñera.

Gure arrebaren gizona amezketarra izanik, mutil koskorra nintzan garaian ezagutu nuen nik Amezketako erria, bistaz alegia, ez bizimoduko izakeraz. Ori geroxeago etorri zan pixkanaka, bertako jendearekin konfiantza artu aiñean eta urteak aurrera zijoazen bezela.

Amezketan artzantzatik mantenduko ziran famili asko adibidez. Aralarmendik emango zioten aberastasunik aundiena edo ogibiderik egokiena. Seguru esateko ez dakidan arren, alaxe iduritzen zait.

Nik amezketar soldadu-lagun jator bat eduki nuen, konfiantza aundiko mutilla; ta arek esplikatzeko zizkidan artzai eta baserritarren arteko ixtorriak. Bera baserriko semea zan, baiña umetatik asi ta geroztikako bizitza artaldea zaintzen zeramakiena. Udaberritik udazkenara bitartekoa Aralarmendin pasatzen omen zuen, eta gero negu-partean behera jexi ta baserrietako zelai, soro ta orrelako terrenoa-sailletan mantendu ardiak, etxe ezagunetan urteroko konpromisoa arturik edo aurrez egiñik, alegia.

Or, Aia aldean ere, ikusten genituen leen amezketar artzaiak. Artalde bikaiñik erabiltzen zuten larre gozoa oparo emanaz. Ongi gobernatzen dan ardiari urrutira antzematen zaio. Nolako illajea daukan begiratzea aski da, besterik ezer gabe.

Dana dala, oraindik ez dira bi illabete Amezketari bixitatxo bat egin geniola aspaldiko partez; eta aldakuntza ikaragarriak billatu nituen nik erri artan. Dena berriturik dagoela dirudi. Gu bertsoara joaten giñan garaitik alde ederra nabaitzen zaio. Erriko plazan bertan lan garrantzitsu asko daukate egiña. Erabat txukundurik ikusten da, eta kaleak zer esanik ez.

Polikiroldegi dotore bat ere antxe dago zutitua gazte jendea jolastu dedin, apizioak eskatzen dion modura. Eguraldi txarrean ere an ez du iñor euri-zaparradak bustiko. Berotasunezko izerdiak bai, pelotan edo beste edozertan gogor antzean ibili ezkerro, ta gaztetasunak ori berea du.

Dana dala, goazen aurrera. Nik Amezketa ez daukat salgai. Ixtori politikak baditut kontatu nezazkenak, eta artaraxe nijoakizu, irakurle.

Nere gazte denbora osoan pasa nuen egunik gustokoenetako bat Amezketan izan ote zan errezelotan nago, ta esango det zer motiborengatik, zaletasuna daukanak jakin dezan: Uztapide ta Basarri bikote sonatuarekin leenengo aldiz bertsoan jardun nintzan egun uraxe, edo gaua, garbiago adierazteko erriari. San Bartolome pestak ziran Amezketan, eta:

– Uztapide ta Basarri an izango omen dituk, Lasarte. Ez al dek joateko asmorik? –galdetu zidan nere adiskide batek.

Eibarren lanean lau urte pasa ta orduantxe etorri berria nengoen Aiara gure gurasoen etxera; ta, koiñadoa amezketarra genduenez, arek ere ba-

zeukan ilusio pixkaren bat, eta berak konbidatu ninduen San Bartolome bezperan:

- Biar jai artuko al zenduke, Manuel?

- Zertarako? -galdetu nion. Eta:

- Zuk ala nai izan ezker, amezketarrak bixitatuko genituzke.

- Bueno! Baiña bizikleta baten gainean ezingo gera, ba, joan biok.

- Ez; banatan, Nik billatuko det zuretzat bizikleta -erantzun zidan, eta kontentu.

Alaxe, biaramon-goizean abiatu gera, bidean kontu zaarrak kontatuz, Amezketa aldera; ta iritxi ere bai garai ederrean koiñadoaren etxeraiño. An gosaldu ta kalera. Eguerdiko bertso-saioa entzun eta geroxeago, bazkaltzera, gosaldu genduen tokira.

Baiña arratsaldean gure koiñadoak bere gaztetako lagunak billatu zituen. Nik ere ezagunak banituen; eta, aietara bildu nintzanean, aaztu zitzaidan koiñadoa zearo, batez ere udaletxeko balkoira bertsolariak igo ziran garaian. Uraxe baizan neri zegokidan pestarik garrantzitsuena.

Ta gauekoa, berriz, askoz ere obeagoa. Bertso ederrik kantatu zuten Uztapide ta Basarri bikoteak afalondoan ostatuan, plazan ez-ezik.

Baiña saio laburtxoa, ordea, jendearen egarria asetzeko, ta ni asi arazi ninduten. Zirikatzaile batzuek abixoa pasa zioten Uztapideri, ta berak kantatu zidan leenengo bertsoa, ta nik erantzun. Basarrik ez omen zekien ezer, iñork jakinlean jarri ez zuelako. Baiña gero ixiltzea kosta zitzaion.

Jan-gelan bi edo iru bertso-saio egin ondoren, andik irten da mostradore aurrean berriro kantuan ari giñala, goizeko ordubata jo zuenean aldegin nuen nik. Artu bizikleta ta Aiara gustora asko.

Uztapidek esan zidan:

- Amaika kantatuko dek!

Berdin gadeko Donosti

DONOSTI Euskal Erriko txori askoren kabitzat juzkatu genezakela pentsatzen det nik, an pasa ditugun une gozo ta atsegiñak gogoratzen zaizkidan bakoitzean batez ere.

Ederrez eta apaiñez berdiñik ez duena omen da gure Donosti, pertsona jakintsuak aitortzen dutenez. Leengo bertsolari zaarrak eta munduan batetik bestera ibili ziran gizonetzko ta emakumezko denak ao batez esaten ziguten ori.

Pedro Mari Otaño Zizurkilgo seme ospetsuaren bertsoak entzunda nago bein da bi aldiz baiño geiagotan, Donostiri jarri zizkionak, merezi bezelakoxeak. Nik neronek ez det irakurri Otañok egindako libururik, ortarako modurik izan ez dedalako. Baiña gure lagun Uztapidek oso aunditzat edukitzen zuen Pedro Mari Otaño. Bertso jartzaille goi-maillakoa zala alegia, ta gizon eskolatua gaiñera.

Arek ere Zizurkildik aldegin ezkeroztik, Arjentinan eta abar ainbat erri ikusiko zituen; baiña Donosti gogoan, nik Uztapide daukadan antzera. Emen alperrik dira denbora pasako kontuak. Bakoi-tzak bere sokari tiratzen dio, ta kito! Pedro Mari Otaño sekulan ez da aaztuko bertsolaritzaren ixtorian.

Guri gertatzen zaiguna auxe dala esango nuke: ez dakigula etxeko edertasuna ixtimatzen, merezi duen neurrian. Zergatik ote da ori? Donosti maiz ikusten degunez, ez digu biotzik berotzen, bear aiña

goraltzeko. Baiña estranjeri aldera edo atzerriko edozein baztarretara joango bagiña bizitzera, aldutuko litzaiguke buruan daukagun pentsamentua; eta gaur aitormenik egin gabe dauzkagun gauza asko, urrutitik ederrago ikusiko genituzkelakoan nago. Kanpoan ibiltzea omen da onena nork bere etxea maitatzen ikasi aal izateko.

Pedro Mari Otañok zerbaiten motiboz famatuko zuen Euskal Erria. Ainbesteraño sentimentuz jantzia dan gizon argiari biotzak erakusten dio nola itzegin.

Egun batez, arritu ninduen benetan Donostiko gertakari batek. Urte-sail aundia pasa dan arren, gogoan daukat oraindik ere ango gauzarik garrantzitsuenetako batzuk. Ez baidira nolanai aaztutzeko modukoak, nere ustez beintzat; eta jendeari adieraztea ez legoke batere gaizki, irakurtzen alegindu dedin tarteka edo ala komeni zaionetan. Beraz, osatu dezadan nere ataltxo au.

Donostin Udaletxeak omenaldi bikain bat antolatu zuen kontzejal denboraldi luze samarrean izandako gizon zaar antzeko batentzat, eta aurrez deitu ziguten: Uztapide ta biok joatea nai zutela, ta ea libre ote geunden, zalako egun berezi artan.

Baiezko erantzuna ematearekin batera, galdetu genioten nun zeukaten jaialdia prestatua, eta eman zizkiguten argibide denak: goizetik ez gendukala kantatu bearrik, baiña bazkalondoan eta arratsalde-partean jarriko zigutela naiko lana, ta joateko lasai amabiak alderako Parte Zaarrean Trinitadeko plaza ingurura; an norbait egongo zala gure zai.

Alaxe, bagoaz mantxo-mantxo kontu kontari, ta agertu zaigu gure adiskide jator bat:

- Etorri al zerate bertsolariak?
- Bai. Ementxe gera gu agindutako garaian.
- Oso ongi. Atozte, ba, nerekin batera -esanda, eramán gaitu beraien soziedade dotore artara.

Nik ez nuen ezagutzen leendik, eta arritu nintzan ango apainduriz. Punta-puntan jarria zeukaten, baiña ikusgarri politez jantzirik alegia. Nik nere artean pentsamentu bakarra neukan: “Zenbat diru kosta ote dira emen egiñik dauden lan kapritxoso auek?”

Dana dala, amaiketakoa eskeiñi ziguten. Baiña, gosaldu berriak egonik, ez genioten artu, ardo pixkaren bat izan ezik, bagenekigun bazkari bildurgarria prestatzen ari zirala ta. Alaxe gertatu ere. Apetitu bikaiñeko gizonak joan arren, bapo kendu zituzten gose-egarriak.

Guk, postrea jaten asi aurretik egin genduen leenengo bertso-saioa; ta gero, kafeak artu ondoren, iñork agindu bearrik ez. Naiago nuke gaur orduko sasoi umoretsua balego. Soiñu-jotzaillez ere aukera zan eta txandaka jardun giñan lanean bero-beroan. Jendea gustora geratu zala badakit. Uztaipidek onela zion:

– Gaurko maillari eusten badiogu, etzeukagu bildurrik, Lasarte.

Alkartasun ederreko lagunartea egokitu zitzai-gula esan naiko zuen Uztaipidek.

Beste gizon zaar antzeko serio itxurako bat negarrez ikusi nuen. Nere aldemenean zegoan, baiña nik jakin ez nortsu izan ziteken; eta azkenean berak eman zigun aditzera:

– Ni Donostiko semea naiz, barku aundi bateko kapitana. Mundu osoa pasa det itxasoz, baiña Donostik ez du berdiñik.

Mugaz beste aldeko gertaera bat

MUGAZ beste aldeko gertaera bat gogoratu zaidan une berean idaztea dala onena pentsatut, badaezbada ere. Bestela, aspaldi pasatako gauzak errez aldegin oi dute burutik, eta gero nork eka-ri bear dan tokira?

Nere memoriak eman samarturik dauzka bere parteak, eta geiegi eskatzea alperrikakoa ote dan iduritzen zait. Beraz, goazen poliki-poliki leen gal- dutakoak billatzera.

Zein urtetan zan ez dakit, seguru esateko. Bai- ña ni soldadutza bukatu ta etxeratu berria nintzala, bai.

Basarri bertsolari ospetsuak deitu zidan Zau- rautik Aiara telefonoz: nola antolatu omen zuten mugaz beste aldeko adiskideak jaialdi garrantzitsu bat, eta aruntza joateko moduan nengoen jakin nai zuela, erantzuna bialdu aal izateko; lau bertsolari eskatzen zituztela, ta Uztapidek baiezko itza emana zeukala.

- Bueno, nik ere pozik entzun dizut abixo ori, ta joango naiz zuekin batera.

- Ederki. Iru bildu gera ta laukotea osatzeko bakarra falta orain. Joxe Lizasorekin itzegin bearko det; eta, naiko denbora daukagunez, egongo gera al- karrekin. Aurretik baditugu bertso-saio batzuk izentatuak, Manuel, zuk dakizun bezela, ta noiznai bildu gindezke.

Auxe esan zidan Basarrik.

– Bai, gizona. Zuk diozun eguna etorriko dan arren, oraindik urruti samar dagoela dirudi ta konpondu eziñik ez det ikusten, bitarte ortan maiz alkartuko geranez –erantzun nion Basarri lagunari.

Ta, alaxe, laurok joan giñan mugaz beste alde-ra. Baiña zein erritan izan zan orduko gure bertso-pesta ez naiz gogoratzen une ontan paperean idazteko.

Guk garai artan endredo pixka bat jartzen genion mugaz arunzko jendeari. Geronek autorik ez genduelako, beraiek eramaten ginduzten Irungo zubitik aurrera; ta gero, ango lanak bukatzean, bueltan ekarri ere bai zintzo asko zubiraiño. Apizio sutsuak gauza asko eragin oi ditu bertso-kontuan ere, beste edozertan bezelaxe.

Dana dala, emendik joandakoak lau ta an bertakoak sei bat edo zortzi bilduko ziran, eta bertsolari talde dexentea osatu giñala esan liteke saio baterako.

Baiña entzule jende aspergaitza zegoela iruditu zitzaidan neri beintzat, eta beste gaiñontzekoak ere alamoduzko iritzia eman zuten.

Beingoz gustora gelditzen dana, berriro uste baiño leen egarritzea ez da batere arritzeko gauza izaten, eta mugaz beste aldean orixe gertatu ote zan errezelotan egoten naiz: bat-batean zaletasuna sortu ta gero segi berari laguntzen.

Xalbador, Mattin eta Xanpunen bidez piztu omen zan ango bertsolaritza, nik entzuera dedanez. Iru gizon auek ospetsu biurtu baziran ere, bazituzten, ordea, jarraitzaille beroak, gerora ta ugariago gaiñera.

Gaur ez dakit zenbateraiño dauden; baiña guk ezagutu ditugu an bertsolari dotoreak, alde auetan

oso gutxitan ibili diranak. Bakoitzaren izenik ez det emango, bakarren bat aaztuta utzi ez dezadan.

Dana dala, atal onen barruan idatzi dedan bezela, joan giñan Basarri, Uztapide, Joxe Lizaso eta ni, Lasarte, mugaz aruntza.

Arratsalde zegoen jaialdia, eta ekin genion kantu-lanari.

Umoretsu ta alai antzean gaiñera geientsuenak sentitzen nituela daukat gogoan. Gaiak ere egokiak eta ulertu errezak jarri zizkigutenez, ez det uste bertso-saio txarra irten zanik.

Denok txandaka kantatu genduen: binaka teman batzuetan, urrengo bakarka eta abar, modu askotara probatu ginduzten. Pare bat ordu pasako genituen gutxienez ere, edo agian iru, antxe tiki-taka ixildu gabe, ta iñor aspertzen ez entzuten. Jen-dea gustora dagoenean gertatzen da ori.

Baiña beste albiste au ere eman bear det, ontarra iritxi naizen kasoan: jaialdi luzegiak ez du aparteko grazirik. nere ustez; eta, mugaz aruntza joandako bakoitzean, ortaz konturatu naiz. Ango oitura orrela baldin bada, errespetatzen det eta kito.

Gai bat prestatua zeukaten Uztapide ta Basarrirentzat, iruna bertso alkarrekin teman kantatzeko. Onela zion gaiak:

- Zu, Basarri, ganaduekin karretajea zabiltzan itzaia zera; ta Uztapide, auto bateko txoferra. Kamio estu batean topo egin dezute, ta alkarri pasoa itxi. Asi dedilla Basarri zortziko txikian.

Nik Basarrik kantatu zuen leenengo bertsoaren azkeneko bi puntu jaso nituen, eta ara emen be-raiek:

Aizea bezela dira
olako txoferrak.

Uztapideren erantzuna osorik artu nuen eta onela zan:

Enkargutxo bat eman
bear det aurretik:
itzai au ibiltzen da
beti ezkerretik.
Ez bazerade asten
zere baztarretik,
automobilla pasako
dizut bizkarretik.

Bertso-saio ederra. Gustatu zitzaion entzule jendeari benetan.

Bertsolaritzaren pasadizo zaarrak

BERTSOLARITZAREN pasadizo zaarrak, ainbat modutakoak, ez oraingoxeak, den-denak gogoan edukitzea oso zaila danez, banaka batzuk idazten ementxe ari naiz denbora pasa, etxeko sukalde epelean eta bakardadezko ixiltasunean.

Uztapide zanarentzat liburutxo bat egin eta gero erriari eskeiñi nai nioke, komeni zaionak irakurri dezan. Aukera jartzea beti baida ona; ta bearrezkoa ere bai noski.

Ni gizon atsegin artaz ezin ninteke aaztu iñolako moduz. Au benetan esaten dizut zuri, ta konturatuko zera, irakurriko dezunean, adiskide zintzo apal ori.

Gu, Uztapide ta biok, anaiak bezela giñan. Alkarri konfiantzan gauzak agertzerakoan, ez genekigun iñor toki txarrean uzten, jendearen bistan batez ere. Bertsolari batek ortan argi ibilita asmatzen du; ez gogorkeriz itzeginda.

Publikoan entzule-klase asko egon oi dira, ta errespeto pixka bat erabiltzeak zertaraiño balio leza-keen ez degu pentsatzen sarritan.

Onekin ez nuke esan nai beti serio kantatu bear danik. Umorezko bertso alai aietako batzuek parrre algara gozorik eragin izan dute erriz erriko bertsolaritzan. Beraz, danetik naasian komeni dalakokan nago ni neroni beintzat.

Uztapide zan ortan artista utsa, disimulo ederean ziri egokiak sartzen zekiena eta entzule bakoi-

tzari belarriak gozaten zizkiona. Era berean, ateraldi apartak bazituen gizon arek.

Berezkotasuna ikusten zitzaion, gutxik izaten duten modukoa, nere gustorako; ta orrek asko laguntzen duela badakigu bertsoa moldatzeko. Bestela, ez luke gatzik eta piperrik.

Pestan dabillenak zelebrequeriak eskatzen ditu. Baiña ez ditezela zitalkerizkoak izan, iñoren mingarri diranak edo kalte egin lezaioteken aietakoak, santidadez jantziak baizik.

Egun batean bezela, bitan kantatzen dira erriaren gustoko bertsoak; eta urrengoan, berriz, ezin asmatuz ibili oi da bertsolaria. Buruan argitasuna falta zaion seiñalea da ori. Memoriz ez baida beti berdin aurkitzen pertsona; ta, alako tristurak dauzkan garaian, norberak sufritzen du beste iñork baiño geiago.

Baiña bertso-saio txarrik aterako ez balitz, onari ez genioke eskerrik emango. Or ere badago koxka, ta kontuan artu bearrekoa gaiñera.

Gu, erreka oietan sarritan pasata gaudenez, errez jabetzen gera bertsolariaren aunditasunez eta nekezko jardueraz. Gizon baten barruan baidaude bi gauza desberdiñak eta garrantzitsu amorratuak.

Egun zelebrequ batez ikusitako ixtiluz sekulan ez naiz aaztutzen.

Gipuzkoako baillara polit batera joan giñan Uztapide ta biok bertsoara. Bertako pesta nagusiak izanik, dotoreziz ospatu nai zituztela ta guri abixatu ziguten; eta orduantxe ezagutu nuen nik diodan baillara ura, zori onez.

Goizetik ostatuak leporaiño bete ta egun guttian ustu ez. Ango zoramenez nor etzan arrituko? Zaletasun paregabea sentitzeak kantatu arazten zigun goizeko plazako saioan ere; ta bazkalondoan, berriz, ixilik egon eziñak.

Maian sortzen zaizkio gaiñera bertsolariari bertsoarik onentxoena jeneralean, barrua berotzen zaiolako edo izketarako lasaitasun obeagoa billatzen duelako agian. Nork daki zergatik, seguru adierazteko?

Gutxi gora-beera zerbait esaten ari naizela, orixe da egi osoa, garbiro aitortzekotan; eta kito.

Baiña baillara artara bildu zan jendetza bildur-garri arek bazeukan apizio sutsua bertsoenganako.

Gaur autoz bezela, urte aietan motoz eta bizikletaz baliatzen ziran ibilirako gazte asko, urruti antzetik zijoazenak beintzat; eta zaarrak oiñez. Beraiak ez ote zuten arrixkurik gutxiena, bidez bide noranai joan aal izateko? Nere iritzirako, bai. Motoa kamioan azkarra da, martxa aundia eramaten du, ta baztarreko sasi tartera ere bai, deskuidatu ezkerro.

Dana dala, eta goazen aurrera, goiz partean jendez baztarrak bete baldin baziran, arratsaldeko olatua zan ortik onerakoa. Inun kabituz ezin.

Bi edo iru zugaitz aundi bazeuden plazaren er-tzean, adarrak ederki kargaturik. Mutil kozkorak gora igota an ikusi genituen zugaitz gaiñetan, txoriak egunsentian bezela, bertsoak urretik entzutearren toki jakiñetan exerita jarriak. Eta, beste aldera begiratuta, pareta-gain guztiak jendez beteak, bean tokirik etzegoelako.

Gu oltzaduran kantari astearekin batera, alkarri bultzaka zebiltzala asarre bizian borrokan ikusi genituen batzuk; eta, pakea egin bitartean ixil samar geundela:

- Zer da eskandalo bigurri au, Manuel? -galdetu nion Uztapideri.

Ta:

- Lasai artu ik, Lasarte, au emen bertako moneda korrientea dek eta -erantzun zidan Uztapidek.

Arek jakin ango jendearen berri nere partez. Baiña gero gustora jardun giñan bertsoan. Beraiek, uste gabe, gai bat eman baiziguten aoko zulora; ta guk berari eldu ta antxe asmatu bete-betean.

Ezkontza askotan parte artua

EZKONTZA askotan artu izan degu parte bertso-lari bezela, ta gai oni buruz ere balegoke zer itzegiña.

Eztai-egunak leen, gure ume-denboran, etxean ospatu oi ziran, baserrietan batez ere, ta ara nolatsu gutxi gora-beera: zekorren bati bizia kendu ta naiko aragi ederretik janez, lasai asko. Soiñu-jotzaille tajuzkoren bat eraman eta bapo.

Goizean neska-mutillak senar-emazte egin elizan ezkontzako sakramentuaren bidez, eta gero gero-rokoak. Bi famili batera bildu, lengusu, pariente, auzotarrak ere bai, ta denak kontentu. Egun osoan eta gauean jan-edanetik aukera, utsunerik gabeko alkarrizketa eta abar. Orduko ilusioak etzuen gutxiagorik merezi.

Mutilla, maiorazkoa, ezkontzen zan etxera, sendeetan zaarrena alegia, jeneralean; eta kanpotik zijoan andre berriak arreoan eramango zuen berekin batera.

Zer izan ziteken diodan arreo garrantzitsu ura? Sukaldaritzarako bearrezko ziran tresnak, logeletan oeak aldatzen erabiltzen zituzten maindare, manta, koltxilla edo sobrekama, koltxoiak, oe berriak, soiñean jazteko erropa ta abarrez ornitua.

Ganaduak uztarrian lotu ta gurdian arreoan zuela, an joango zan neskatxaren aita mutillaren baserrira, dotore bezin txukun. Elizatik buelta egingakoan, emakumezkoak astinketan asi ta noizko

bukatu jakin ez. Igurtzi ederrik artuko zuten arreo-ko gauzak. Bat ona ta bestea ohea iduritzen, eta ixiltasunik gabe segi berriketan, zintzarriak bezela.

Ori eguerdiko eginkizuna izanik, gero, bazka-londonan, soiñua ta dantza ugari gazte jendearen artean; eta guraso zaarrak, berriz, karta-jokoan, botilla patarrez betetakoak ustu bitartean, bero-bero egiñik, aurpegiak tomate onduak baiño gorriago ziztuztela. Baiña denboraren bidez jokoan ere aspertu ta urrengo kontu kontari, munduan oker zeuden gauzak zuzentzen edo konpontzen.

Orrelaxe pasatzen zuten ezta-eguna, ta era be-rean gaua ere. Ni, umetan ikusi nituenak esaten ari naiz, besterik gabe.

Geroztik aldakuntza ikaragarriak somatu ditugu, gure lurralde auetan beintzat. Pertsona bakoitzak badaki zer komeni zaion bizitzarako. Batzuek ezkondata asmatzen omen dute, adibidez; eta beste askok, berriz, bakarrik naiago. Beraz, nork bere gain daukana garaiz erabaki ta obe.

Ta goazen aurrera. Egun bateko pasadizoa kontatu bear det, gogoan daukadan kasoan.

Gure anaietan zaarrena, Zeraiñen, Legorburu izeneko baserrian, bizitu zan bere andre ta familia-rekin urte-mordoan. Legazpiko Patrizio Etxeberriaren minan egiten zuen lana gauez, eta egunez base-rrian. Lo sekulan naikorik ez.

Ala zebilela, nekeak erasan eta gaixotasun txar bat arrapatu zuen gizarajoak azkenerako, ta gero kontuak. Ezertarako gauza ez, baiña geldirik egon ezin. Ara nola diran pertsona bakoitzaren griñak.

Lanak abixatzen du bere garai-modu batean geiegikerian ibiltzerik ez dala komeni, ta dagokion neurrian errespetatzeko badaezbada ere. Luzaroan bizi nai duenari esaten dio ori, arrazoi aundiz gaiñe-ra.

Dana dala, atal onen bukaeran adierazi nezake gero zer martxa artu zuen. Zeraiñen bizi zirala, alaba ezkontzen zitzaiola ta bertsoarako abixatu zidan gure anaiak: aal bazan, Uztapide eramateko lagun; eta, arek ezin bazuen, beste norbait; Zumarragan zeukatela izentatua bazkaria, ta ara agertzea aski genduela.

Uztapideri deitu nion telefonoz; eta, libre zegoen kontua jakin ondoren, Donostin, Norteko estazioan, alkartzekotan gelditu giñanez, nik nere seme Eusebio eraman nuen.

Uztapide ta biak kontu kontari asi ziran trenean, eta gauza politik entzun nuen Donostitik Zumarragara iritxi bitartean. Urtain boseoan zebillen garaia izanik, Uztapidek bide ori artu zuen izketarako, ta gure semearentzat egoki etorri.

- Boseoa lan gogorra billatzen det nik. Orain, Urtain auzotarra degunez, berak jokutzen duen baikoitzean pozik egoten naiz begira. Baiña leen ez nuen apiziorik batere -esan zuen Uztapidek.

Eta gure Eusebioren erantzuna auxe zan gutxi gora-beera:

- Gaur lan txarra baldin bada boseo, orain eun da berreun urtetakoa zer ote zan? Nik irakurritau daukadan ixtorialak dionez, eun eta ogei asaltatoru jokutzen omen zuten garai artako boseolariak.

- Bai, e? Orrenbeste luzeko konbateak egitekotan, goizetik asi bearko zuten aiek, Eusebio -esanzion Uztapidek. Ateraldi polita!

Azkeneko utzi dedan gure anaiaren gertaera auxe da: Zeraindik baserria ustuta famili guziak aldegin zuela, ta Oiartzunen kaleko etxe batean pasa azken urteak. Uztapidek bixitatzen omen zuen tar-teka. Biak adin berdiñekoak ziran.

Alegi, erri polit euskaldunean

ALEGI erri polit euskaldun ortara zenbat bider pozez beterik joan geran bertso-tara ez dakienak sinistea zailla dala derizkiot. Baiña nik ezin nezake gorde berari diodan maitasun sutsurik, eta ataltxo onen bidez agertuko ditut nere sentimentu bereziak, gogoratzen zaizkidanak, ez geiago eta ez gutxiago.

Nik Alegin leenengo bertso-saioa Uztapide ta Basarri lagun nituela egin nuen. Ain zuzen ere erriko pesta nagusiak zirala ta, irurok joan giñan beste leku askotara bezelaxe, arratsalde batez; eta gaur oraindik buruan daukat orduan zer gertatu zitzai-gun: batere uste gabeko deskuido txiki bat.

Garai aietan altabozik ez genduen erabiltzen, eta plazan balkoi aundi batera eraman ginduzten, andik kantatu genezan. Jendeak entzuteko modu egokiagoan jarri, alegia, bertsolariak. Ortantxe alegindu ziran borondaterik onenez eta arrazoi osoz alegitar adiskideak.

Alaxe, leenengo agurra Basarrik kantatu zuan. Bigarrena, Uztapidek; eta azkenekoa nik, Lasartek. Ori betiko oitura izanik, entzule askorentzat gustagarria zan.

Baiña gero gauza bizixeagoak nai; ta, gai libreko saioa gendukanez, ari giñan txandaka tiki-taka, eta Uztapidek sartu zigun ziri zorrotzen bat, oitura zuen antzera. Urrenko nik erantzun bear nion legez, baiña Basarri asi zan nere aurretik presaka kanta-

tzen. Bertsoa bukatu ere bai, ta ondoren nik segi aurrera; ta Uztapideren arrazoa izan zan dotorea. Onela esan zion:

– Aizak, Basarri: leengo bueltan zergatik kendu diok Lasarteri txanda? Nun dabillen ez dakien gizonak egin oi dizkik orrelako akatsak.

Pena aundia artu zuen Basarri gizarajoak; baiña artean etzan konturatu bere utsegitez, eta neri galdetu zidan:

– Txanda kendu al dizut, Manuel?

– Bai; baiña orrek ez du inportantzirik –erantzun nion.

Barkazioa eskatu zidan bertsoz Basarrik dotore asko.

Bertsolari ederrak ziran Uztapide ta Basarri, nere gustorako. Izketan ongi zekitenak. Euskera garbia erabiltzen zuten batek bezela bestek; eta orixe da gauzarik garrantzitsuenetako bat erriari erakutsi aal izateko bertsoa ulertzen, baiña gozotasunez, ez zipozkeriz.

Aspaldiko pasadizoak idazten ari naiz, irakurle. Nik garai artan emeretzi edo ogei urte edukiko nituen, seguru esateko moduan ez nagoen arren.

Dana dala, geroztik, ixiltzera iritxi bitartean, bagenituen bertso-saio pranko egiñak Alegiko errian Uztapide zanak eta biok.

An badute *Txintxarritarrak* izeneko soziedade edo bazkune bikain bat. Urtero pesta antolatzen zuten, sozio denak bilduta, leen. Oraingoz ez dakit nola dabiltzan; baiña jarraitu dezatela lagun onak izaten urte askotan nere partetik.

Gurekin ez dira gaizki portatuak iñoiz ere, eta ni ez naiz aaztuta bizi alegitarrez. Gu joaten giñan urte umoretsu aietan, egunez egun eta ordurik ordu

pasatako une gozoak gogoratzen zaizkit, den-denak ez noski, baiña geientsuenak bai.

Goizean ostatuan gosari ederra eman oi ziguten, eta andik bero-beroa elizarako bidea artzen genduen soziedadeko lagunekin batera; ta mezetan, erri-oparia Jaunari eskeintzerakoan, bina bertso kantatu arazitzen zizkiguten. Jendetza aundiak entzuten zuen meza santu ura.

Ta ondoren bereala, zinean edo antzokian, pesta moldatzen zuten erritarrentzat. Guk bi bertso-saio egin oi genituen: pestaren asieran bat eta bukaeran bestea, tartean soiñu-jotzaille ederren baten lanaldia zalarik. Enrike Zelaia sonatua sarritan ikusita gaude soiñu jotzen, eta Alegin ere bai bein baiño geiagotan, *Txintxarritarrak* eramanda. Entzule jendeari belarriak aseko zizkion ederki. Aren talentua etzan nolanaikoa.

Uztapide bertsolariari omenalditxo bat egin zioten gaixotu ta ixildu ondoren Alegiko *Txintxarri* alkarteko lagunak, beraien maitasuna erakustearren, den-dena merezi zuelako gure Uztapide jatorrak. Ainbat bertso bikain kantatua baizan an ere, ta asko ixtimatu ziotela badakit bere langintza oparoa, leentxeago nion bezela.

Eguerdian, zineko pesta bukatu bezin laister, bazkari ederra izaten genduen soziedadean bertan, eta andik aurrera soiñua ta bertsoa aukeran arratsalde osoan. Baiña illunabarreko trenean sartu ta etxera zuzen etortzen giñanez, kontentu.

Nik ere, gaixotasunak bildurturik, bertsolaritza utzi bear izan nuen, eta omenaldi txiki bat egin ziguten Lazkao-Txiki ta bioi batera Alegiko *Txintxarritarrak*. Txomin Garmendia ta Lazkao-Txiki jardun ziran bertsoan egun maitasuntsu artan. Beraz, eskerrik asko Uztapide, Lazkao-Txiki ta Lasarteren partez.

Leengo zaarrak eta oraingo berriak

ORIOKO albisteak, leengo zaarrak eta oraingo berriak naasian, baiña Uztapiderekin zer ikusia dutenak, batzuek beintzat, ni erri ontan bizi naitenez.

Aldakuntza izugarritz arriturik nago, ta beste geiago ere alamoduz sentitzen ditut, sinistu eziñik, alegia, begien bistan dauzkagun gauzak nundik norakoak diran.

Guk, Uztapide ta biok, Orioko ondartzan egun zoragarri bat pasa genduen beingo batez. Baiña ge-roago esplikatuko det zer zan motibo berezia. Orren aurretik, kontu asko daude esatea merezi dutenak, eta oraintxe litzakela garai egokia bururatu zait.

Gorako bildurgarria deramaki erri onek. Etxe berri dotorez ornitzen ari dira kontratistak, presaka bezela. Bada mugimentua emengo erribera ederretan. Gaur lanerako dauzkaten makina ta erreminta zoragarri oien bidez, etxeak egiteko ez dago zailtasun apartekorik, nere ustez.

Baiña diru-kontuan sartzan bagera, or egon leike beste koxka bat agian, saldu-erosiak nola dabil-tzan ez dakidan arren. Nik ez baidiot iñori ezer gal-detzen, eta ezjakiñean bizi bear derrigor.

Dana dala, ondartza aldeari ere eman omen diote jantzi-berritu bikaiña, adibidez. Nik neronek ez det ikusi, zer tankeratan dagoen esateko mo-duan. Baiña leengo jatetxe zaarrak, txaletak eta

abar lurrera bota, kendu ta jendeak paseatzeko leku apraposak jarri dituztela entzuten degu.

Barra-muturrean ere itxasoari egin zioten itxitura galanta. Morro luze bat atera ta olatuaren indarra urritu arazi beintzat, gutxienez ere. Zenbat material sartu ote zan morro edo pareta artan?

Auskalo nundik artu ziran zimendu aiek. Gau eta egun gelditu gabe arri-karretoan ibiliak izan bearko zuten kamion aundiak txandaka, eta nolako arri-pusketak ekarri! Ogei toneladatik gorako pixua zeukatenak, asko beintzat, banaka pixatuta, alegia. Kanteran ebaki ta prestatuak, nai zan neurrikoak.

Gero, emen, grua indartsu baten bidez jartzen omen zituzten tolesturan egoki ta txukun.

Etzan obra motza ta txantxetakoa izan. Milloi-mordoska galanta tragatuko zuela derizkiot; baiña ortxe dago erriaren mesederako noski. Arrantzale batzuen aotik entzunda nago geroztik:

- Orain dala ona barrako ibillera esaten diagu. Berrogei urte leenago bear genian guk ori bapo, ta aurrera txalupa!

Atal onen asieran aipatzen dedan saillera itzuli nadin poliki-poliki.

Uztapide bertsolariak soldadu-lagun batzuk bazituen emen, Orion, gerran alkarrekin ibili ta an ezagutuak. Gizon patxadazkoak eta sano apartak. Beti ari zitzaizkidan esaten:

- Lasarte, guk, Uztapide ta zu bertsotan ari zeraten garaian, etxeko lanak baztarrera uzten ditugu, ta an egoten gera arreta biziz entzuten, irratiz ematen dizkigunetan. Baita Orion bertan kantatzen dezuten bakoitzean ere. Ta pentsamentu bat daukagu aspaldi ontan: egun-pasa antolatu bear degula, iñork endredatuko ez gaituen diximuloko txoko batean. Bestela jende geiegi bilduko litzake, ta ori ez da komeni.

– Arrazoi dezu. Baiña aal danik azkarren erabaki, gerorako utzi ta egin gabe gelditu ez dedin –erantzun nion.

Eta benetan artu zuen nere aolkua. Bere lagunen baimena lortu ta berealaxe zuzendu zituen gauzak, eta oso errez:

– Nik emango dizut telefonoko zenbakia; ta, orain deitzen badiozu, etxean arrapatu zenezake seguru samar.

– Bai?

Eta:

– Bai.

– Itzegingo nuke, ba, pozik aretxekin.

Alaxe, artu zuen lumeroa ta joan zan telefonora. Deitu dio eta Uztapidek berak erantzun edo galdetu:

– Nor da?

– Ni olako naiz, Manuel.

– Kontxo! Ez nuen asko pentsatzen gaur zurekin egoterik.

– Nik ere ez. Baiña Lasartek erakutsi dit zureganako bidea, ta esango dizut zergatik. Au ta au daukagu asmoa.

– Ez da batere itxura txarrekoa. Noizko erabaki al dezute? Guk jai-egunak ez dauzkagu libre denboraldi batean. Astez izan ezkerro, edozein garai litzake ona. Lasarteri esan zaiozu; ta konpontzen bazerate, abixatu dezaidala neri.

Auxe omen zan Uztapideren erantzuna, ta egun gutxiren barruan bildu giñan emen.

Orioko ondartzan bazan jatetxe bat. Beeko sarrreran jende-mordoskari ematen zioten janaria; ta, bigarren solairuan, berriz, geiagorentzat tokia presaturik zeukatenez, amaiketako ederra bertan egin genduen, eta gero bazkaria ere bai.

Maian exerita jarri goizetik eta illunabarrean jeiki bitarteko orduak usoa egan bezela joan zitzaizkigun. Ura zan poza jendearena! Tarteka bertso-saio dexenteak egiten genizkioten; eta, bestelakotan, pasadizo zaarrak kontatzen ezin aspertu.

Uztapide asko maite zuten oriotar soldadu-lagun denak.

Gaitzaren mende

Aspaldiko gertaerak idazterakoan, pentsatzen det sarritan: Noiz arte iraun nezake langintza ontan? Baiña ez dator inñundik ezeren argibiderik, eta leengo tankera berean gelditzen naiz.

Guk urte asko pasa nai genituzke bizirik, baiña zaartu gabe; ta orixe da oso zailla. Emen pertsona bakoitzarentzat muga bat jarria egongo da, ta bertan errenditu bear derrigorrez.

Uztapide bertsolaria gaixo-etxera eramán zutela abixatu zidatenean, Azpeitiko Joxe Lizaso ta biok joan giñan bixitatzera arratsalde batez; eta Getariko gaixo-zaintzaille edo enfermera batek pasilloan topo egin da galdetu zidan:

- Zer zabilta emen, Lasarte? Lagun zaarra ikusteko asmoan etorriko ziñan?

- Bai. Alaxe nator, ba. Ta ni bakarrik ez. Beste gizon au ere Uztapideren laguna da. Ez al dezu eza-gutzen Joxe Lizaso? -esan nion.

Eta:

- Ez nintzan gogoratzen. Barkatu -esan zuenean, galdetu nion:

- Zer modutan ote da Uztapide?

- Bazkaldu ta andreak eramán du terrazara denbora pasa. Baiña oraintxe esango diot nola zaudeten bere zai, ta laixter agertuko zaizute, merien-datzeke ordua ere bada ta.

– Ez ibili beintzat korrika. Guk ez daukagu presarik batere.

– Itxogin bertan mesedez –esan zigunez, bereaxe inguratu zitzaizkigun gu geunden tokira.

Uztapide lau kurpilleko silla edo karro batean exerita zerabilkien andreak, berak bakarrik pausorik ezin eman zuelako. Anka bat zearo lo arturik baizeukan. Ori gelan ikusi genion, oean sartzerakotan: eskubi aldeko anka andreak eldu ta nola jasioz oearen gaiñera.

Baiña ontaz geroxeago itzegingo det. Aurretik bada beste zerbait garrantzitsua.

Nik, pasilloan karroan andreak zeramala oarturik, urruti samarrera begiratu nion eta pentsatu nuen: “Akabo gure Uztapide! Galdu diagu lagunik aundiena!”. Ta bertaratu zanean galdetu ere bai, alkarri esku ematearekin batera:

– Zer diozu, ba, Manuel? Ondo antzean?

– Ondo egon banintz, ez nian azpiko gurdi onen bearrik, Lasarte –erantzun zidan.

Ateraldi egokia bezin dotorea umore gutxi zeukan gizonarentzat, baiña egiazkoa ta benetako sentimentuz jantzia.

Orain leengo saillera sartuko naiz berriro. Esaten ari nintzan anketik zegoela gaizki; baiña gauza geiago ere edukiko zituen seguru samar.

Oean sartu orduko, eramán zioten arratsaldeko merienda: kafe-esnea galleta batzuekin, gaixo-etxeetan oitura dan bezela, ta gustora artu zituela zirudien. Gogoz, alegia; ta itxura, berriz, oso ona zeukan.

Joxe Lizaso bertsolariak berari onela esan zion:

– Zure aurpegiko koloreak ez du ematen gaixo zaudenik, Manuel.

Eta nik:

– Sekulan ez diat nabaitu ori aurpegi txarrarekin, gaizkiena egonik ere –erantzun nion Joxe Lizasori.

Ta itz oiek guregandik entzunik, ara emen Uztapideren arrazoi dotorea:

– Ardo-kolorea zeukat nik; bestelakorik ezer ez. Gaur goizean, makinak artu ta saiatu dituk medikuak nere buru au miatzen. Ondo ikusi baldin badute, billatuko zutela uste diat talentu ederrik.

Ezaguera aundiko gizona zan Manuel Olaizola, Uztapide bertsolaria, berez; eta artean etzeukan oso galdua, naiz triste antzean zegoen arren.

Alaxe, denboraldi bat pasa genduen alkarrekin izketan, beingoz araiño joan giñan kasoan. Animo pixka bat ere eman nai, ta atal ontan aipatzen dandan Getariko enfermera sartu zan gela barrura, ta:

– Noiz kantatu bear didazu neri bertso bat, Uztapide? –galdetu zion.

Eta:

– Gero, obekixeago jartzen naizen garaian, kantatuko dizut.

Auxe izan zan Uztapideren erantzuna. Baiña enfermerak aren bertsorik entzun ote zuen? Ez det uste. Gauzak orrela baiño illunago ikusi nituen nikan.

Gu lagun maitagarri ura agurtu ta gaixo-etxetik irten orduko, Joxe Lizasori esan nion:

– Uztapidek egin dizkik emengo lanak.

– Bai?

Eta:

– Bai. Gaizki billatu diat.

Ortik aurrera beste kontu batzuk erabili genituen, eta bere artan bi edo iru egunetan iraun nuen

nik. Baiña oso kezkaturik, eta Oiartzungo bere etxera deitu nuen. Andre Kontxitak, telefonoa artu zue-nean:

– Nor da? –galdera.

Eta:

– Lasarte naiz. Zer modutan da zure gizona?

– Etxean degu ta berak itzegin naiko du zurekin. Itxogin. Berealaxe jarriko zaizu.

– Ederki. Ez dedilla presaka ibili.

Alaxe, segundo gutxiren barruan, artu telefonoa ta onela dio Uztapidek:

– Lasarte izango aiz?

– Bai. Ala naiz, ba, Manuel. Zure berri jakin naiean nengoenez, deitu det. Zer diozu?

– Zer diodan? Emen ez dek onerako itxura aundirik. Gerora ta okerrago, Lasarte. I ongi al abil?

– Betiko antzera –esan nion, eta:

– Eutsi, ba, aal badek, leengo martxari. Gizonak aurrera egiten duen bitartean, zerbaiten poza badik –erantzun zidan Uztapide aundiak.

Goian bego!

Aiako San Pedro baillaran

AIAKO San Pedro baillaran pestak zirala-ta, neri deitu zidaten Uztapide ta biok nai ginduztela bertotarako; ea libre ote geunden jakiñean jarri zedin gure eske zegoen jende bertozalea.

Auxe zan Aiako San Pedrotarren galdera umilla, eta nik erantzun nioten.

- Oso garai onean zabilzate, oraindik zuen pestak urruti daudelako. Baiña ez dakit nola moldatu bearko degun. Guk, San Pedro jaietan erri askotako abixoak artzen ditugunez, den-denetako lanak ezin genezazke egin iñolako moduz. Baiña esan zaidazute mesedez zein egunetan jarri nai dituzuten bertsolariak, nik Uztapiderekin itzegin dezadan leenbaileen.

Alaxe, erabakita zeukaten fetxa eman zidaten, eta deitu nuen Uztapideren etxera telefonoz segituan, denborarik galdu gabe; ta berak artu zuen be-larriko tresna.

- Nor da? -galdetu orduko,

- Lasarte Oriotik.

- Ederki.

- Gaur abixo bat artu det Aiako San Pedrotar-rengandik. Olako egunetan an nai gaituzte zu ta ni biok, iñundik aal bagendu.

- Kontxo! Nik ere banian iri deitu bearra, ta pa-rean etorri zaizkiguk gauzak. Gaur goizean Donostit-ik deika nizkian afari baterako; ta gero, ire berri ja-

kinda, illunabarrean erantzutekotan gelditu nauk. Aiako San Pedron arratsaldez garaiz libratzen bagera, egun berean diranez, Donostikoa ta biak egingo dizkiagu.

– Oso ongi pentsatu dezu ori, Manuel. Ni mol-datuko naiz aiatarrekin. Konfiantzako lagunak ditut eta ez dago konpondu eziñik. Zuk Donostira abixatu joango gerala biok afari sonatu ortara, ta lasai egon ditezela bitartean.

– Ez dek gaizki esaten –erantzun zidan Manuelek–. Ni iñoiz nere kasa etsi samarturik jartzen naitzenetan, kezka triste bat sentitzen diat, Lasarte.

– Zer da, ba, zure kezka estu ori?

– Asko gabiltzala parrandan eta geiegikeriz aspertuko ote geran. Oraintxe ere bolada gogorra zeukagu, ta irauten kostako zaiguk.

– Bai, noski. Baiña erriaren morroi izateak ekartzen ditu orrelako lanak. Gure eginkizunak betetzen alegindu gaitezen beintzat, eta gero ikusiko degu nola datozkigun gauzak –erantzun nion Uzta-pideri.

Ta azkenean, bildurra zeukan bezela, publikoan bertsotan ari zala gaixotu zan gizarajo ura. Baiña gozamen asko emanda bertsoa ixtimatzen zuen jendeari.

Ataltxo onen asieran diodan bezela, izentaturik zegoen eguna iritxi zanean, zintzotasunez joan giñan Aiako San Pedro baillarako lanak egitera.

Nik aurrez jakiñaren gaiñean jarrita neuzkan jai-eratzailleak illunabarrean Donostira nola joan bear genduen; eta, ori kontuan izanik, oso ongi portatu zitzaizkigun.

Goizean *Arizterrazu* jatetxe sonatuan gosari ederra eman ziguten leenengo; eta gero, eguerdi aldera, ekin genion kantuzko pestari, soiñu-joleak

ixildu arazita noski, aientzat ere atsedan pixka bat ez baizuen kalterik.

San Pedro baillaran bi jatetxe ezagutu ditugu beti: *Arizterrazu* bat eta *Olaetxe* bestea. Lan asko erabili izan dute bietan ere.

Orko berri ongi dakigu gaztetatik asita. Bertso-laritzza oso maitea du Aia aldeko jende xumeak. Euskera ugaria bezin errikoia, bakoitzak bere etxean gurasoen eskutik artutako ur garbia bezelakoxea, esate baterako, zan leen.

Oraingoz ez dakit nola dabiltzan. Gauzak agian baliteke pixkaren bat aldatzea.

Dana dala, Uztapide bertsolariari gustatu zitzaion San Pedro baillarako lagunarte atsegiña ta gozoa.

Eguna ederki pasa ta pozez beterik Donostirako bidea artu genduen. An baigendukan gauerako lantokia; ta, aurrez emandako itzari erantzun ezean, zorretan gelditzen dala badakigu.

Pertsonarentzat bajezarik aundienetako bat orixe izan liteke: gezurretan ibiltzea. Bertsolariak orrelako gutxi egingo zuten, nere ustez.

Iñoiz gertatzen dira okerrak: gaixotasunak eta abar. Alamoduz bere burua eziñean ikusi ezkeror, ordezkoren bat billatu ta bialtzea da onena. Erriak ez baidu errurik nolanai engaiñatzeko.

Beraz, goazen aurrera. Donosti aldean bagenituen parranda galantak egiñak leendik ere; baiña Aiako San Pedro baillaratik joan giñan gau artakoa apuntatzeko modukoa zalakoan nago.

Ango bertso-eskeak etzuen neurririk eta mugarik. Soiñu-jotzaille ederra ere bazuten koadrillan, eta berari eskerrak pixka bat atsedentzeko aukera sortzen zitzaigun tarteka. Baiña gure alegin denak gutxiegi zirala zirudien.

Arrigarrizko umorea ta parrandarako gogoa zeuzkan ango jendeak; eta azkenean, zorrak ordaindu ondoren, Uztapideri tasisa jarri zioten etxera joateko, ta neri ere bai Oriora etortzeko.

Arrua-goikoan omenaldi bat

ARRUA-goikoan omenaldi bat egin zioten gure lagun Uztapide bertsolari jatorrari, gaixotu ta ixildu edo geiago ez zuela kantatuko etsi zuten garaian, noski.

Baiña noiz? Orixe da esplikatuz ezin nezakeena. Ez baidaukat gogoan zein urtetan zan, garbiro esateko; ta dudako kontuak ez dira gustagarriak inorentzat.

Dana dala, omenaldiaz geroago itzegingo det. Orain aurretik bestelako pasadizo batzuk idatzi nai nituzke, berari buruzkoak.

Arrua-goikoan badute soziedade edo bazkune dotore bat. Jakingo nuke pozik Manuel Olaizola Uztapide bertsolari ospetsuak zenbat bertso kantatu zuen bazkune artan, Endoian bizitu zan bitartean alegia, Arrua bi pausotara bezelatsu zeukanez.

Etxetik irten orduko, uraxe jarriko zitzaion begien aurrean, eta pentsamentuan ere bai seguru asko; ta aitzaki gutxirekin aldegin gainera sarritan, baserriko lanak utzi ta kalera, bere lagun ixtimatuak bixitatzera.

Bertsolariaren izakera orrelaxe da. guk ezagutu deguna.

Egun bateko gertakariaz gogoratzen naiz. Arrua-goikoan pestak zirala-ta, deitu ziguten aurrez Uztapide ta bioi, sarritan bezelaxe; ta joan giñan goizetik.

Baiña ni ez nenbillen ongi osasunez. Botika asko artu bearrez medikuaren aginduz, ardorik ez edateko. Jateko denboran ere alkoola zeukan edaririk ez probatzeko. Ura ta esnea erabili nezazkeala lasai esan zidan mediku jaunak, eta:

– Oiekin ez naiz mozkortuko. Ai zer nolako bertsoak kantatu bear ditudan –erantzun nion–. Leen *mosto* agintzen zenidan. Aaztu al zera artaz?

– Aizu, Lasarte: *mosto* ona da; baiña alkool pixkaren bat eduki lezake.

– *Mosto* ona dala diozu? Asko edaten al dezute medikuak? *Mostoak* txoratu arazteko bakarrik balio du. Beste ezertarako ez.

Auxe zan eman nion erantzuna, ta parra saltatu zitzaion mediku jaunari. Konfiantzako kontuak.

Arrua-goikoan ere orrelako zerbait gertatu zitzaigun. Goizean gosari itxurazkoa prestatua zeukaten, lagunartean egin genezan.

Gure zai zeuden eta, bertara iritxi bezin azkar, maiaren gaiñean bazan janariz aukera, ta era berean ardo onetik. Baiña neretzat alpertsurik. Jaten asi ta bereala ura eskatu nuen, eta:

– Ez al dezu ardorik edaten, Lasarte? Pixka batek ez lizuke kalterik egingo.

– Medikuaren ustez bai. Alkoola duen edaririk ez probatzeko ordena daukat. Sagardorik ere ez.

– Ederra badaukagu, ba, ta emango genizuke pozik.

– Pentsatzen det. Baiña sagardoak berak ere izango du alkoola, gutxi edo geiago; ta nik esnea ta ura bakarrik ditut libre, oraingoz beintzat; eta gero ikusiko degu nola dijoazen gauzak.

Alaxe, eguerdiko bertso-saioa berandu-antzean jarri zigutenez, ura bukatu ta bazkaltzera.

Nere aldemenean Urtain zaarra exeri zitzaidan, Urtain boseolaria ta senide-talde orren aita. Uztapiderekin konfiantza aundia zuen. Gizon atsegin aparta zan lagunarterako.

Bai indartsua ere benetakoa. Landu gabeko arri baldarrak jasotzen, uraxe baiño ederragorik ez dakit nor izan ziteken garai aietan.

Arrua-goikoan onela esan zidan Urtain zaarrak:

- Beraz, urdailletik gaizki zabilta, Lasarte?

- Bai; naiko bigurri -erantzun nion.

- Zer daukazu: ultzera?

- Ala dirudi.

- Ori umoretsu kantatzeko lagun txarra izango dezu. Nik urte batzuetan erabili det urdailleko ultzera, ta badakit nolako alaja dan. Ikaragarrizko oiñazeak pasatzen nituen, boladatan batez ere. Esango dizut, Lasarte, zertaraiño iritxi nintzan azkeneko. Goiz batez, oetik jeiki ta, beti bezela, ukuilluko lanak egin bear leenengo. Asi naiz beiak jezten, errapeko esnea kentzen alegia; ta etorri zait bildurgarrizko miñaldia. Eldu diot beiari saietseko larru-azaletik ortzekin, eta pusketa ebaki gaiñera. Ortzak batetik bestera pasa. Marrua atera arazi nion bei gaixoari. Orrelaxe ibili ondoren, medikuarengana joatea erabaki nuen; eta, pure-gauzak bakarrik jateko ta esnea bildurrik gabe artzeko esan zidanez, egun bakoitzean bost litro esne edanez ibilita sendatu naiz, Lasarte. Zuretzat ere ona izan liteke ori -zion Urtain zaarrak.

Baiña ni operatu egin ninduten, beste jokabiderik etzegoelako.

Dana dala, goazen aurrera, atal onen asieran erdizka utzi dedan Uztapideren seaska zoriontzera, mereziko du noski ta.

Arrua-goikoan omenaldi bero anaikor bat jaso zuen Manuel Olaizola Uztapide bertsolariak, ongi irabazita zeukana, dudarik gabe.

Ta oso pesta polita antolatu zuten gaiñera arruatar lagun-taldeak. Egun berezi artarako baziran kirolari onak, aizkolariak eta abar. Bagiñan bertsolariak ere; ta bazkalondoan, berriz, oroigarri dotorez apaindu zuten, eta kontentu gure Uztapide zana.

Uztapideren umore aberatsa

UZTAPIDEREN umore aberatsa zertaraiñokoa zan esplikatzea ez da batere lan xamurra. Bere gustoko lagunartean zegoenetan, egunez bezela gauez, gizon jantzia ta patxada ederrekoa ikusten nuen nik ura. Biotzez gozoa. Izlari egokia ere bai. Era berean, aldemenean jartzen zitzaionik etzuen aspertu araziko berealakoan.

Oiartzungo Ergoien baillaran bizitu zan luzarotan bere familiaren babesean, eta Euskal Erri osoaren serbitzurako beti prest sentitzen genduen, morroi umil baten antzera. Arek bazekien oiñak eta burua nundik nora erabili, estrapozu aundirik egin gabe.

Karta-jokoa gogozko zitzaion tarteka; baiña gastu gutxikoa. Dirurik ez zuen jokatu nai izaten. Kafe, kopa ta orrelako gauzak bakarrik. Denbora pasako kontuak dira oiek.

Endoiatik Oiartzungo Ergoienera anaia Nazario ta biak bizilekuz aldatu ziranean, oillo-granja jarri zuten an, baserri txiki-antzeko bat erosita, txukun.

Eta Manuel Olaizolaren andre Kontxitaren aita Krisostomok ostatua zeukanez, bertan apupillo artu anai biak, Nazario ta Manuel, beraiek ala nai zutelako noski.

Ta denboraren bidez tratatzen asi poliki-poliki ta azkenean ezkontzera iritxi, gaiñera, Krisostomoren alaba Kontxita eta Manuel Uztapide bertsolari sonatua.

Egun batez kontatu zuen istori polita. Kontxita artean andregai egin berria, ta zaldia ta karroarekin joan dira Irungo azokara oillo-arraultzak saltzera; ta, an tokia artuta, jendeari Uztapide bera ari omen zan arraultzak ematen, eta Kontxita kobratzen.

Alaxe, inguratu zaio gizon bat Uztapideri, ta onela dio:

– Salmenta ona al daukate arraultzak, Uztapide?

– Bai; dexentea. Ekarri degu mordoska ustez, baiña geientsuenak eraman dizkigute, ta laister bukatzeko moduan gera emengo lanak, gaurkoak beintzat.

– Ederki! Laguntzaillea ere dotorea daukazu. Alaba al dezu neskaxa gazte ori, Uztapide?

– Alaba da, bai; baiña ez nerea. Beste batena. Nik andregai det ori, kostata billatua.

Ara emen Uztapidek bere-bereak zituen eran-tzun egokietako bat, irakurle. Nai duenak sinistu dezan idatzita gelditzen da. Nik beraren aotik entzun nuen bezelaxe kontatzea besterik ez det egin, eta goazen aurrera, ataltxo au osatu arte.

Beste gertakari zelebren bat ere kontatu bear det, gogoan daukadan modura.

Erri txiki batetik deitu ziguten: aspaldiko urteetan bertsoaririk ez zutela eraman pestetarako, ta jendeak eskatzen zituela; baserritarrak, batez ere, bertsoak entzuteko zaletasuna zeukatela, ta ea joateko moduan geunden jakin naiean.

Telefonoz deitu zioten Uztapideri, eta neri abixoa egun berean pasa zidan Uztapidek. Telefonistak enkargua artuta, bereala bialdu zuen gure etxera: alako ordutan joateko telefonora, Uztapideren partetik.

Ez nuen luzaro zai egon bearrik izan. Izentatutako garai juxtuan deitu zuen Uztapidek:

- Lasarte al aiz?

- Bai.

- Ederki. Gaur goizean artu diat abixo bat, eta irekin itzegin bearrekoa, ara erantzuna eman aal izateko.

Erriaren izena daukat burutik galdua. baiña Naparroan zala uste det diodan au seguru samar.

Dana dala, erri artan ezagun gutxi gendukala pentsatzen genduen guk; baiña batekoz bestera gertatu zitzaigun gauzak. Oso ondo tratatu ginduzten. Borondate oneko jende apala antxe zegoela sinistu arazi ziguten.

- Uztapide ta Lasarte emen dizkiagu, guk nai genituen bertsolariak. Gaur egun ederra zeukagu, mutillak -esaten zioten gazte batzuek alkarri.

Artean nola kantatuko genduen jakin ez, ta onelako itzak atsegingarri zaizkio bertsolariari. Alperrik litzake ori ukatzea. Uztapidek onela zion:

- Entzuten al dek, Lasarte, zer esaten ari diran oiek? Asko espero dutela, alegia, ta ematen kostako zaigula pentsatzen diat nik.

- Ba, agindu arte lasai egon gaitezen beintzat, eta gero asiko gera dauzkagun bezelakoak kantatzen -erantzun nion nere lagun Uztapideri.

Ta eguerdiko bertso-saioaz poztu zala zirudien ango jendeak, eta guk uraxe nai.

Bazan nork konbidatua. Ostatu batean sartu ta maiän exeri giñan gazte batzuen aginduz, eta berealaxe joan zitzaigun etxekoandrea zer artu bear genduen galdetzera, emakume edadetua dexente, ta onela dio:

- Beraz, zuek zerate bertsolariak?

- Bai. Alamo­duzko bi -erantzun nion nik.

Eta urrengo galdera Uztapideri egin zion:

– Zu izango zaitugu zaarrena?

– Ez, noski. Nik zaar-itxura gaztetandik det; baiña Lasarte ni baiño zaarrago da.

– Bai?

Ta:

– Bai. Orren semea ere nerea baiño leenago jaio zan.

Uztapideren erantzun ederra!

Bidañin egun zoragarri bat

BIDAÑIKO gertaeraz gogoraturik aстера noa idazten, ea osatzen dedan gaurko ataltxo au itxurantzean.

Bidañi oso erri polita da, irakurle. Zuk jakingo dezu ori leendik ere, baiña berriro esateak ez dizu kalterik egingo, ta nik nere iritzia agertu det, besterik gabe.

Emen, Gipuzkoan, bi erri omen daude altura berdin samarrekoak, adibidez, Elgeta bat eta bestea, berriz, Bidañi, kukurruku langa gaiñetik jotzen duten oillarrek bezelaxe.

Nekazaritza izango zan eginkizun nagusia, Bidañi aldean batez ere. Baserri eder asko dirala inguru aietan entzun gabeak ez gera, ta orrek adierazten digu garbiro bertako jendea zertatik bizitu dan, batere dudarik gabe noski.

Leen, gure gazte denboran, Bidañiko baba txikiak eta babarrun gorriak edo beltzak fama izugarria zuten. Tolosan jartzen zituzten salgai, ta nork erosirik etzan faltako.

Mendi altuetan sortzen omen dira baba txiki ta babarrunik fiñenak, eta jateko gozoenak ere bai. Ori aspaldiko esaera danez, nik neronek beintzat ontzat artua daukat.

Bidañiren kasoan, berriz, ez dago zer esanik, mendiko alturak balio baldin badu, Ernioko gaillurretik urrean dago ta.

Norbaitek pentsatu lezake agian nere idazkera ikusita:

– Kontxo! Lasartek Bidañiko erria gora jaso nai dik; edo, bestela, Erniomendi beera jetxi.

Ez, irakurle, ez. Orrelako asmorik ez det, bakoitza bete tokian uztekoa baizik, eta kito. Emen gaia bear da papera betetzeko; ta, ortik aparte, pasatako gauzak kontatzea ere ez dago gaizki.

Uztapideri eskeintzen dizkiodan albiste zaarretakoak dira idazten ari naizen auek; berak pozik entzungo lituzkenak, gaur bizirik balego. Bidañiko berri ongi baizekien arek, beste ainbat erritakoa ez-ezik.

Egun batez gogoratzen naiz bereziki, ta au ezin-go det urrengorako utzi, argibidez osatu gabe. Zenbat urte diran ez dakit seguru adierazteko. Orretzek ematen dit pena, baiña orduan ikusitako pasadizo geientsuenak buruan dauzkat oraindik ere zorionez, eta kontatzera nijoa poliki-poliki.

Maiatza zan. Loraila, nai badezu, irakurle. Urte-garairik ederrena juzkatu izan deguna, eguraldiak laguntzen digunetan batez ere. Maiatzak jantzi-berritzen baiditu soro, zelai, zugaizti, lorategi ta gauza guztiak, jeneralean beintzat.

Dana dala, Gipuzkoan oitura aundia zuten leen baserritarrak San Isidro egunez jai egiteko. Erri denetan, gaiñera, gutxi edo geiago.

Ta andik urrengo igandez, berriz, probintziala deitzen zioten ospakizun dotore bat izan oi zan, Gipuzkoako nekazarien artekoa, urte bakoitzean erri banatan txandaka antolatua, ikuskizun ederrez: aizkolari, arri-jasotzaille, pelotari. soiñu-jole, bertsolari, idi-probaz eta abarrez.

Gipuzkoa osoko jendea bildu arazten zuen diodan egun berezi arek. Baiña baserritarren kooperatiban edo zerbaiten aginpidea zeukatenak bakarrik

agertuko ziran. Erri bakoitzetik iru edo lau gizonezko, gutxi gora-beera esanda.

Nik aipatzen dedan Bidañiko billera garrantzitsu ura ere probintziala izenekoa izan zan, eta ara emen oroigarri polita.

Azkoitiko Atano Irugarrena pelotari ospetsuak Bidañiko eliz azpiko arkupean pelota-partidua jokatzen zuen. Bere kontra jardun zan beste pelotariaren izenik etzait gogoratzen une ontan. Lastima! Baiña aspaldiko kontuak diranez, ez da arritzekoa aaztutzea.

Atano irugarrena, ikusgarri ederra benetan, pelotari artista, ordurako zaartua bazegoen ere. Bidañi aldean jendea gustora utzi zuela zirudien.

Oraindik bizi omen da. Larogei ta amasei urte urreratuak dituela esan zidan Azkoitiko gizon bategarri. Ez da kontu zaarra diodan au; bi illabete barrukoa.

Gu, Uztapide ta biok, giñan bertsoan Bidañiko pesta dotore artan. Eguerdian plazan, agindu ziguten garaian, bertso-saio bat egin genduen; eta gero, bazkalondoan, jarraipena. Ez giñan ixilik egotera joanak. Entzule jendearen egarria ase nairik, antxe kantari, ta pozik gaiñera.

Baserritarrak merezi baizuten ainbeste ta geiago ere, konturatzen bagera beraien bizimoduz. Nekazaritza lan astuna dala badaki probatu duenak. Ganaduari errapetik esnea kenduko badiozu, aotik ongi gobernatu. Bestela, esaera zarrak adierazten duena dator berealaxe: ez eman eta ez artu. Alperrik denbora galtzea bezelaxe da ori, nere ustez.

Dana dala, nik Bidañin pasatako egun zoragarri, ango lagun eta Uztapideren jatortasunez aaztutzen ez daukat errez; ta, zerbait oker idatzi baldin badet, barkatu mesedez, irakurle.

Egazkin txikiaren zai

EGUN bateko gertaeraz gogoratu naiz, zerbait idazten asterakoan. Ez da oraingoxe kontua. Auskalo zenbat urte diran. Den-denak zuzen eta garbiro esplikatuta aal izateko denbora geiegi pasa da geroztik. Baiña bearrezkoenak bururatzen baldin bazaizkit, esango ditudala ziur egon zindezke, irakurle.

Guk istori asko aaztu ta baztarrera utzi ditugun bezela erdizka apuntatu bagenitu, ta jaso armarioko txokoren batean, gaur ez gendukan batere buruausterik erabili bearrik idazlanetan.

Baiña nik neronek beintzat ez nuen sekula pentsatu liburuak egitera iritxiko nintzanik. Ortxe eduki det okerra, ta zuzentzerik ez dagoena iñundik iñolaz ere.

Bertsolariaren izakera zer dan probatu degu ederki asko. Egun onak, erdipurdikoak eta nolabaiteko samarrak egokitzen zaizkio; ta uste gabeko gauzak ikusi ta ikasi ere bai, alde batetik bestera dabilhela.

Atal onen asieran diodan gertakari zelebre ura garbiro idatzita uztea egokia litzakenez, ortantxe saiatuko naiz une batez.

Ondarribin pestak zirala ta, bertsoarako deia artu genduen aurrez. Gu, Uztapide ta biok, giñan erri dotore apain artan kantatzen genduen bertsolari jakiñak geientsuenetan. Baiña ondarribitarren

erabakiz lau jarri ginduzten. Bat Basarri zan; eta bestea, berriz, Azpeitiko Joxe Lizaso, ni oso oker ez banago beintzat.

Beraz, errez egin genituen an agindu zizkiguten lanak, lau bertsolariren artean.

Goiz-partetik, beeko zumardian antolatzen zizuten ganaduen sariketak. Esne-bei ederrik eraman oi zuten Ondarribin bertako eta Irun aldeko baserritarrak, aipatu dedan zumardi artara. Bai zezen bikaiñik ere. Gipuzkoako Diputazioa jabetzen omen zan antolaketa artaz, adibidez.

Erri geiagotan ere egin oi ziran ganaduen sariketak: Irunen San Martzialetan, Elgoibarren San Bartolomez, Ordizin iraillean eta abar.

Guk denetan artzen genduen parte bertsolari gisara; ta, ganadu tartean ibiltzen oituak giñanez, begiei gozamina ematen genioten, bei, bigantxa eta zezen eder aiek ikustean.

Dana dala, Ondarribin, kale estu samar batean ere, sarritan kantatuak gera. Agian uraxe izango zan gure aurreko bertsolari zaarrak kantatzen zuten leku famatua. Nik seguru ez dakidan arren, badaezbada ere diot au. Baiña goazen lengo bidera poliki-poliki.

Uztapide, Basarri, Lizaso ta ni, Lasarte, laurok bildu giñan egun artan. Eguerdiko saioa bakarrik jarri ziguten plazan, edo zumardian, garbiago adierazteko; eta gero, bazkalondoan, maian bertan beste jo-aldia, bertsozaleak ase bitartekoa, ta denok kontentu.

Baiña egun berean Bilbaon bertsolari-txapelketaren finala omen zegoen; eta Uztapidek bazekien, Basarrik ere bai, ta Lizasorena ere seguru samar jutzen det. Ni nengoen ezjakiñean, sarritan bezelaxe, egunkarietako albisterik irakurtzen ez nuelako. Ta antxe, maian, aipatu zuen batek:

– Gaur Bilbaon nolako bertso-saioa izango ote da? Urrean balego, joatea merezi likek. Baiña urruti zegok ura; ta, orduak ere aurrera dijoazenez, obeko diagu ementxe bertan gelditu ta kito.

Erabaki ori entzunik, udaletxeko agintarietako-
ren bat zala uste det esan ziguna:

– Zuek ala nai baldin badezute, egazkiña edo abioneta artu ta berealaxe Bilbaon zaudete; ta neronek deituko diat telefonotik aireportura, egazkiñen geltokira alegia.

Ta orduan Basarrik onela dio:

– Abioia dek ederrena ibilirako. Baiña txiki oiek ez dituk oso seguruak.

Eta Uztapideren erantzuna:

– Aundiak ere, aberiatu ezkeru, laixter beera jexten bazekitek. Orrekin ez dek, gizona, ezer esaten. Gaur gertatu bear al du, ba, derrigor okerra, Basarri?

– Ez. Ori egia diok ik, eta denok joango gaituk.

Auxe zan Basarriren erantzuna; ta deitu zuen telefonotik egazkiñen estaziora leentxeago aipatu dedan gizon leial arek, eta esan omen zioten:

– Abionetak serbizioan dabilta momentu on-tan. Denak kanpoan dira. Baiña bateonbat laixter etorriko da, ta geronek deituko dizugu. Emaidazu zuek zaudeten ostatuko telefonoaren zenbakia.

Eman ere bai. Ta an dijoakigu gure adiskidea, txoria baiño kontentuago, ta onela dio:

– Nik itzegin diat ango kargua daukanarekin, eta oraingoz kanpoan dirala esan dik abioi txikiak. Baiña berealaxe itzuliko dala bakarren bat, eta deituko digula gauden lekura.

– Ederki.

Artean denbora bazegoela ta beste bertso-saio bat egin genduen. Ixildu ere bai. Ta, Bilbaora joate-

ko berandutu zitzaigunez, etxera etorri ta pakea.

Baiña guk espero genduen abioi ura, bueltan zettorrela bidean erori zala esan ziguten andik egun gutxira.

Bertsolaritzaren muga juxtuak

BERTSOLARITZAREN muga juxtuak nork ezagutu ote ditu? Au da gaurko nere atal onen bidez egingo nuken galderatxo bat. Baiña ez dedilla iñoren mingarri gertatu, edo ez dezaidala bateonbategaizki artu mesedez, borondate txarrik gabekoa da ta.

Bertsoa bertsolari bakoitzak bere erara moldatzen du. Zer esan nai digu orrek? Denon buruko pentsamentuak ezin leizkela berdiñak izan iñolako moduz.

Ni ori gogoan dedala bizi naiz, irakurle. Ez dakit zurekin bat etorriko naizen edo ez. Baiña konparazio txiki bat jarriko det, eta bera aski da gauzak ulertu aal izateko.

Bertsoaren lau oiñak sarritan eman zaizkiote bertsolariei, banaka artuta. Beste gaiñontzekoak entzuten ez dutela, kartzelara eramanda edo ezkuktuko zokoren batean sarturik daudela alegia, txapelketako egunetan batez ere, ta bestelako bertso-saioretan ere bai gure garaian beintzat erriz erriko bertsogintzan modan ikusi genduen jokabide ori.

Baiña sekulan ez det bertso igoalik entzun. Batek modu batera artuko ditu oiñak, eta besteak beste aldetik. Gai-jartzailleak agintzen duen bezela erabiltzea ez du derrigorrezkoa bertsolariak, kantatzerakoan.

Lau oiñak edo puntuak nai duen tokira aldatu lezazke, lenengoa bigarreneira, irugarrenkoa lauga-

rrenera ta orrela. Baiña izentatzen zaizkion puntu berberak errespetatu bearra dauka, nai ta nai ez. Bestela, aietakoren bat galtzen baldin badu deskuidoz, akabo! Txoriak aldegin dio eskutik, puntuaziorako zulo galanta utzita.

Errimak ongi uztartzen ere kostatzen da bazuetan, baldar antzekoak diranetan beintzat; eta den-denak txukunak ezin billatuz ibili oi dala bada-kigu kargu ori bere gain artzen duen jendea, naiz eta buruz argia izan arren.

Beraz, bertso txarrak entzun ditudan bakoitzean, ni neroni ez naiz batere arritu. Gizonaren utsegiteak ulertzen jakin bear genduke, ta kito! Emen deskuidorik ez duenik ez dago iñor.

Egun batez lau bertsolari ari giñan txandaka kantari; eta, banakako gaiak zeuzkanez, aiek eman zizkigun gai-jartzailleak.

Gu, Uztapide ta biok, elkarren ondoan exerita geunden. Beste bi bertsolariak nor ziran esateko ez naiz gogoratzen une ontan; baiña berdintsu dala derizkiot.

Beraiek kantatu zuten leenengo. Iruna bertso-tan osatzen zan banakako gaia, ta saillean eraman zuen martxa punta batetik bestera.

Irugarren aulkian zegoenez, Uztapideri deitu zion urrengo, ta arek ere egin zuen bere lana. Baiña bertso batekin ez omen zan oso gustora gelditu, eta neri gauza bera gertatu zitzaidan. Bi bertso politik kantatu nituen ustez. Baiña azkenekoa ez ain ego-kia; ta, exerlekura joan nintzanean, Uztapideri esan nion:

- Bukaerako bertsoan utsegin det, Manuel. Atze zorrotza irten zait, larre-beiak bezelakoa.

Eta, ori entzunik, onela dio Uztapidek:

- Ez aiz i bakarrik deskuidatu, Lasarte. Nik ere bi bertso dexente moldatu dizkiat; baiña irugarren

kantatu dedan ura naiago nian beste norbaitena izan balitz. Alare, txalo ederrak jo dizkik jendeak, eta or konpon! Gaurkoa bazijoakiguk aurrera, ta kito!

Ara Uztapideren arrazoi dotorea bezin txukuna.

Beste pasadizo zelebren antzeko bat ere idatzi naiean nengoen, eta oraintxe det aukera paregabe-koa.

Erri ezagun batean, gaueko amarretan asita, bi bertso-saio egin bearrak genduzkan. Kantore, dantzari ta orrelako talde politak tartean genituen, eta alkarri txanda emanaz osatu genduen jaialdia.

Gu, Uztapide ta biok giñanez, aurrez itzeginda geunden noiz eta nora bildu arratsaldean, alkarrekin joateko diodan erri artara.

Baiña egun bereko goizean deitu diote telefonoz Uztapideri beste erri batetik, azkeneko orduan bezelatsu, bertsolariak bear zituztela biaramonerako, ta Uztapideren galdera:

– Zein bertsolari nai dituzute, ba?

– Zu bat; eta bestea Lasarte.

– Bueno, biar bertsolariak jartzeko, gaur abixatu? Nun egon zerate leen?

– Noizbait erabaki degunean deitu dizugu, ta barkatu mesedez. Baiña biar goizetik emen espero zaituztegu.

– Ori orrela baldin bada, segurutik jokatu bear-ko det, eta Lasarterekin itzeginda deituko dizut eguerdi inguruan. Emaidazu telefonoko lumeroa –esan omen zion Uztapidek.

– Bai pozik, noski.

Ta segituan Oriora etorri zitzaidan Uztapide nere lantokira, ta onela dio:

– Gizon salduak gaituk, Lasarte. Biar libre al ago?

- Bai. Zer dezu?

- Presako enkargu bat. Alakok otsegin dik gure etxera gaur, eta biar an nai gaituztela biok.

- Bueno, joango gera.

Alaxe, telefonoz deitu zuen Uztapidek Oriotik, eta lasaitu zan.

Nik esan nion:

- Leenengo gaur gaueko lana daukagu.

- Ta debaldekoa bat geiago apunterako -erantzun zidan Uztapidek.

Idiazabal eta Zepai bertsolaria

IDIAZABAL ongi ezagutzen genduen leen, erri polit, txukun ura. Ainbat urtetan bertsoan pozik jardunak baigera San Blas pestetan ango jende jatorraren aurrean.

Plazako kioskotik kantatu arazten ziguten eguraldi onean bezela txarrean. Negu gorriko jaiak izanik, zetozen modukoak artu bearra zegoen, nai ta nai ez. Uztapidek esango luke, gaur bizirik balego. nolatsu ibili oi giñan. Idiazabalen konfiantza aundi-ko lagunak billatzen genituen guk.

An badute soziedade edo bazkune dotore apaindutako bat. Urtean bein, gutxienez ere, billera ospatzen zuten, bertako sozio denak alkaturik; eta Uztapide ta ni, Lasarte, aukeratzen ginduzten bertso-tarako.

Zenbat egun eder pasata gauden koadrilla paketsu zoragarri artan esaten oso zailla da neretzat onelako ataltxo baten bidez. Baiña geiago ezingo dedala egin ulertuko didatelakoan nago.

Idiazabaltarrak ez dira gurekin gaizki portatuak. Goizetik egun guztirako joan da leenengo gosari ona emango ziguten. Zer nai zan artu, uraxe mai gaiñean jarri, gozo asko prestatua.

Ori, edozein ostatutan. Denetan baigendukan konfiantza, eta atea zabalik gaiñera, garai artan, Idiazabalko soziedadean.

Gaur ez dakit nola jarraitzen dioten martxari. Agian baliteke pixkaren bat aldatzea gauzak, ni an

azkeneko aldiz izan nintzan ezkeroztik. Baiña nekez galdu oi dira leengo oitura bereziak, erri txikietan batez ere.

San Blas jaietan pestak antolatzeko estalperik gabeko plaza libre ez da batere gustagarria, urte-garaiari begiratzeko badiogu beintzat. Geientsuene-tan eguraldiak erabiltzen baiditu bere bigurrikeri gogorak.

Ala ta guztiz ere, gu kantari noiz asiko zai egongo zan jende bertsozalea, goardasolak edo aterkiñak zabaldu ta aien babesean, euri-eraso zital antzeko-ak goitik beera zetozenetan beintzat; eta, zeru-goia argi bazegoen, berriz, izotza ta jela etziran faltako, beti zerbait pestari gozotasuna galdu arazteko. Ne-gua orrelatsu da, gutxi gora-beera esanda.

Baiña orain badaukate frontoi bikaiña, Idiazabalek merezi zuen bezelakoxea.

Legorpe on bat komeni zaio erri bakoitzari. Gazte jendeak eduki dezala nun jolastua pelotan, dantzan eta abar, bertan, bestela erriz kanporako bidea artu lezake ta.

Dana dala, Akelino Eizagirre *Zepai* bertsolaria-rengana pasa nai nuke. Aspaldi illa dan arren, gogoratzen naiz artaz ere. Nola ez, alkarrekin bertso-tan ibiliak izanik?

Neretzat gizon atsegiña zala aitortzeko ez daukat kezkarik. Ostatua edo jatetxea edukitzen zuen Zepai zanak Idiazabalen.

Bere andrea sukaldaritzan oso txukuna omen zan, nik entzueren dedanez; eta, urte-mordoska dituen arren, oraingo berririk ez dakit, baiña bizirik iraungo duelakoan nago. Ta jatetxeko martxa, berriz, semeak eta bere familiak eramaten dutela uste det.

Ostatu ura puntu onean jartzearekin asmatuko zuten, dudarik gabe. Kamioneroak, bazkaltzen eta

afaltzen, asko gelditu oi zirala esaten zigun guri *Zepai* zanak berak. Aparkalekua ere aurreko aldean bertan daukanez, erosotasun aparta billatzen nunbait txofer jendeak. Kamionak uzteko bezela artzeko libre, alegia; ta orretzek ematen ostalariari ogibidea, itxurak diranez.

Nik Zepai bertsolari-modura ezagutu nuen dexente. Bestelako bizitzan batere ez. Sekulan ez genduen arremanik izan alkarrekin ezertan ere.

Baiña Uztapide ta biak oso lagunak zirala badakit, Donostiko Antiguan zerbeza-faubrikatik asita batez ere. Naiz eta aurreragotik bertsotan ibili ziran arren, zerbezerian konfiantza ugaritu leenez gaiñera, biak batera lana egin zutelako.

Zepai gizon alaia ta txistoso utsa zan bere iza-keraz. Egun batez, Uztapideri deitu dio telefonoz; eta onek, zintzarri-otsa entzunik, artu belarriko kaxarroa, ta:

– Nor da? –Uztapidek berak.

Eta:

– Zepai nauk, Manuel.

– Kontxo, Akelino! Zer dek?

– Bertsotarako abisoa zeukat iretzat. Libre baintzake, alako egunetan olako erritara biok joatea nai ditek.

– Ori besterik ez bada, egingo diagu, Akelino.

Eta “Nun ago?” Uztapidek galdetu dionean, “Ni telefonoan” Zepairen erantzuna. Arrazoi motza ta egokia benetan. Au Uztapidek esanda dakit nik.

Beste batean, Elgoibarren San Isidro egunez kantatu genduen Zepaik eta Lasartek. Baiña illunabarrean estuasunak, Bilbaotik Donostirako trena berandu zetorrelako. Zepaik Amaran utzi ura ta Nortekoa artu bear zuen Beasaiñerako.

Ta Elgoibarren trenaren aurreneko kotxean sartu ta bagatoz; eta, Debako estazioan gelditu orduko, joan da Zepai makinistarengana, eta esan dio ea Donostira noizko iritxiko dan.

- Presa al dezu? -galdetu dio makinistak.

- Bai, ba!

Abiatu da trena ta sekulako martxan. Ura tornillo-otsa!

Tripa jate latzak

UZTAPIDE gizon maitagarri utsa, neretzat ez-
ezik, beste askorentzat ere, Euskal Errian
iñoiz aaztuko ez dana, nere ustez.

Burua ongi betea, biotz ase eta arrazoi sendo-
ak zituen arek. Eskola aundirik ikasi gabeko jakin-
tsua. Izketan egokia.

Gizon txikiari zegokion mailla errespetatzen ze-
kiena zan ura, ala komeni izan ezkerro beintzat. Eta
agintaritzan aurreko puntan zegoen norbaitekin
gauza berbera egingo zuen: xuabe ta gozo tratatu.

Bakoitzak berea bearrezko duela adierazten di-
gu jokabide orrek, eta ezagueraren umiltasuna zer
dan erakutsi gaiñera, era berean.

Egun batez gertatu zitzaiguna gogoratu zait une
ontan, urte-mordoska pasa dan arren. Geroztik ne-
re buruan dagoena izanik, idatzita uztea mereziko
duela derizkiot.

Ormaiztegiko pestak badakizu, irakurle, noiz
ospatzen diran: San Andresetan. Eguraldi txarra
geiagotan ezagutu degu, ona baiño. Urte-garaia ere
alamoduzkoa, ta bigurrikeria aukeran.

Leen, gure gazte-denboran, udaberria ta udara
egin oi zituen oso ederrak, eta udazkena ain segu-
rua ez. Erdizkakoa edo naasia, sarritan beintzat.
Eta negua, berriz, bildurra biotzeraiño sartzen zuen
petral oietakoa.

Gogorra guztiz, baiña derrigorrezkoa, lurralde auetan zer janik sortuko baldin bazan. Beraz, sinistu dezagun txarrik gabeko onik ez dagoela izaterik.

Azken aldiko urte auetan aldakuntza nabarmenak ikusten ari gera. Nik ez dakit zergatik, baiña neguan dabilta girorik onenak. Udaberrian eta udaran ez dago ezertarako segurantzirik.

Dana dala, itzuli nadin berriro leengo tokira, Ormaiztegi aldera alegia.

San Andres egunez bertsoara joateko itzemanik geunden Uztapide ta biok. Goizetik saio bat eta arratsaldean bestea zeuden izentaturik. Ori bagenekigun aurrez, andik deitu zigunak esanta; ta nik emen, Orion, goizeko autobusa artu nuen Lasartera zijoana. Gero bertan trolebusak baizeuden aukeran Tolosarako.

Dotore antzean nenbillen ustez; baiña zearo aldrebes irten zitzaizkidan gauzak. Tolosako trenaren geltokian biajerako txartelak erosi ta zai jarri giñan jende-mordoska, ta trenik agertzen ez. Ura zan tripa-jatea!

Alako batean, orratik, altabozetik esan zuen norbaitek trena bidean eta oso leku txarrean aberiatu zala, ta gaizki ibili zirala; baiña martxan jarri zutela ta berealaxe iritxiko zitzaigula.

Nik neronek pozik entzun nuen abixo ura. Baiña orduak aurrera zijoazen neurrian, estutzen ari nintzan:

- Gaur ikaragarria bota diat, eta ormaiztegitarrak asarretuko zaizkidak betiko!

Orixe neukan pentsamentuan, iñun ezin kabitzuz nengoela. Trena nola zetorren ikusi ta orduantxe pixka bat lasaixeago jarri. Alpertsurik, ordea. Tolosatik Ormaiztegi bitarteko bidea etzan motza neretzat.

An trenea gelditu zanean, jetxi ta nik eramane nuen anka-jokoa! Korrika erriko plazaraiño; ta Uztapide, zai egoten aspertuta, bera bakarrik bertso-tan aстера zijoala arrapatu nuen.

– Etorri al aiz, Lasarte? Okerren bat izan da? –esan zidan.

– Bai, gizona. Gaur egunari asiera ederra eman diot. Oraindik baraurik nago, baiña gero bada denbora alimentzatzeko; ta asi gaitezen kantari, entzule jendea urrutira zabaldu baiña leen.

Eta alaxe egin genduen bazkal aurreko bertso-saioa, ta kontentu ainbestean ere. Iñork etzuen arrazoi txarrik neretzat.

Ostatuan bildu ta zer gertatu zitzaidan esplikatu nioten garaian, Uztapideren ateraldi dotoreak eman zigun erabakia. Onela zion:

– Ik esandako denak egiak dirala bazekiat nik, Lasarte. Gizon pobrearen suprimentuak dituk oiek. Jurnal aundia irabazteko modua eduki bagendu, Tolosan tasisa artuta etorriko intzan, trenaren berri jakin dekenean. Baiña duro bat artzeko bi aurretik besteri emanda, etzegok ezer etxera eramateko. Nik ere, ik gaur bezela, tripa-jate latzak pasa nizkian, oraindik denbora asko ez dala. Gogoratuko aiz noski artaz, Lasarte.

– Bai, Manuel. Ongi, gaiñera –erantzun nion.

Aren pasadizoa kontatzea merezi duena da, ta saiatuko naiz, irakurle, zuri ulertu erazten.

Ezoz baillaran pestak ospatu nai ta guri deitu ziguten bertso-tarako; ta nik goizeko trenean emen, Orioko geltokian, begiratu ta ikusi ez Uztapide, ta pentsatu nuen:

– Okerren bat izan ote du? Ez dik, ba, ezer abixatu, ta azalduko dek urrengo trenean.

Alaxe, Plazentzitik Ezozira kamiorik etzegen garai artan, eta oiñez igo nintzan, beti bezelaxe; ta Uztapide falta.

An salda beroa artzen ari nintzala, agertu ziztaizkidan jai-eratzailleak:

- Etorri al zera, Lasarte?

- Bai. Ementxe naiz ni.

- Ta Uztapide nun da?

- Ez dakit. Baiña agertuko da. Zer egitarau daukazute?

- Orain bertsolariak; eta urrengo, dantzari-taldea.

- Leenengo egin dezatela dantzan, eta gero guk bertsotan -esan nioten.

- Konforme.

Ta alaxe moldatu.

Uztapide, berriz, biaje txarra bezperan Naparroara joanda, etxeratu ez ta tasisean Plazentzira, irabazi denak gastatuta.

Aiako Santiorako deia

AIAKO Santio baillaran pestak zirala-ta, bertso-tarako abixatu ziguten. Ni soldaduska betetzen ari nintzan, ain juxtu ere, garai artan. Baiña, illabeteko permisoa eman zidatenez, etxera etorrita nengoen, pozik gainera. Nola ez?

Zakurra ta soldadua biak berdintsu juzkatzen ditut nik. Katetik noiz libratuko zai egoten baidira, bistatik aldegeteko ta bakoitzak desio duen lasaitasunez ibili aal izateko.

Etxea, lagunak eta erria, batek urruti bizi danean ixtimatzen dituela bertan egonda baiño askoz ere geiago esan genezake, iñungo dudarik gabe.

Nik neronek soldadu lagun on apartak eduki nituen arren, kezka bakarra sentitzen nuen: “Noizko bukatuko ote degu emengo eginkizuna, etxe aldera joan da eguneroko ogia irabazten asi gaitezen serio antzean?”. Eta beste soldadu askoren pentsamentua ere berdintsua izango zala iduritzen zait.

Dana dala, gaurko atal ontan Santio baillarako pesta gogoangarri aietaz itzegin nai nuke.

Ni permisoarekin Aiara etorri ta egun gutxiren barruan deitu zidaten santiotarrak. Pestetarako programa edo egitaraua prestatzen asi zirala, eta bertsolariak eskatzen zizkiotela baillaran bertako jende geientsuenak. Ea joateko moduan ote nengoen, beste bertsolari bat billatuta.

Ori entzunik, galdetu nioten:

- Nere gain uzten al dezute beste bertsolaria birlatzeko kargua?

- Bai, aal bazenezake.

- Bueno, ba. Alegindu gabe ez naiz geldituko, eta deitu berriro mesedez etzi gaurko ordu berean. Santio egunerako esan didazute noski?

_ Bai. Ta bigarrenean ere bear zaituztegu.

- Bapo.

Alaxe, abixatu nion Uztapideri, ta bertsotara jona zala bezperan, ez dakit zein erritara. Baiña etxera zetorrenean enkargua emango ziotela.

- Ederki. Esan zaiozu Aiara deitu dezaidala telefonoz leenbaileen, Manuel Lasarteren partetik. Derriigor itzegin bearra daukadala berarekin. Orixe aski da.

- Zu Lasarte al zera, bertsolaria? -galdetu zidan.

- Bai; alaxe naiz.

Ori erantzun nionean:

- Soldadutza bukatu al dezu?

- Ez oraindik den-dena. Permisoa eman didate, illabete etxean edo komeni zaidan tokian pasa dezadan lasai.

- Bueno. Laister deituko dizu gure Manuelek, gaur ezin badu ere, biar goizean seguru. Ura ez da go zutaz aaztua.

- Ez da egongo, ez. Ori badakit, eta urrengora arte.

Ori esanda utzi nuen telefonoa, ta biaramonean zuzen asko ta goiz deitu zidan Uztapide jatorrak Aiako estankora. An baizegoen telefono publikoa garai artan, gure etxetik oso bertan, metro gutxitara. Zerbaiten abixurik artzen zuen bakoitzean, leiotik

otsegiten zigun telefonistak, eta orduan korrika joan da itzegin.

Uztapidek ere bazeukan gogo. Egun on alkarri opa ondoren:

– Zer modutan aiz, Lasarte? – galdetu zidan.

– Ni ongi. Ta zu? erantzun nion.

– Ez dek okerrik emen: parrandan batetik bestera gabiltzala betiko martxan. Ik badakik gure opizio narratxaren martxa, Lasarte. Osasunak laguntzen digun bitartean, segi aurrera. Etxean geldituko gaituk, kanporako balio ez degunean.

– Ederki, Manuel, nere tokaio zaarra. Orain beste galdera bat daukat zuretzat: Aiako Santio bailaran leen ere kantatuak gera zu ta ni biok, ez dakit gogoan daukazun baiña. Aurten ere gu aukeratu gaituzte. Libre al zaude?

– Bai noski. Itxogin zak une batez. Kalendarioan begiratuko diat badaezbada, seguru jakin aal izateko. Santio egunerako esan naiko dek?

– Baita bigarrenderako ere.

– Kontxo! Bero dituk santiotarrak, itxurak diranez. Egon adi, Lasarte, minutu batean.

Utzi telefonoa ta joan zan. Baiña laister itzuli ere bai, ta esan zidan:

– Bi egun oietan libre negok suertez. Alkarrekin dotore pasako dizkiagu aspaldiko partez, sano baldin bagera, Lasarte. Noizko eta zer ordutan joatea komeni dan erabakiko zendutela pentsatzen diat.

– Ori erabaki samartua dago, Manuel. Goizean bederatzi t'erdietan irixten da Oriora Bilbaotik Donostira dijoan trena; eta, zu artan etortzen bazera, ni estazioan edo geltokian zai egongo naiz. Beraz, badakizu orduaren berri, gutxi gora-beera. Gaur deitezotan dira Aiako santiotarrak neri; ta, zerbai-

ten aldaketarik balego, abixatuko nizuke. Bestela, Santio-egunera arte, Manuel.

- Oso arrazoi ederra eman didak, Lasarte. Orain bazekiat dena, ta segi ongi ik ere.

Ontantxe bukatu ziran gure telefonoko itzak; eta Santiotik Aiako Kalera joan zitzaizkidan bi lagun, beste zer egiñik gabe, ezer moldatu aal nuen galdezka. Ta:

- Bai, mutillak. Nik Uztapiderena zuzendu diat. Oso ontzat artu dik nere eskaera; ta jakin nai zuena gauza bakarra dek: zer ordutarako etorri bear duen. Bederatzi t'erdietako trenean esan zioat. Ongi al dago?

- Bai orixe.

Bi egun zoragarri aiek gogoan ditut beti.

Uztapideren izakera baikorra

UZTAPIDEREN bizitza oso baikorra billatzen nuen nik. Aren freskura ixtimagarri utsa zalakoan egoten naiz, nere iritzia egizkoa baldin bada beintzat; edo, bestela, deskuidoren bat eduki nezake agian. Baiña ez det uste ortaraiñoako kaskajoa naitzenik.

Bere lagunekin ongi eramatea gustatzen zitzaien gizona genduen Uztapide bertsolaria. Arroke-riak etzuen tokirik aurkitzen aren biotzean eta bu-ruan. Umiltasunak balio du emen. Orixe baida alde guztietan errespetoa jartzen duen oiñarri garrantzi-tsua ta bakarra. Pertsonaren aunditasuna ortik da-torrela dudarik ez nuke jarriko nik, nere ezjakiñean.

Beste anai bat ere bazuen bere antzekoa, edo zintzoagoa agian: Nazario Olaizola. Endoiatik Oiar-tzungo Ergoienera biak batera aldatu bizi-moduz, eta alkarrekin pasa zituzten geroztikako urteak, il bitartekoak alegia.

Uraxe ere bazan zerbait. Etxe bakoitzean mutil zaar bat ona izan oi zala, baiña bi ere artu zitezke-la aien Nazario bezelakoak esaten zuen Uztapide ber-tsolariak.

Parrandarik sekulan egin gabeko gizona zirudien. Arrizgarrizko neurria erabiltzen omen zuen jai ta aste zintzotasunean. Etxetik bi pausotara faubri-ka bat zeukanenez, ango goardia egiten zuela gauez uste det.

Eta egunez, berriz, etxeko lanak. Asko edo guxti, beti zerbait sortuko zitzaion an ere. Baiña ala ta guztiz ere kontentu.

Neri sarritan kontatu zizkidan Uztapide bertso-lariak bere anaia Nazarioren ixtori politak. Nik iñoiz lan-konturik aipatzen banuen:

- Presaka bizi aiz. Lasarte. Alper-alperrik, ordea. I leen ere lan geiegi egin bearrak izurratu au, ta obeko dek ortaz garaian konturatzea. Lan denak ez dituk bukatuko. Gerorako ortxe gelditu dedilla sobratzen dana -esan oi zidan nere lagun Uztapide ospetsu jator arek.

Arrazoi aundiz, gaiñera. Baiña nik nere martxari eutsi nion, erabat auldu ta eziñak menperatu ninduen bitarteraiñoan. Ez baizegoen bestelako jokabide itxurazkorik, eguneroko ogia eskuratu aal izateko; ta kontu estu samarrak dira langillearenak, sarritan beintzat. Ara emen, irakurle, Uztapideren ateraldi freskoa, ta dotorea era berean.

Bai al dakizu zer entzun nuen, berak esanda, beingo batez?

- Bertsotan nekatzen gaituk dexente. Baiña, ortik aparte, ez diat nik lanean gorputzik beartzen. Gure anaia Nazario, berriz, edozer lan-klasetan kantari jarduten dek; eta nik utzi bere kasa. Gustora ari dan gizonak egin dezala lana. Ura artantxe gozatzen dala bazekiagu, gu exerita egoten bezelaxe. Ta aurrera.

Manuel Olaizolak buruz eraman zuen etxe aldeko bizi-modua, bere andre Kontxitaren babesean noski. Seme bakarra azi zuten, orain edo aspaldiko urteetan ezkondu ta familian bere andre ta amarekin batera bizi dana. Umeak ez dakit zenbat dituzten.

Dana dala, atal onen asieran aipatzen dedan karreteari elduko diot berriro ere.

Uztapide bertsolaria lagunzale amorratua zan, irakurle. Ortaz errez konturatuko zera, nere idazlantxo au eskuratzen dezunean.

Egun batez arritu arazi ninduen leenez gaiñera ikaragarri, ta esango dizut zergatik,

Elosun Egileor bertsolariari omenaldi eder bat egin zioten Urri-illean gutxi gora-beera. Zein urtetan ez daukat gogoan.

Lastima, baiña eguraldia egokitu zitzaigun txar bildurgarri oietakoa, iñolako moduz aaztu eziñezkoa, ta an ziran komeriak.

Estalpe aundi batean antolatu zuten bazkaria jende askorentzat, aurrez enkargatua seguru asko; ta puntaraiño betea ikusi genduen. Saiets alde guttietan toldoak jarrita zeuden. Baiña aize negargarri arek astintzen zituen ederki toldo ta gaiñontzeko tresnak.

Euria, berriz, bonberoak mangaren bidez beze-tatsu botatzen zuenez, an etzegoen giro tajuzkorik.

Baiña ala ere bazkaltzen ari giñan, eramandako zira ta erropa denak soiñean jantzirik genituela. Nik neronek, beintzat, ez nuen berotasun aundirik sentitzen, eta beste iñori ere ez nion entzun alamoduzko konturik. Denborale traketsa benetan zaar jendearentzat, sasoikoak errezago irauten duen arren.

Alaxe, bazkal erdiko garaian, guk espero genduen bikote bat agertu zitzaigun. Uztapide bertsolaria bere lagun aundi batek kotxean eraman omen zuen. Imanol Lazkanok, baztar aldeko txokoan zegoen eta bere ondoan exeri arazi zuen Uztapide, babesean egon zedin.

Bertsolari-mordoska bildu giñan Elosun Jesus Egileorren omenez. Uztapidek zorionak eman zizkionean etzan asarre Egileor. Nik bien itzak entzun nituenez, ongi dakit ori.

Sinistu eziñik gelditu nintzan Uztapide Elosuraino nola joan ziteken, eguraldi ura ikusita, alde batetik; eta bestetik, berriz, perlesiak burutik anketara jo ta gaixo egonik. Baiña Uztapideren nortasuna orrelaxe zan, ordea; ta kito.

Gurekin batera oltzadura gaiñera igo zan arratsaldeko bertsoak entzutera. Baiña otzak pasata aldegin zuen berealaxe.

Lasturko baillara eta Zubeltzu bertsolaria

LASTUR Itziartik urrean dagoen baillara bat da, ta berari dagokion ataltxo bat osatu nai nuke, aal badet beintzat. Denbora nere baitan daukadan ezkerro, poliki-poliki segiko diot idazten, xuabe ta txukun antzean, irakurleak errezago ulertu ditzan gauzak.

Lasturren sarritan bertsotan jardunak giñan gu leen. Orain, aspalditxoko urteetan, ez.

Zubeltzu bertsolariarekin ere antxe kantatu nuen nik leenengo aldiz; eta, ordurako dexente za-arturik zegoen arren, gustatu zitzaidan aren bertsoaren egitura zuzena eta gozo-puntukoa.

Txirritaren garaiko bertsolaria bearko zuela izan pentsatzen det Zubeltzuk berak ere. Gutxi gorabehera diot au, seguru ez dakidalako. Baiña biak kantari jardunak omen ziran plazetan ere iñoiz, nik entzuerara dedanez.

Gizon atsegiña zan Zubeltzu, neretzat beintzat. Urtero bixitatzen zuen San Anton egunez Getari; ta, gure bertsoak entzunez, txoriak bezin kontentu sentitzen genduen.

Beingo batez, Uztapide, Basarri ta ni, Lasarte, irurok giñan Getarira joanak; eta udaletxeko balkoitik bertso-saioa beti bezela egin ondoren, behera jetxi orduko, an gendukan zai Zubeltzu zaarra.

Ta soziedadera edo bazkunera inguratzeko mesedez esan zigutenez, bertara jo genduen; eta amai-ketakoa prestatua zegoen, ez guretzat bakarrik nos-

ki. Komeni zitzaion guztiari ematen zioten salda be-
roa, aragi egosi ederra, txorizo-mutur gozoak naas-
tuta, ogi biguna, txakolin ona ta abar.

Baiña guk goserik ez, ordea. Iribarren ostatuan
bertsotan plazan asi aurretik ongi gosalduta egoten
baigiñan. Eta gero bazkari aundia ere antxe egin be-
ar derrigor, eta uraxe galdu nai ez. Aukera geiegiz-
koak orrelako lanak ditu, ta soziedadean jatekoari
ez genion kasorik egiten.

Txakolin pixka bat edanez, kontu kontari den-
bora pasa; ta, bertsoak eskatzen zizkiguten garaian,
kantatu ta aurrera. An biltzen zan jende jatorraren
gustoa betetzen alegindu berrizko ere.

Zubeltzu zaarrak Getarin egindako ateraldiz go-
goratu naiz une berezi ontan. Tabakoaren bidez
omen zetorrela minbizia edo kantzerra esan zuen
norbaitek, eta Zubeltzu bertsolariak onela dio:

- Bai. Oraingoz beintzat modan dabil esaera
ori. Baiña nik neronek gaur baiño zigarro bat gu-
txiago ez det erreko biar ere, petakan tabakorik bal-
din badet.

Ara: ortxe agirian utzi zigun Zubeltzuk nolako
grña zeukan tabakoarenganako.

Leen, gure gazte denboran, petakatan erabili oi
zuten tabakoa, ta papera ere bai zigarroa egin aal
izateko, estankoan erosita noski.

Txiskero dotorearen orde, berriz, metxeroa su-
gaitzat. Mendi ta basoetan bera seguruen, aizea in-
dartsu antzean zebillenetan batez ere.

Nik gure aita somatu nuen iñoiz, basora iñaur-
kiña edo garoa ebakitzera joanda:

- Metxeroa metxarik gabe zeukat. Poxpolo ale
bakarra, berriz. Au dek komeria! Etzekiat nola mol-
datuko naizen onekin. Zigarro au piztutzen ez ba-
det, etxera joan da sutan dagoen illantiren bat eka-
rri bearko didak, Manueltxo.

Ori esan ondoren, artu eskuan ale bakarra zeukan poxpolo-kaja, erantzi buruko txapela, sartu bi eskuak barrura txapela iriki zedin, zigarroa ezpaiñetan zuela babestu garo tartera; ta aizeak nundik jutzen zuen, era artara baiña kontra jartzen zion txapela. Ta alako batean, poxpoloa sutzearekin batera, piztu zuen zigarro zoriontsu ura, ta gustora gizona. Emen bakoitzak bere bizioak ditu.

Dana dala, idazlan ontan Lasturren ikusitako pasadizoak kontatu nai nituzke, asieran diodan bezela.

Ez dakit zenbat urte dira segurantzi osoz esateko. Baiña Uztapide bertsolariari omenaldi dotore bat egin zioten Lastur aldeko bere lagun eta adiskideak. Ongi irabazitakoa, gaiñera, iñungo dudarik gabe.

Jaso zituen opari anaikorrak, beti gogoan izateko modukoak. Gu antxe giñan egun zoriontsu artan bertсотara joanak, eta ikusi genituen gauza politak.

Eguerdian bukatu zan Lasturko plazan antolatuturik zeukaten jaialdi alaiak; eta gero, bazkari ederra eman zigutenez, pentsatu besterik ez dago aren ondorena nolatsu pasako zuen jende bertso ta soiñuzaleak.

Uztapidek berak ere bi bertso kantatu zituen gurekin batera, pozaren pozez noski. Lasturren etzuen leenengo aldia izango.

Ta nik neronek garaiz aldegin nuen andik. Oikina inguruan, Urtiaberrin, kantatu bearra bainekuan.

Donostiako bi lagunek eraman ninduten kotxean Lasturreraiño goizean; eta gero, bueltan gentozela, Itziarko Salegiren ostatuan sartu giñan une batez, kafetxo bana artzeko asmoz. Baiña goiko jangelatik beera jetxita, pertsona batek esan zidan:

- Atoz nerekin, Lasarte, zure lagunak daude goien eta.

Alaxe, joan orduko, ezkonberriak bertso eske. Iru edo lau kantatu ta aldegin nuen.

Gu danen morrontzan ibiliak gera Euskal Errian.

Donostiko Intxaurrondon

DONOSTIKO Intxaurrondoko ixtori zaarrak balirake atal aundi samar bat osatzeko aiña, den-denak gogoan baldin baleude. Baiña leen arretaren faltaz alperrik galdutako aiek orain ez dago bilatzerik. Ara zer gertatzen dan denboraren joanean: uste gabeko gauza garrantzitsuak aaztu.

Buruak bestelako pentsamentu batzuk gaiñezka dauzkanean, pixu geiegi artzen duela esan genezake; ta gero, beartzen geran garaian, segurantzi gutxi leen pasatako ixtoriz. Baiña ala ere sortuko da noski izketarako bidea, eta jarraitu dezaiodan berari.

Intxaurrondon zenbat bertso-saio egin genduen Uztapide zanak eta nik, Lasartek, esplikutzen ez da batere erreza.

An bertako Illarregitar lengusuak eta beraien lagunak aurreko puntan ibili oi ziran pestak antolatzen, eta ortan bazuten artea, bakoitzari berea eman bear badiogu beintzat.

Illunabarrean edo arratsalde beranduan asiko zan jaialdi berezia, batzuen gustokoa alegia, ta ara nola, jakin-miña daukanarentzat: leenengo, dantzari txikien saio luze antzeko bat; eta, aiek bukatu orduko, guk artzen genioten txanda bertsoarako.

Gai-jartzailleak noiz deituko zai egoten baigianan lanean asteko. Ta berak bere gain zeukan bertso-saioaren neurria. Ordu betean jarraitzeko mo-

duan jartzen zizkigun plazako gaiak. Gutxi gora-beera diot au; baiña oker aundirik ez det erabiliko noski.

Bi bertsolarirentzat badala uste det zerbait ainbeste denboran ixildu gabe kantari jardutea. Bertso danak etziran oso egoki aietakoak izango; baiña ala ere iñor aspertzen ez, ordea, entzuten. Orixe gertatzen da zaletasuna dagoen tokian.

Intxaurrondoko lagunarte jatorrez iñoiz ezin nitke aaztu ni neroni beintzat. Ango adiskideak ez dakit zer pentsatuko duten gutaz. Baiña Uztapidek ederki kontatuko lituzke pasadizorik geientsuenak, gaur bizirik balego.

Plazan egin bearreko lanak bukatzean, atsedendaldi ona eman oi ziguten Intxaurrondoko soziedade edo bazkune dotorean, Zer komeni zitzaion edateko bakoitzari galdetu ta uraxe jarriko zioten aurreko maiaren gaiñean. Aukera osoa, afaltzeko garaia iritxi bitartean denbora errezago pasa genezan, alegia.

Ta gero, andik ordu juxtuan irten da zuzenean Zubiaurre izeneko jatetxe sonaturaiñoko pausoak ematen genituen. Afaltzeko tokia aurrez artuta edukitzen omen zuten adibidez.

Koadrilla ere aundia bildu oi zanez, nun-nai kabitu ezin eta garai onean atera bear kontuak derrigor. Bestela, bakarren batzuek tristura izango baizuten seguru samar.

Intxaurrondoko jende bertsozalea plazan egingdako bertso-saioz bakarrik etzan konformatzen, afalondoko xaltxa uraxe entzun ezean; eta arrazoi zeukaten gaiñera ortan. Nola ez? Egokiera eskura datorrenean aprobetxatzen ez bada, jai dago.

Emen, Zubiaurren, bertsotarako moduan gobernatzen ginduzten janari gozoz eta edari onez. Guk biak ixtimatzen genizkioten benetan. Sarritan

izan giñan jatetxe txukun artan. Zenbat bertso kantatu ote genduen bertako pestetan, ezkontzetan, kononio edo jaunartze nagusiak ospatzen ziranetan, aurrak bataiatzerakoan eta abar?

Baiña Intxaurrendoko jaietan Arzak-enea jate-txe famatuan ere prankotan afalduta gaude. Txandaka antolatzen baizituzten lagunarteko afari ta billerak; eta guk, besteren menpean egonik, agintzen ziguten tokira joateko pereza gutxi.

Alde denetan berdintsu nai zutela bagenekigun: umorezko alkartasuna. Orrek ez du prezio neurturik. Jende paketsua ta bertsozalearen inguruan denbora errez pasatzen dala badakigu.

Arzak-enean ere parranda latzetakoak egin izan ditugu. Jatetxe ospetsu artaz nik ez naiz aaztutzen. Ongi tratatzea baiño gauza obeagorik ez dago, bezeroak ugari antzean erabili nai baldin badira.

Beste otel edo jatetxe eder batera ere joaten giñan tarteka. Aren izenez ezin naiz gogoratu une on-tan. Baiña Arzak-enetik urrean dago, Ategorrietako bidearen eskubi aldetik Donostira gatozela. Uraxe bera ere ez det uste nolanaikoa danik. Jendez leporaiño betea billatzen genduen joandako bakoitzean.

– Bertso asko kantatu bear, baiña gero tasisean etxera –Uztapidek esaten zuen.

Lasarte-Oriako gertakariak

GAUZA zelebren pranko gogoratzen zaizkio pertsonari, denbora pasa dagoen bakoitzean; eta nere gaurko atal onen sustraia ere ortik datorrela ez daukat ukatzerik.

Lasarte-Oriako gertakariz mintzatuko naiz aspaldiko partez, bat-batean bururatu zaidalako, ta goazen aurrera. Badago zer kontaturik, den-denak zuzen eta garbiro esplikatzekotan.

Lasarte-Orian leen bazan tela-fabrikari aundi samar bat, errekaren aldamenean bertan, aurreko aldetik zugaitz bikain batzuk zituela dotore asko apaindua.

Guk entzuten genduenez, tela zuria egiten omen zuten oso ona, diodan fabrika artan. Oeak jatzeko erabiltzen diran maindare, buru-azpiko ta abar.

Emen, Orion, azokan ere Lasarte-Oriatik eka-rritako tela zuri ura erosten izan bear zuen jenderik geientsuenak izugarri gustora; ta erri aundietako dendetan zenbat salduko zan pentsatu besterik ez dago. Gauza itxurazkoak nun-nai ta beti du ixtimazio sutua. Baiña ori probatu ta gero ematen zaiona da, ta bera seguruena luzarorako.

Lasarte-Orian bagenituen adiskide jatorrak, bertsolaritza bidez ezagutuak. Tela-fabrikari nagusi ta langilleen arteko jaialdi bat ospatu oi zuten urtean beingoz. Egun bakarra noski, baiña ura oso goi-maillakoa. Gogoan artzeko modukoa, nere ustez.

Goiz-partean soiñua, dantza eta bertso-saio luze samarra. Iru oiek ziran nik dakizkidan gauzarik garrantzitsuenak; eta ume-jolasak, aukeran alde guztietan bezelaxe, kamio-ertzean.

Ostatu bakarra zegoen, ni oker ez banago beintzat, eta tokiz juxtu antzean ibili bear jendeak. Orixe izaten zuen derrigorrezko pena. Bestela, kontenttu.

Soiñu-jotzaille bikaiña eramaten zuten: Pepe Yantzi naparra; ta gu, Uztapide ta Lasarte, jarduten giñan bertsoetan.

Egun batez ez naiz sekulan aaztutzen euskaldun bi apaiz gazte nola inguratu zitzaizkigun Lasarte-Orian, esku emanez, lotsati bezin umil. Ez zeuden gaizki edukatuak, nere iritziz, bat bezela bestea. Onela asi ziran izketan:

- Gu estranjerian oso urruti misionero edo emengo erlijiorik ezagutzen ez dan lurralde pobre batzuetan gabilitza, ango jende errukarriari zerbait erakutsi naiean. Ez daukagu langintza eroso; baiña, geronek aukeratua izanik, urteak deramazkigu. Aurrerantzean ere bertan jarraitzeko asmoz gaude, ez dakigu noiz arte; ta zuen bertsoak eramango genituzke pozik zintan grabatuta. Baiña ez zaituztegu konpromiso txarrean jarriko iñundik iñolaz ere. Orrengatik gatoz, komeni dan edo ez galdetzera. Zuen baimenik gabe ez goaz ezertan aстера.

Ori entzunik, Uztapidek esan zioten:

- Artu bertsoak lasai, ta gorde urte askotan. Gure saioari berealaxe emango diogu asiera, ta zuek ekarri dezuten zinta geientsuena beteko da seguru asko, guk kantatzen ditugunekin.

Auxe zan Uztapidek eman zioten erabaki jatorra, ta urrengo neri galdetu zidaten:

- Zu konforme al zera, Lasarte?

- Bai. Ni beti konformatzen naiz Uztapidek

esandakoz. Ez baidu nere kalterako itzegiten, onelako kasoetan batez ere. Ta badezute gure baimena, oso-osorik gaiñera, zuen mesederako baldin bada –erantzun nioten, eta pozez beterik utzi genituen.

Apaiz gazte edo sasoitsu aiek ez ziran asarre johanak, bertso-mordoska artuta. Baiña sekulan geiago ez ditut ikusi inñun, nik dakidala beintzat. Agian antxe, leengo toki berean, jarraituko dute oraindik misionero.

Dana dala, guk egun ederra pasa genduen Lasarte-Orian, tela-faubrikako lorategi apain artako zugaitz aundien itzalean, eguraldi beroa zan arren asko penatu gabe.

Bazkari oparoa, leenengo; ta gero soiñua, dantzta ta bertsoak aukeran. Umore ona gaiñezka, ta denak kontentu. Zer izan leike gauza obeagorik pertsonaren bizitzarako?

Orain, Lasarte-Oria bere tokian utzirik. Manuel Olaizola Uztapiderengana itzuli nai nuke, liburu berri oni bukaera gozo antzeko bat eman dezaiodan.

Uztapide bertsolari aundia azkeneko aldiz kliniketan ikusi nuen, il baiño egun batzuk leenago; ta naikoa triste. Burua ongi zeukan artean, baiña beste gauza asko gaizki. Zer modutan zegoen galdetuta, onela zion berak:

– Oean geldirik nagoela miñik ez diat sentitzen. Baiña estuasunik txarrena pasa gabe oraindik, Lasarte.

Ori esatearekin batera, bi aldiz aurpegira zorroztasun izugarritz begiratu zidan. Negar-malkoak ez zituen urruti gizagaixoak; eta ez nik neronek ere.

Aren izakera ederrez aaztu ezin nintzalako ekin nion idaz-lanari, ta ez daukat batere damurik.

Beraz, agur, Manuel. Gaur bizirik bazeunde, bi musu emango nizkizuke; ta, zuri eskeintzen dizudan liburu au eskuratuko dedanean, gauza berbera egingo det: bi musu aundi eman.

Azken agurra

Poz au ez det, Manuel,
galduko sekula:
bertsogintzak zurekin
bat egin nindula.
Ongi dakit zuk grazi
aparta zendula,
ortarako doaia
biok bagendula,
nundik sortu zitzaigun
ez genekigula.

Zutaz izketan asten
naizen momentuan,
gure bertsogintza det
nik pentsamentuan.
Ederra ta gozoa
ziñan zu kantuan;
alkarren maitasuna
arturik kontuan,
lan asko egin gendun
guk pake santuan.

Iñoiz ez gendun autsi
batahun-katerik,
alkarri ez genion
egiten kalterik.
Zure aurka ez daukat
itzik esaterik,
zurekin ibilia
naiz pozez beterik,
lagun obeagorik
ez dago izaterik.

Manuel, gu biltzean
etzan falta ezer,
ongi konpontzen giñan
Jainkoari esker.
Zuk erria serbitzen
egin zenduen ler,
kantatu zendulako
ainbat bertso eder,
zoriondu nai zaitut
bein da milla bider.

Bertsoak premizko du
legezko joskera,
orixe baida bere
soiñeko jazkera.
Ez da ikasten egun
batetik bestera
garbiro erabiltzen
ziñezko euskera;
ni ez noa zarrari
berria nastera.

Txoria aldatzen da
basotik basora,
bai ni ere, Manuel,
pausotik pausora.
Zu falta zaitudanez
ez nabil gustora,
ezin bainaiz iritxi
zorion osora,
gu biok len genduen
maitasun gozora.

Kantatzen zenekien
noiz, nola eta non,
argatik jaso zendun
ainbeste zorion.
Biok alkarri ongi
laguntzen genion,
nik bertsozaleari
begiratzen nion,
amaika parre gozo
eragin zenion.

Zure bertso gozoak
ta umorekoak
ziran ezitia baiño
gusto obekoak.
Sake batzuk zenitun
buelatik gabekoak,
pelotari on baten
molde berekoak,
nork atera lezazke
aien parekoak?

Nola sakeak eta
ala errestuak,
nik ikusten nizkizun
oso erreztuak.
Zure bertsoak ziran
apain orraztuak,
baita ziriak ere
txukun zorroztuak,
sartzen zenituela
ez gaude aztuak.

Betiko ez da iñor
jaiotzen mundura,
ori esan gentzake
dakigun modura.
Manuel Uztapide
datorkit burura,
bi aldetara joan zan
gizon eder ura:
gorputza lurpera ta
anima zerura.



Uztapide, Donostian, 1967-VI-11-n,
bertsolari-txapela irabazitakoan

Arkibidea

Itzaurrea	7
Jaiotetxea eta Endoia	11
Jokabide batzuk	14
Iraupen izugarria	17
Endoiatik Oiartzuna	20
Mendaro eta Astigarribia	25
Krixkillu	30
Elizondo	33
Getari	36
Naparroako Belaten	40
Martutene	43
Bi gertaera	47
Urnietako Xoxoka	50
Urretxu	53
Pasai Antxo	56
Baztan aldean	59
Donostia	62
Bertsolari zaar batekin	65
Oiartzungo Ergoien	68
Basoan	71
Ala ere naiko urrean	74
Donostiko Antiguan	77
Uztapideren izakeraz	80
Albiste illuna bezin tristea	83
Zarauzko <i>Zinema</i> pelotalekuan	86
Donostiko <i>Bodegón Alejandro</i>	89

Erdibidea, Kaxiano itxua eta abar.....	92
Añorga	95
Parrandarako afana.....	98
Ernani.....	102
Mutriku.....	106
Txapelketako estuasunak	109
Zarautz	112
Orioko lagunak.....	116
Bertsolaritzak ainbat une gogoangarri	120
Napar aldeko albiste batzuk	124
Eguneroko ogia bezelatsu	127
Santo Tomasetan	131
Bertsolaritzaren naigabeak	135
Tolosa	139
Itziarren, ezkontza edo boda batean.....	143
Amezketak	147
Berdin gabeko Donosti	150
Mugaz beste aldeko gertaera bat.....	153
Bertsolaritzaren pasadizo zaarrak.....	157
Ezkontza askotan parte artua.....	161
Alegi erri polit euskaldunean	164
Leengo zaarrak eta oraingo berriak.....	167
Gaitzaren mende	171
Aiako San Pedro baillaran	175
Arrua-goikoan omenaldi bat	179
Uztapideren umore aberatsa.....	183
Bidañin egun zoragarri bat	187
Egazkin txikiaren zai	190
Bertsolaritzaren muga juxtuak	194
Idiazabal eta Zepai bertsolaria	198

Tripa-jate latzak	202
Aiako Santiorako deia.....	206
Uztapideren izakera baikorra.....	210
Lasturko baillara eta Zubeltzu bertsolaria	214
Donostiko Intxaurrondon	218
Lasarte-Oriako gertakariak eta azken agurra .	221
Azken agurra.....	224

Manuel Lasarteren orain arteko liburuak:

- | | |
|-------------------------------|--------|
| <i>Bertso-mordoxka</i> | (1970) |
| <i>Gordean neuzkanak</i> | (1975) |
| <i>Beranduko lanak</i> | (1992) |
| <i>Lazkao-Txiki gogoan</i> | (1992) |
| <i>Enbor zarraren ezpalak</i> | (1995) |
| <i>Kantuaren ordaiñez</i> | (1997) |
| <i>Uztapide gogoan</i> | (1999) |



1051100
G-129/10



Urte askoan izen bereko bi bertsolari or ibili ziran erriz-erri kantuan: Manuel Olaizola, Uztapide alegia, eta Manuel Lasarte. Ixildu ziranean oartu giñan zer lan eder egiñak ziran. Ez dakit merezi ainbat eskertu genituan.

Leenengoa il zala urteak igaro arren, bigarrenari etzaio lagunari zion maitasuna batere galtzen. Ala, egun batean luma artu eta or asi zan aren oroipenak papereratzen, bere euskera garbi, gozo ete aberatsaren bidez.

Ez ditu Uztapideren bizitzaren argibide guziak ematen; baiña bertsolari aundi aren izakera eta biotz aundia ezin obeto agertzen dizkigu.

Euskeraren zorionerako azaldu zan bertsolari-bikote ura; era berean, gure izkuntzaren zorionerako loratu da gaur eskeintzen degun liburua. Eskerrak, beraz, Lasarteri; eta idazlan baliotsu onek lagun dezaigula *Uztapide gogoan* betiko gordetzen.

ISBN 84-89080-81-X



9 788489 080812



Auspoa